- BELLETTI, A. (1985) "Unaccusatives as Case Assigners", Presentation to Lexicon Seminar, M.I.T., Cambridge, Massachusetts.
- , and B. LEVIN (1985) "Investigations in Subcategorization, Optional Arguments, ...", Presentation to Lexicon Seminar, M.I.T., Cambridge, Massachusetts.
- BOWERS, J. (1973) *Grammatical Relations*, Doctoral Dissertation, M.I.T., Cambridge, Massachusetts.
- , (1981) *The Theory of Grammatical Relations*, Cornell University Press.
- BURZIO, L. (1981) *Intransitive Verbs and Italian Auxiliaries*, Doctoral Dissertation, M.I.T., Cambridge, Massachusetts.
- CARTER, R. (1976) "Some Linking Regularities", Unpublished Manuscript, Université de Paris VIII.
- CHOE, H.-S. (1985) "A Theory of Superscripting and Case", Unpublished Manuscript, M.I.T., Cambridge, Massachusetts.
- CHOMSKY, N. (1981) *Lectures on Government and Binding*, Foris, Dordrecht.
- , (1982) *Some Concepts and Consequences of the Theory of Government and Binding*, Foris, Dordrecht.
- FISCHER, S. (1971) *The Acquisition of Verb-Particle and Dative Constructions*, Doctoral Dissertation, M.I.T., Cambridge, Massachusetts.
- , and B. MARSHALL (1969) "The Examination and Abandonment of the Theory of *Begin* of D. M. Perlmutter as Carried Out by Two of the Inmates of Room Twenty E-Two-Fifteen, under the Direction of Devine Providence", M.I.T. manuscript, Cambridge, Massachusetts.
- GRUBER, J. (1965) *Studies in Lexical Relations*, Doctoral Dissertation, M.I.T., Cambridge, Massachusetts.
- HALE, K. (1983) "Warlpiri and the Grammar of Non-Configurational Languages", *Natural Language and Linguistic Theory*, 1, 5-47.
- , and M. LAUGHREN (1983) *Warlpiri Lexicon Project: Warlpiri Dictionary Entries*, M.I.T. Lexicon Project Manuscript.
- HUANG, C.-T. J. (1982) *Logical Relations in Chinese and the Theory of Grammar*, Doctoral Dissertation, M.I.T., Cambridge, Massachusetts.
- JAEGGLI, O. (1984) "Passives, Middles, and Implicit Arguments", Unpublished Manuscript.
- JACKENDOFF, R. (1972) *Semantic Interpretation in Generative Grammar*, Studies in Linguistics, M.I.T. Press, Cambridge, Massachusetts.
- , (1983) *Semantics and Cognition*, M.I.T. Press, Cambridge, Massachusetts.
- JELINEK, E. (1984) "Empty Categories, Case, and Configurationality", *Natural Language & Linguistic Theory* 2, 39-76.
- KEYSER, S.J., and K. HALE (1984) "A Note on the Middle Construction", Unpublished Lexicon Project Manuscript, M.I.T., Cambridge, Massachusetts.
- KEYSER, S.J., and T. ROEPER (1984) "On the Middle and Ergative Constructions in English", *Linguistic Inquiry* 15, 381-416.

- KNECHT, L. (1985) *Subject and Object in Turkish*, Doctoral Dissertation, M.I.T., Cambridge, Massachusetts.
- KOSTER, J. (1978) "Why subject sentences don't exist", in Keyser, S.J. (ed.) *Recent Transformational Studies in European Languages*, Linguistic Inquiry Monograph no. 3.
- LAKOFF, G. (1977) "Linguistic Gestalts", *Chicago Linguistic Society* 13, 225-235.
- LEVIN, B. (1983) *On the Nature of Ergativity*, Doctoral Dissertation, M.I.T., Cambridge, Massachusetts.
- MARANTZ, A. (1984) *On the Nature of Grammatical Relations*, M.I.T. Press, Cambridge, Massachusetts.
- MOHANAN, K.P. (1985) "Lexical and Configurational Structures", *The Linguistic Review* 3, 113-139.
- OOSTEN, J. VAN (1977) "Subjects and Agenthood in English", *Chicago Linguistic Society* 13, 459-471.
- PERLMUTTER, D. (1978) "Impersonal Passive and the Unaccusative Hypothesis", *BLS* 4.
- . (ed) (1982) *Studies in Relational Grammar 1*, University of Chicago Press, Chicago and London.
- . (1985) "Personal vs Impersonal Constructions", *Natural Language and Linguistic theory* 1, 141-200.
- . and P. POSTAL (1982) "Some Proposed Laws of Basic Clause Structure", in Perlmutter, 1982.
- ROSEN, C. (1982) "The Interface between Semantic Roles and Initial Grammatical Relations", in Zaenen (ed.), 1982, 71-113.
- ROTHSTEIN, S. (1983) *The Syntactic Forms of Predication*, Doctoral Dissertation, M.I.T., Cambridge, Massachusetts.
- ROUVERET, A., and J.-R. VERGNAUD (1980) "Specifying Reference to the Subject", *Linguistic Inquiry* 11, 97-202.
- SADDY, D. (1985) "Some Properties of English Pleonastics", Unpublished Manuscript, M.I.T., Cambridge, Massachusetts.
- SAITO, M. (1985) *Some Asymmetries in Japanese and their Theoretical Implications*, Doctoral Dissertation, M.I.T., Cambridge, Massachussets.
- SIGLER, M. (1985) ..., Unpublished Manuscript, M.I.T., Cambridge, Massachusetts.
- SIMPSON, J. (1983) *Aspects of Warlpiri Morphology and Syntax*, Doctoral Dissertation, M.I.T., Cambridge, Massachusetts.
- STOWELL, T. (1981) *Origins of Phrase Structure*, Doctoral Dissertation, M.I.T., Cambridge, Massachusetts.
- TARALDSEN, K.T. (1982) "On the NIC, Vacuous Application and the That-Trace Filter", Indiana University Linguistics Club, Bloomington. Indiana.
- WILLIAMS, E. (1980) "Predication", *Linguistic Inquiry* 11, 203-238.
- . (1981) "Argument Structure and Morphology", *The Linguistic Review* 1, 81-114.
- . (1984) "There-Insertion", *Linguistic Inquiry* 15, 131-153.
- ZAENEN, A. (ed.) (1982) *Subjects and Other Subjects: Proceedings of the Harvard Conference on the Representation of grammatical Relations*, Indiana University Linguistics Club.

Bizkaiera Zaharra Euskalkien Artean

Joseba Andoni LAKARRA
(E.H.U./U.P.V.)


0. Sarrera.

Ene hitzaldiaren helburua ez da bizkaiera zaharraren deskribaketa zehatz eta zabala ematea, dudan denboraz at, xede hörretatik urrutia bait gaude oraindik. Aski nuke B.Z.a zeri deitzen diogun, ze testutan iker daitekeen eta ikerketa hori zertarako eta zergatik axola zaigun azal ahal banitza.

Hitzaldiaren bigarren zatian, linguistika historikoaren eta literatur ikerketen oinarri den filologiaren aldetik zenbait testuk aurkezten dituzten zailtasunak erakusten saiatuko naiz, batez ere 1596ko errefrauen eta Garibairen bi bildumen azterketa baten bitartez.*

1. Bizkaieren sailkapenaz.

Euskalkien artean mutur batean kokaturik egoteagatik edo, bizkaierari aparteko nortasuna ezagutu izan zaio ikertzaileen artean. Batzuk, ordea, urruagi jo dute eta beste euskalkien mailatik igo eta haien guztien aurrean jarri dute, euskarak egitan soilik bi euskalki bait litu: mendebaldeko (bizkaiera) alde batetik eta erdi-ekialdeko (gainerako guztiak) bestetik:



* Testu hau E.H.U.aren Donostiarra Ikerketa (1985-IX-7) eman hitzaldia da. Ez dut ematen hemen goian agindu 2. zati hori ez bait nuen Donostian irakurterik izan; zenbait eraskin eta hobekuntzarekin aterako da aurki. [Gero ASJU XX-I (1986), 31-66. or. agertu da; bidenabar LAKARRA 1986d-n aritu naiz testukritikaz eta bada bertan B.Z.eko exenplurik]. Orain ez dut ia aldaketarik egin baina oharretan eta han-hemen zehaztasunen bat sartu dut baita bibliografias aski luzea ere erantsi B.Z.ean gehiago sakondu nahi duenak nondik abia izan dezan. Laburdura eta laburzapenen zerrenda bukaeran eridin daitete.

Biziki eskerzten diot K. Mitxelenari hainbat zor dion lan honen lehen prestarea irakurria eta bere adostasuna adierazia; esar: gabe doa horrek ez duela ene hutzen errudun bilakatzen, eta pozarren nintzatekela lanean zerbait berririk (onik) aurki baleza. Eskerrak orobat B. Urgellie eman didan zenbait adibidegatik.


Lacombe horietarik genuen garbiro:

Il suffirait peut-être de distinguer deux grands groupes dialectaux: le biscayen (que l'on pourrait appeler aussi basque occidental) d'un côté, et de l'autre côté tous les autres dialectes (guipuzcoan, dialectes de la Haute et de la Basse-Navarre, labourdin, souletin) [...] On pourrait appeler ce groupe, par opposition au premier, centro-oriental. Nous justifierons cette classification par la considération suivante: on passe par gradations insensibles d'un parler à l'autre parmi ceux qui constituent ce groupe, tandis que le saut est brusque lorsqu'on passe du guipuzcoan au biscayen. Ce dernier dialecte se distingue en effet, dans toute une partie de son verbe, par l'emploi d'auxiliaires qui lui sont propres, il offre des particularités qui n'appartiennent qu'à lui dans maints détails de la grammaire en plus grand nombre que les autres dialectes, et enfin son vocabulaire tranche aussi assez souvent sur celui de ces congénères. (1924, 260)¹

Are urrutiajo joan zen Uhlenbeck Lacomberen sailkapen bikoitzari aitzinatasun handia emanaz, eta B. eta gainerako euskalkien arteko ezberdintasuna etorki berezietan oinarrituaz; bestalde, etorkiei buruzko hipotesi honek eraginik B. eta G.ren antzekotasunak historikoki etengabe eman omen den hurbiltze prozesu batez azaltzen zituen:

Si nous faisons attention aux particularités individualisantes du biscayen par rapport aux autres dialectes basques, nous avons plutôt l'impression qu'il nous faut partir de deux dialectes pyrénéens occidentaux anciens qui, pendant une certaine période, n'étaient pas immédiatement voisins, mais qui, entrés plus tard en contact immédiat, se sont rapprochés de plus en plus. De l'un serait donc issu le biscayen; du second, tous les autres dialectes en territoire espagnol et français. Le rapprochement entre le biscayen et le guipuzcoan, en d'autres mots l'effacement graduel des limites indubitablement nettes autrefois, est un procès en cours depuis longtemps et qui se poursuit toujours. (1947, 544).

hau da:




Lafon eta Allières jarraiki zaizkie ikertzaile hauen iritzie: lehena aitzin ohar eta gaztiguekin Lacomberenari, ausartago bigarrena Uhlenbeckenari:

M. Lacombe est d'avis que les dialectes basques peuvent être divisés en deux grands groupes, le biscayen d'une part, et de l'autre tous les autres dialectes. Cette opinion, qui paraît fondée dans l'ensemble, nous semble devoir être nuancée de quelques réserves [...] Cette importante affirmation de M. Lacombe, dont les bascologues souhaitent qu'il expose un jour la justification... (LAFON 1943, 13 eta 73).

1. Cf. "Si se tiene en cuenta que el vizcaíno ocupa un lugar aparte de los otros dialectos..." (LAFON 1959, 70) baina azalpenik gabe. Ibis Ez da zer esanik Lacomberen eta besterren zatiketa bikoitza erizpide ahuletan oinarritzen bada egoera modernoari dagokionez, areagoetan datekekeela duela hiruzpalau mendeetakoarekiko segidan ikusi ahalko denez. Testukritika eta linguistika historikoaren harremanez (stemmatika dela eta, esateko) ikus MITXELENA 1963 eta TIMPANARO 1985.

halere

Si se tiene en cuenta que el vizcaíno ocupa un lugar aparte de los otros dialectos, se puede representar las relaciones entre los ocho dialectos vascos de la forma siguiente, considerando su situación geográfica e indicando sus afinidades por rasgos:



(LAFON 1959, 70)

C'est le biscayen qui, de loin, se sépare le plus nettement des autres, au point que l'on a pu suggérer qu'il s'agirait peut-être, primitivement, d'une langue distincte peu à peu attirée, par voisinage, dans l'orbite basque; l'hypothèse est d'autant moins inconcevable que d'une part toute dépend, au fond, du sens que l'on attribue au mot "langue", et que, d'autre part, on trouve vraisemblablement dans le gascon un autre exemple du phénomène, puisque, selon toute probabilité, il n'a acquis que relativement tard les traits qui, aujourd'hui, le rattachent indiscutablement à l'ensemble occitan. (ALLIÈRES 1981, 108)¶

nahiz eta berehala “Mais rien dans tout cela n'est proprement démontré” (ibidem) aitortu.

2. Tovar eta Mitxelenaren erantzuna.


“El vizcaíno entre los dialectos vascos” lanean bi galdera nagusiri ihardetsi nahi izan zien Tovarrek: “¿la personalidad dialectal del vizcaíno es tal que podría representar la herencia de una lengua originariamente distinta de la que sería el antecedente de los otros dialectos vascos?” eta “¿Será el vizcaíno resto de una lengua diversa, que habría sido asimilado sólo en cierta medida a los otros dialectos vascos, sus vecinos por el este?” (Tovar 1959, 147).

Gero Mitxelenak askozaz zehatzago eta sakonago burutuko zuen B. eta gainerako euskalkien arteko gonbaraketa baten ondoren ezezkotan zegoen:

En conclusión, no tenemos en el vizcaíno un resto de otra lengua afín al vascuence oriental, que en la convivencia, como resultado de una progresiva asimilación, se ha reducido a ser un dialecto del euskera común. Se trata de un dialecto bien caracterizado, pero, en definitiva, no independiente. Forma parte del patrimonio común del vasco, es un tesoro de antigüedades lingüísticas, como los demás dialectos, pero no nos permite remontarnos, con la reconstrucción en él basada, mucho más allá. [...] El vizcaíno no procede de una lengua afín a la que dió origen a los otros dialectos vascos, sino que deriva de una misma lengua. No está excluido que rasgos primitivos del vizcaíno apuntaran ya en el vascuence de muy remotas épocas [...] Las diferencias que se reflejan en el vizcaíno actual, frente al guipuzcoano y los otros dialectos del euskera, pueden tener sus orígenes en un pasado muy remoto, pero ello no compromete más la unidad del vasco primitivo que las diferencias del latín vulgar tal como se deducen del estudio de los diferentes dialectos románicos. (TOVAR 1959 17-46)

Mitxelenarena, zalantzarik gabe, aurreko sailkapen bikoitzent kritikarik zortztena. Hasteko, Mitxelenak Lacombe eta Uhlenbecken argudio eta oinarriak oso axalekoak direla erakutsi du ez bait dute gaztigatzen, esate baterako, *norentzat* eta *zenbat* den ezberdina B: giputz batentzat hurbil ez bada, hurbilago ote zuberera edo erronkariera? Izan ere Lacombe aipatzen ditu B.ren hiztegiko berezitasunak baina ez du gogoratzen badirela hainbat hitz ekialdean giputzek egun ulertuko ez lituzkenak: *askazi* "senide", *bedatse* "udaberri", *belhagile* "sorgin", *ekuru* "lasai, geldi", *eho* "hil (iragankorra)", *jaugin eta jin* "etorri", *izterbegi* "etsai", eta beste hamaika. Zenbatu egin behar B.k gainerako euskalkiek baino hitz berezko gehiago duela frogatzeko —markatzen du Mitxelenak— eta ez dirudi honelakorik inork egin duenik ez eta nahi izanez gero ere erraz lukeenik. Orobak, aditzean mendebareko *daike* erdialdeko *dezaketik* gertu ez bada ez dateke gertuago ekialdeko *diro* (ik. Mitxelena 1964b, 59-63).

Ausartago delarik, Uhlenbecken teoria are ahulagoa dugu ez bait dago inongo oinarririk suposatzeko aintzina hizkuntza edo dialektu ezberdinak batu edo bateratu zirenik Euskal Herrian, edota "Auñemendi alboan" berak dioen legez. B. ez da, bada, euskal dialektu soil bat baizik; euskalkiak irudikatzeko zuhaitzaren metafora ezagunaz (hontaz ik. Mitxelena 1963, 80-1) baliatzen bagara adar bat litzateke anitzen artean, ez bitatik bata:^{ibis}



Bestalde, Uhlenbecki aitzi, Mitxelenak testuen lekukotasuna gogoratzen du bizkaiera eta gipuzkera hurbilduaz joan direla ukatzeko, lehen latzagoak eta nabarmenagoak omen ziren mugak beratu eta estali beharrean areagotu egin direla erakutsiaz, eta XV eta XVI. mendeetako B. eta oraingoa amini bat dazagutzanarentzat ez hurbiltze prozesua baina sakabanatzea eman dela baiezttatuaz (ik. Mitxelena 1964b, 63).

3. Bizkaiera zaharraz.

Adituek berba hortaz baliatzen direnean elkar ulertu arren, dakidanez ez da inor orain arte deitura hau zehazten saiatu, beharbada gaiak ere zehazteke diraelako. Badirudi ikerlari guztiak ados daudela izenburu horren barnean sartzeko XVI eta XVII. mendeetan² ekoiztu testuetan isladatu hizkera; XVIII.

2. Ezaguna denez, XVI. mendean bildu eta argitara zenbait testutako (herri kanta eta errefrauera ari naiz) euskarak oso eredu zaharkituak aurkezten ditu eta are aintzinagokotzat eduki behar dira. Bai herri kantetan eta bai errefraueta, tradizioakoak izaki, ez da soilik mezua mantentzen baina baita etorkizko hitz eta perpausak ere, neurriak eta gainerako egitura nemoteknikoak lagundurik, cf. F. Lázaro Carreterrek *Estudios de lingüística* (Critic, Barcelona) "hitzez hitzeko hizkuntzaz" (*lenguaje literal*) diocena eta K. Mitxelenak "Euskal hizkeraz eta euskal neurkeraz" (*Euskera* 1977, 721-33) eta beste lan batzutan egin oharrak era honestako euskal adibideekin. Gaur egungo bat edo beste gehiztearren cf. *Paseito bat emoidakezu, urten daik mutil halako bentanarian, kanpora sospetxarian, neure anaia hantxe datorke "Ana Juanixe"* baladan eta *bota egin eustan lantzea bentanarean, orain hil bere banozu eta enterrau bere naizezu "Lantzarenean"* (ik. LAKARRA et alii 1983 II; LAKARRA 1983b-n era badiria -reanen adibide gehiago herri kantetakoak). Bestalde Mitxelenak markatu bezala ipuin zaharretan ere gorde dira hitz eta esamolde zaharrak, hortik at nekez aurki daitezkenak, *balbea* esaterako cf. "muerte, en los cuentos de Peru y Maria" (s.v. *Voces Bascongadasen*).

mendekoak ez dira horren ezagunak —edizio eta ikerketa faltaz seguru asko— eta ez da hain garbi ere bakoitzak horrela sailkatuko lituzkeen ala ez; XIX. mendearen hasiera literatur bizkaieraren sorreratzat izaki Añibarro, P. Bartolome, J.A. Mogel eta bere iloba J.J. eta B., Uriarte, Zabala eta enparauekin, ez deritzot gehienek garai hau “BZ-tzat” luketenik.

Nire aldetik 1745 jarriko nuke mugarritzat, ez soilik BZarentzat baina baita —eta batez ere— GZarentzat; guztiok dakigunez urte horretan argitaratzen du Gipuzkoako Diputazioak mende hartan eta hurrengoan hainbesteko arrakasta izan zuen *Hiztegi Hirukoitza*. Ohi bezala, proposatzen den fetxa gutxi-gora-beherakoa da, jakina; ez da ahanztekoa gainera 16 urte lehenago Salamancan argitaratu zen egile beraren *El Imposible Vencido. Arte de la lengua bascongadak* izan zuen eragina literatur B. eta G.ren eraikuntzan ez zela mezprezatzeko izan³. Alabaina, bat hautatu behar eta hori aukeratu dut; cf. halaber “Gero Laramendi dugu aro berria zaharretik bereziko duena eta urtemuga, horrelakorik behar bada, 1745 litzateke” (Mitxelena 1984a, 13 eta ik. orobat Sarasola 1986). Fetxa horrek G.ren historian suposatu zuen iraultza ezagunegi da hortaz orain luzatzeko; nahikoa dugu duela zenbait urte I. Sarasolak prestatu zituen euskal liburugintza zaharraren produkzio kopuruaren tauletan (ik. Sarasola 1976, eta Lakarra 1985c-ko iruzkina) gerotzik G.zko liburuek erdietsi gorakada nabarmenaz jabetzea. Halaber, K. Mitxelenak arrestian markatu duen legez, Laramendik ez zituen soilik langile (idazle) berriak erakarri baina baita beren lanetako euskara hobetu eta gaitu ere: gonbara bitez bestela Otxoa Arinen eta Irazutztaren dotrinak Ubillosenarekin, adibidez (ik. Mitxelena 1984a; Lakarra 1985c, d; Sarasola 1986).

B.ri dagokionez Laramendiren eragina ez bide zen askoz txikiagoa izan (cf. Urgell 1985, 1986b); beranduagokoa dirudien arren oraingoz, XIX. mendearen hasierakoa, irudi hau ez bide da zuzena ikerketa faltak eragina baizen. Nolanahi ere, ukaezina da Gandara gernikarrarengan hamazortziaren erdialdean edota 1794 ean Bilbon argitaratutako gabon kantan; zilegi deritzot, bada, “literatur-aurreko B.” genukeen 1745etik 1800era doan mende erdi hori ere aurrekotik bereiztea (cf. Lakarra 1985c, 1985e).

BZ.a honela mugatu ondoren goazen orain aurrera.

4. Zergatik morfología.

Segidan BZ.ren zenbait ezaugarri —batez ere morfologiazkoak— aurkeztuko ditut eta fenomeno bakoitzaren sorerra, kronologia eta hedaduraz dakiguna laburtzen saiatuko naiz euskararen historiaren barnean BZ.ak gainerako euskalkiekin izan duen (eta duen) erlazioa argitzeko asmoz; bide batez BZ.aren alderdi honen behin behineko deskribapen llaburra lortuko banu hobe.

Gorago (1.ko atalean) agertu eztabaiderako morfología oinarritzat hautatzearen zergatia begibistakoa iruditzen zait gureak bezain aberatsa duen hizkuntza batean. Gehiago behar duenarentzat hara oso bestelako hizkuntzetan (katalanean eta erromanikoetan oro har) pentsatuaz Veny-k (1985, 57) dioskuna:

3. Ik. bedi honetaz LAKARRA 1985c, eta 1985e. Hor ematen-diren Laramendi gramatikalarriaren jarraitzaileei gehi zekiener Diego Goitia aulestiari baina gipuzkerazko egilea ere, cf. J. San Martin “Diego Goitiaren euskarako esaldi bilduma” Euskera 1982, 613-8. Nolanahi ere badirudi Goitia hau 2. graduan —Kardaberatz bitarteko zelarik— dugu Laramendiren ikasle.

3bis. Blasco Ferrer 1986 ere “morfosintaxiarri” zuzendua da erabat.

Les diferències dins una llengua històrica afecten diferents sectors: fònic, morfològic, sintàctic, lèxic (aquest, amb la cultura popular). *Qualitativament* [azpimarra Venyrena daj] tenen prioritat el fònic i el grammatical (morfo-sintàctic), més sistemàtics; després, el lèxic. *Quantitativament* [id] ofereix més fragmentació el lèxic (especialment el que no pertany al vocabulai bàsic); el que menys, el sintàctic.

eta aurrerago:

62. *Diferències morfològiques.* — Des del punt de vista tipològic, juntament amb les fòniques, són les més importants. Justament un tret morfològic [...] ha servit per a una classificació “lineal” dels dialectes catalans, la desinència de la 1a. persona del present d’indicatiu: -Ø (*cant* en balear i alguerès), -i (*canti* en rossellonès), -e (*cante* en valencià), -o (*canto* en nord-occidental), -u (*cantu* en català central). I també un altre tret morfològic, les desinències -ara, -era, -ira, de l’imperfet de subjuntiu, en comptes de -és (o -às), -is, ha estat aprofitat per rectificar el límit entre valencià i català nord-occidental que resultava d’aplicar el criteri anterior^{3bis}.

Hortaz, euskalkien sailkapen bikoitzta suntsitzeko modurik zuzenena begitandu zait ezberdintasunen gunera so egitea, horrako bere ahulezia frogatz geroz axalekoagoetarako errazago bait dateke. Ez dut ukatuko fonologiatik abiaturiko azterketek luketen interesa baina era hortako datuak ez zaizkit besteak bezain erabiliterrazak iruditu; ez bedi ahantzi testu zaharrek azterketa luze eta zehatzak eskatzen ditutzela beraietan isladatutako ahoskerak antzemateko eta oraindik horrelakorik ez dugula beharko genukeen neurrian. Halaber, euskalkien arteko fonologi ezberdintasunak ez dira morfologiazkoak adina sistematiko eta soinu kopurua eta distribuzio ezberdintasunak orobat hartu beharko genitukela gogotan; bego arlo hau hurrengo baterako, bada.

Hizategia azalekoegia genuen ezer frogatzeko bere aldakortasunean, dagoenekoz Menéndez Pidalek ongi zioenez:

Las mudanzas del léxico son ciertamente considerables, más rápidas y más frecuentes que las alteraciones fonéticas; por eso su estudio es más rico en hechos. Pero los estudios de geografía léxica hallan grandes dificultades de documentación para conocer el estadio antiguo de la distribución territorial de los vocablos, ya que los documentos primitivos manejan un léxico muy escaso; por esto los estudios suelen ceñirse al estado moderno de la nomenclatura, acaso juzgándola estacionaria y antigua, lo cual es muy aventurado. (*El idioma español en sus primeros tiempos*, 9. arg., Espasa-Calpe, Madrid, 28.or.).

Ez da zer esan Pidal euskarak baino askozaz lekukotasun idatzi haboro duen gazteleraz ari dela; bere esanek, hortaz, ehun halako balioa dukete guretzat eta, alderantziz, frango eskastuko hiztegiaren egitekoa gonbaraketarako⁴.

Azkenik, irizpideak eta emaitzak hobeki ulertzeko, eta B.Z.a enparau euskalkietarik hurbil agertuko denarren, ohar bedi nire soa aski gainetikoa izango dela halabeharrez, hots, ia lehen begiradan erabakiaz berdintasun eta ezberdintasunak; azterketa sakonago batean (aditzaren elementuen funtzio eta ordena gonbaratuaz, demagun) berdintasunak eta are isomorfismoak ere askozaz handiagoak bait liratuke Mitxelenak sarri ohartu bezala:

En el verbo no se acabaría de contar coincidencias y, cuanto más antiguos los textos, mayor sería el número de aquéllas: el sistema de tiempos y modos es el mismo, punto más o punto

4. Dozenerdi adibide: *adiskide eta lagun biak erabiltzen ziren, zein bere lekuaren B.Zean berrian (eta dirudinez ETB-n) horrela ez bada ere; RS 112 eta 130ean etsai irakur daiteke eta abade Bretoñako Kantan; RS 57.ean Edo eguiaz nay guzurraz elicatuco nayz dator eta elikatura-horko 76 eta 246.ean; gitxi Azkuerentzat soilik "(Bc)" bada ere G.Zean (Isasti, Zegamako doctrina, 1737ko Azkoltikoa Larramendiren sermoia) ere ematen zen; napur non eta Otxoa-Arinen doctrinan aurkitzen dugu... Ik. halaber 17. oharra eroanen hedadura zaharra.*

menos; muy semejante la distribución de tiempos simples y compuestos; idéntica la diferenciación de los varios auxiliares; son generales las formas alocutivas del tuteo [...] y así sucesivamente. (MITXELENA 1981, 302-3).

eta orobat Rebuschiren pasarte honetan ikus dezakegunez:

Lorsque les dialectes présentent des formes qui diffèrent de façon significative, ces dernières seront mentionnées; mais il faut bien prendre garde au fait qu'une FVC [= forme verbale conjuguée] peut être très différente sur le plan du signifiant et absolument identique sur celui du signifié, par rapport à une forme proposée par l' Académie; ainsi, l'auxiliaire biscayen *deuts-daz* et son équivalent académique et guipuzcoan *dizkiot* “je les lui ai” sont-ils en tout point identiques, en dépit de la forme des signifiants et même de la place de l'un d'entre deux, le marqueur de pluriel [...]: dans de tels cas, nous ne ferons aucune référence aux formes dialectales qui divergent de la norme proposée par l' Académie. (*Structure de l'énoncé en basque*, ERA 642, Paris 1982, 192-3).

5. Ezagarri zenbait.

5.1. -rean.

BZ.ak deklinabideari dagokionez duen berezitasun nagusienetarikoa dugu ablatiboko *-reanena*; oso bestelakoa egiten zaigu ez soilik gainerako euskalkieei begiratuaz baina baita B. berriaren alboan ere. Honela Gar. A12 *Ez oera ez oorean gora*, RS 232 *Ezconcea ta aguincea cerurean jatorguz*, RS 360 *Surean quehea jayo doa*, Mik. 182 *Urian dan pastelerea garuienerean*, etab. aurkitzen dugu, B-z orain eta aspaldi *oheitik, zerutik, sutik, garbienetik* esaten den lekuau.

Lehen prosekutibotzat (=“non zehar”) erabiltzen zen *-tik* ablatibora ere zabaltzearen historia laburtuaz (ik. Lakarra 1984b eta 1984c 116) zera esan daiteke: atzizki hori defektiboa zen lehendabiziko testuetarik ezin erabil bait zitekeen bizidunekin⁵ ez eta, baina hau testu gutxiagotan, denborazko kutsua zuenean edota leku izen bereziekin. Hots, goiko exempluak aldamenean *-(r)ik* dute beste hauak: RS 536 *Hordiaganic ençindu çeeguic arean*, Zumarraga *oneric aurrera*, RS 542 *Urrineric ospea, erricoa obea*, Aek *Ez urrun Maloguenic* eta Mik, 126 *Frandesic etorri sirea*.

Gero, pixkanaka pixkanaka *-(r)iken* testuinguruak hedatuaz joan ziren eta gainera *-reanik* pleonasmoa sortu zen (beharbada 1.ko agerraldia EK-n ematen

5. Litekeena da hemen erabiliko ez ditudan beste zenbait ezagarri izatea nire ondorioen kontra joan daitezkeenak, halere beren pisua (cf.) askoz txikiagoa iruditzen zait. Bestalde badira oraingoan ez erabili arren hainbat fenomeno B.Z.aren fonologian (bokale sudurkariak, latinetik osakosearen tratamendua, etab.), morfologian (morfema topaketa, —n-aite— aditzean, mugagabe eta hurbilekoaren erabilera deklinabidean) zein sintasian alderdi horietan ere gainerako euskalkietarik oso gertu (orain bainoago nolanahi ere) zegoela frogatzeko adina.

Beharbada en burua zuritu beharra nuke dialektu gonoraketaari ari den lan batean dialektometriaz (ik. GOEBL 1981, 1983 eta hor aipatu bibliografia) ez balitzatzeagatik. Veny-k dioenez (1985, 25) “hom ha intentat, en els darrers anys, [tot partint d'atlas exhaustius... o bé d'atlas d'una xarxa més clara als quals s'ha aplicat un correctiu] quantificar les diferències entre els parlars d'un o més dominis, per tal de fer unes divisions en unitats espacials que van de les màximes diferències (lengua) a les mínimes (parlar)”. Bainha egile berak aixortzen duenez “El principi teòric probablement és bo i la finalitat, és a dir, un intent objectiu de divisió de l'espaï dialectal, no és sinó tan lleuorable com difícil. Sorgeixen, emperò, alguns punts discutibles o penumbrosos, com és ara: a) És necessari tenir en compte no només l'aspecte quantitatius, sinó també el qualitatius, atès que certs fenòmens (morfològics, p.e.) són més importants que d'altres... b) El mètode es basa en un concepte de diferenciació progressiva de l'espaï lingüistic, sense tenir en compte que pot haver-hi —que hi ha regresions. En els punts A, B i C, p.e., pot registrar-se una diferència entre A i B i una altra, en sentit invers, entre B i C, de manera que entre A i C es registri una semblança... c) Com en altres tipus d'estudis, els casos de polimorfisme, de variants diàstratiques o diafàsiques poden distorsionar els resultats en el sentit que es comparen variants lliures o nivells diferents de dos o més parlars... d) Una aplicació concreta al català... ha donat lloc a uns resultats que cap dialectòleg coneixedor del català subscriuria... Caïdra admetre que l'enfocament quantitatius no és suficient i que cal recórrer també a aspectes qualitatius, a la consciència lingüística dels parlants, a les incidències històriques, etc.” (op.cit. 26-7).

6. RS 544 *Huhunerean hoxtuac bulea da*, dakidanez, salbuesen seguru bakarra, Gamizen *eroean itzac agian eroaren* izan bait daiteke; cf. “Gaur -tika atzizkiak bidizun izemekin -gan eskatzen du, bainan, itxuraz, ez da betidanik horrela izan. Erronkariko atsotitz batzuk honela dio: *aurretik eta erotik egia*” (de RIJK 1981, 94, Azkueren *Particularidades del dialecto roncalés* 227 aipatuaz).

da 1638an) *-rean* zaharraren lekua hartuaz: forma berria gutxiengoan dago orain-dik XVII.mendeko lekuo gehienetan, baina nagusitua da Zubia-Lezamizen (1691-9) dotrinan. 1700etik aurrera zaharkiturik dakuskigu nahiz bata nahiz bestea: 1758 da dakidanez *-reanen* azken agerraldiaren data (Arzadunen dotrinaren 2. edizioan)⁷ eta justu mende bat beranduagokoa *-reanikena* (1858, Bonapartek argitaratu Laudioko dotrinan).

Bitartean *-(r)ik* ablatibozkoa eta *-ti(k)* prosekutibozkoaren formak nahasiaz doaz eta XVIII. mendearen erdialderako prozesu hau amaitutzat eman daiteke *-ti(k)en* alde.

Aldaketa guzti hauek ez ziren modu berean eman ez sistema guztian (pl.ean mende bat lehenagokoa da) ez eta azpieuskalki orotan ere: Betolatzarentzat (1596) dagoeneko *-(r)ik* zen ablatibo arrunta eta *-rean* soilik fosilen batean (*hilen arte-rean*) darabil.

Orain arte ikusi dugun hau genuke, gutxi gora behera, BZ.ak gordetzen zuen ezaugarri honen galeraren historia. Alabaina, gaia bere osotasunean begiratzeko, beste euskalkietan zer gertatzen zen ere jakin beharra dugu.

Ez dugu *-rean* ablatiborik aurkitzen orain hitzegiten diren euskalkietan, ez eta are beren testurik zaharrenetan ere. Alabaina, gureganaino iritsi ez den baina testu zaharren bitartez, zati batean bederen, ezagutzen dugun arabera bazen horrelakorik: Land. *urdabilerean gaiça euqui* “ahitarse el estómago”, *dolenciareā conualecidu* “conualecer de dolencia”, *errena oynereā* “coxo de pie”, *pelligururean libra[du]* “librar de peligro” etab., Gamiz *erorean itzac* (?)

Euskalki honetan baten *-ren* aldaera ere: Land. *oneren* “de aquí”, *orreren* “de ay”. Mitxelena ohartu legez aldaera berau ediro dezakegu 1619ko Tolosako bertso iraingarri batzuetan (TAV 127 eta hur.):

Consolatu oy da Profetissarequin,
Escuren duela Alferiz Machin,
Ascotan sartu oy çaca Abbadesaquin;
Andre ederroc orduan danzatu oi dira vesterequin.

Gainera, Mitxelenak (1977, 119 eta hur.) erakutsi duenez, hiru euskalki horietarik kango ere aurki daiteke *-reanen* exenplurik arkaismu bakanak izan arren; hor dira, adibidez, *albore(a)ngo, gaineandu, ondore(a)n*, etab⁸.

Ezin esan, beraz, lehendabiziko so batean pentsa daitekeen moduan, B.ren ezaugarri aparta denik beste euskalkiek ere mementuren batean ezagutu bait dute, nahiz eta ez, agian, B. eta A.ren neurrian; halere, hauek ere gainerako euskalkiek lehenago betetako prozesu bera bete zuten *-rean* ablatiboak largatuaz eta *-rik/-tik* hedatuaz.

5.2. Prosekutiboaz.

BZ.ean “nondik” eta “non zehar” morfologikoki bereizten ziren, bada lehendabizikorako *-rean* erabiltzen zela besteetan *-ti(k)* ezartzen zelarik: BB 2

7. Ik. Liburu honen 1.ko eta 2. edizioen arteko ezberdinatasun interesgarriez LAKARRA 1983b; nik orduan ez ezagutu arren ukituak zituen lehenago Omaetxebarriak bere 1948ko lanean; erbia altzatu zuena, biok markatu bezala, Urkixo izan zen.

8. GS 24 *secularean* (Arzay pare gabea, / gurequin bearco dezu/ beti secularean) Azkuek “(B-I...)-tzat duena erants bide dakiote Mitxelenaren zerrendari.

Zeruti gaitean assi, id. 14 Ercules baño obe dogu / geure parteti Bulcano, id. 16 Obe dau egoitea / bere erri aldeti, Mik. 25 Axechu ozbat sarsayten da ventanatic, id. 99 Bada selan xayguiten da aen goxeti, id. 177 Nic obedecietan dot eseian ta ateti, etab.

Lafon (1948, 141-50, bibliografiarekin) eta Mitxelena (1977, 23) aritu izan dira -*ti* eta -*tik* atzizkien arteko erlazioaz. Mitxelenaren ustez zaila da -tikek -*ti* ematea, -*k* hori ez bait da erortzen (cf. -*rik* ablatiboan). Etorkian -*ti(k)* eta -*(r)ikek* ez lukete zerikusirik, lehendabizikoak bigarrenaren tokia hartu badu ere alde gehienetan. -*Ti* bide da oraingo ablatiboaren forma zaharra, eta horrela mantendu zaigu Zuberoa eta Bizkaiko zenbait lekutan, eta -*ka* atzizkia erantsi zaio gainera-koetan; hortik ateratzen dira Landuchioren *gatica* “por”, *lecutica lecura* “de villa en villa” edota *Dtxepareren yxilica*. Gero -*tika* honek -*a* galdu du lurralde gehiene-ten -*tik* emanaz.

-*TI* zuten BZ.eko testuek eta oraindik mantentzen duten azpieuskalkiek euskara zaharraren ezaugarri bat baino ez dute gordezen zubererarekin batera, gainera, ikusi dugunez; soilik neurri horretan har daiteke, beraz, ezaugarri hau B.ren ezaugarritzat.

Are gehiago; testu zaharrak ongi miatuz gero kide berri bat ateratzen bait zaio B.ri XVIII. mendeko Goiherriko euskaran egundaino dakidanez markatu ez bada ere: cf. GP *agati*, id. 2 *San Matheoren autic*, id. 4 *tabernati, jocuetati, festaetati eta gastu alperretati igues eguiten duela*, id. 5 *desgraciatura alde guztietati*, id. 10 *ateraco ote zaituen infernuti*, id. 13 *aec bietati ceñen anz gueiagoco*, id. 14 *arretaz ta gogoti*, ibidem *gaurdanetic*, id. 17 *gaurco egunetic*, id. 18 *biotzetic* eta Otxoak ere baditu beste bi edo hiru nik orain ez aurkitu arren^{8a}.

5.3. Genitiboa gonbarazioan.

Ator(r)en baxen ur(r)ago narrua “El cuero más cerca que la camisa” irakurten da RS 281.ean. Urkixok zegoen zegoenean utzi zuen nahiz eta Azkuek, hutsa iruditurik, *atorra* zuzendu. Mitxelenak Urkixoren lanaren (zatikazko) berrargital-penari (Mitxelena 1964c) jarri hitzaurrean erakutsi zuenez, gonbarazioan genitiboa agertzea esperoko genukeen nominatiboaren ordez ez da *erratuma* edo antzeko zerbaite. Entzun edo erabili ohi dugun euskara moetan (eta are BZ. eta berriko gainerako testuetan ere) horrelako egiturak eriden ez arren erruz ditugu erronkarieraz: Hualde Mayoren S.Mt.ren itzulpeneko *aren beino andiago izanic* (11, 11), *beraren beino gasstuago* (12, 45) edota Mendigatzak Azkueri zuzendu gutunetako *iñaute eguna izan da goressima egun baten bikain triste* (Mitxelena 1964b-ko adibideak). Bestalde, *are (gehiago)* gonbarazioko partikula ezagunean 3. pertsonari dagokion erakuslea gehi -*re* genitiboaren forma zaharra (cf. *gu-re*, *zu-re*, *lagu-na-re-kin*) izanik, arkaismo baten aurrean gaude, oraingo euskalkietako fosil bat edo bestetan (baina ez ahantz arrestian mututu erronkariera) baino isladatu ez arren garai bateko euskara osoaren baliapide baten aurrean (Mitxelena 1964c)⁹.

8a. [Gero erantsia]: OA 29 *bere sustanciatu edo naturalezati bertati* eta 29 *berac deban naturalezati edo sustanciatu bertati*; baina orri horretatik kanpo ez dut besterik kausitzentzera hortxe bertan ere badira *partetic*, *eternidadetic* eta *leenagotic*.

9. Hemen ez dagokigu guzti honek ablatibo zaharrarekin izan dezakeen erlazioa nahiz eta hori ere jorratu Mitxelenak.

5.4. X-ekin Y

Ene veguiacaz vioceen artean irakurtzen da amodiozko bertso zahar batean (TAV 122). Égitura “arraro” (Mitxelena, ibid.) bera (“Xekin Y = X eta Y”) agertzen da B. zaharreko eta klasikoko testu gehiagotan ere: Aek Gomiz Gon-salu[cjh bertan çan / Beragaz Presebalen caltean, RS 246 Oguiagaz hura, oragaz heroen elicatura, Mik Peru Xauna derechan vategas vere osseyñ Alonsoen artean, Bar. *Ene xana ta ene edana urarekin ogia*, Gandara (1768) *Izan dedilla gueure / arnasa azquena / Jesus onarequin / Ceuroren icena*, De la Quadra (1784) *Eguingo dozus-zala baqueac neugaz justicja divinoaren artian*, etab. (ik. Lakarra 1983b).

Égitura arkaiko honetan ere B. ez da bakarra, G.z era horretako hainbat exemplu bildu bait ditut: XVI. mendeko “Miserere” batean *Biz gloria Aitearequin semearençat*, BK *Gamboarroquin / Oñaztarroc conforme / Vizcaitan vere / acompañacen debe*, 1705eko gabon kanta batean *Bere aldean omen zeatuk / astoarekin idia*, Lasarteko 1716ko bertso iraingarriean *Agustinacho Ybillico nais surequin nere gaisean* (=“Andaré en perjuicio tuio y mio”), Larramendiren Hiztegian (1745) “Siroco: viento de entre Levante y mediodía = *sortaldearequin eguardiaren bitarteko aice bat*, etab., ehunda piku agerraldi dituen Iztuetaganaino iritsi arte Agirre Oikiako, Lariz, Iturriaga, Lardizabal eta zenbait kanta herrikoi barne direlarik.

5.5. Futurozko imperativoa.

Esku-liburuaren 1827ko bigarren edizioaren “sart-aurrean” honako oharra ezartzen zuen Añibarrok lehendabiziko ediziotik egin zituen zenbait hobekuntza eta aldaketa azaldu asmoz:

Azkenez esan bear deutsut ece liburu onetan icusico dozula batzuetan esaten dala *eguizu, eguidazu, eguiuzu, deguizula* eta beste batzuetan *eikezu, eikedazu, eikiozu, deikezula, &c. Lelengoac esaten dira gaucea ordu berean eguin bearra danean: bigarrenac barriz gueroago garrenean eguin bearco danean. Alanche esan daroe baita ondo baño obeto gure Bizcaitar baserritarrac (8.or.)*

Eta orobat Zabala bere garaikide eta adiskideak:

Con el futuro [de imperativo] se manda para más adelante, y en castellano suele regularmente expresarse por el futuro imperfecto de su indicativo. Fórmase en vascuence con los artículos activos *beguike, eguikezu...* y los mixtos *beitike o bedike, zaitekez ...*

(VRB 26, Astarloa eta Añibarroren aipamenekin)

Usadio hori, jakina, goragotik zetorren: hara RSetik atera gabe: 234 *Yre esayen emazte euquec yc adisquide, 36 çe eyquec maurtuti hoeaneâ ederr eztanic calean, 290 Eyquec senar maquerra ta aucaque andera, 18 Çagoquez exilic ta ençun eztayçu guextoric, etab.*

Honelako adizkirkirik ez da agertzen XVI. mendeko gainerako euskalkietako testuetan, baina Mitxelenak (1964b, 64-5)¹⁰ dioen legez hori ez da aski bizkaiera-

10. Rebuschik ez bide zuen ezagutzen lan hau bere aditz denboren sailkapena egiterakoan (op.cit. 194 or) Lafoni jarraikiaz “*begoke*, quoique inestesté donc, est reconstructible à partir des données du biscayan ancien, qui distinguait entre un impératif présent ou proche et un impératif futur, ce dernier se distinguant du premier par l’apparition du suffixe *-ke*” bait dio.

ren ezaugarririk bereizitza hartzen XVII. mendean Etxeberri Ziburuaren *Eliçara erabiltceco liburuan* agertzen bait dira: *Aditcen tutçunean / Ene ahoco hitçac, / Beguirauqueçue çeuен / gogortcetic bihotçac, Beguirau queçeu direnean, / Orduan othoi idequi / Tçaquetçu ene ezpañac*. Mitxelenaren exempluok aski izan arren hemen bizkaierak euskara zaharraren ezaugarririk gorde baizik ez duela egin frogatzeko, areago indartu nahi nuke azalpen hau, Mitxelenak aurkeztu ez zituen hiru aipamenez baliatuz. Hirurak dira, gainera, Etxeberrirenak baino hurbilagoak, XVII eta XVIII. mendeetako gipuzkerazkoak, hain zuzen: TBIn (TAV 127-8) *Y eçar eyt'or edatera / Chapoequin barazcaritara / Adarroqui gosaritara / Arrassean oaque olloquin afaritara irakur daiteke*¹¹; OA-ek (1713) ere badakar beste exemplu bat: *Crutce santua adoratcen dezunean esan eiquezu: adoratcen eta bedeincatcen zaitugu, etab.* (14.or.) Peñafloridaren BBur.n (1764) honela dio: *-Andrechoa orain presa degu, beste ordu baten atozque. -Jauna aguindu biezagu, cer orduan naico du? -Atozque bascal orduan* (35.or.) Itzulpena Peñafloridarena beraren da eta interesgarria izan dakiguke ohartea lehendabizikoan “puedes bolver” badio ere, bigarrenean ordena garbitzat (“bolved”) itzultzen duela.

Erabilera hau, beraz, ez zen B.ren berezitasun bat. Gehienik ere, B.ren berezitasuna denbora zahar honi beste euskalkiek baino gehiago (mende bat?) eustea litzateke.

5.6. -a-/e- oposaketa aditzean.

Azkuek (*Morfología II*, 604-5) orainaldia/lehenaldia bereizten zituela uste arren, BZean eta baita berrian ere aditz erroaren aurreko bokal alternantziak (*a/e*) adizki bipersonalak (*a*) eta hirupersonalak (*e*) bereizten zituen eta ditu, Altube (*Observaciones* 115-8), Irigoien (1958 *passim*) eta Mitxelenak (1954a) erakutsi bezala: BB 1 *esango dau* baina BB 2 *entzun deusagu*, BB 3 *conseju ei eusten emon*, BB 7 *sarri gorde deuste*; RS 340 *Gueyago dio daquiana baño* “mas dize de lo que sabe”, BB 11 *besteo ezer estaquigula* baina RS 431 *Yre auçoac eztequiā gacha ona da* “Daño que no te sabe tu vecino bueno es”; Mik. 73 *Artean yndasu espillua ta artasiac, daguida ondo ymini bissarrau* “da me entretanto el expejo y unas tixeras, que quiero adrezarme la barba”, Kap. *Erraçoena cerdan jaquin daguijanerean*, Mik. 229 *Componidu daguiala guelau* “componga este aposento” baina Kap. *Iaungoicoari arimea emon deguion artean*, Mik. 117 *Edandaysu ostera, se esteysu gachic* “Bebera VM otra que no le hara mal”; EK *Estuan daroaçu ceure colcoa*, Zumarraga 30 *exilic daroaez maestruoc yrureun bana* “en secreto lleban los maestres cada trecientos” baina BB 17 *Ventaja romanoay deroessu Ysassi*, RS 82 *Tacoc deroat dodana neure echerean cejara* “Para me lleua lo que tengo de casa al mercado”; RS 325 *Demanac bician verea besteri* “Quien diere en vida lo suyo a otro”, RS 425 *Peco gassoa deucot* “Mala sospecha le tengo” etab.

Beste euskalkietan bereizketa ez da horren garbi mantendu Mitxelenak (op. cit. 30) dioen legez; halere, bada *i* bat, inoiz alboko kontsonantearekin baturik, euskalki guztiak alokutiboetan: *doa baina zihoak (joak), darama baina zeramak (*dieramak)*, etab.

11. Iruzkinean bai esaten du geroaldiko aginteratzat duela *Sobre el pasado* ez aipatuaren.

Baina frogarik garrantzitsuenak beste euskalkietan aurkitu ahal daitezkeen goiko formen ahaideak dira: Oih. 153 *Esacussan beguic nigar esteguic*, “L’œil qui ne te void pas, ne te pleurera pas”, 538 *Adaussi deguidala bana aussic enesala* “Qu’il abbaye contre moy, Mais qu’il ne me morde pas”, OA 170 *Cerren baldin nere proximoac ez badiaquit niri*, AzpGut II 31 *Dotoreac esan dit escribi deguiçudala çuri*, BK 16 *Herreguten deguiola eman Conde laztanari Vitoria andia*, etab.

5.7. -zu “zuek”

Dakizunet, euskara zaharraren aditz sistimaren bigarren pertsonan oraingo oposizio hirukoitza (*hi* “singular familiarra”/*zu* “sing. errespetozko”/*zuek* “plurala”) lehen bikoitza genuen (*hi singularra/zu plurala*). Alboko hizkuntzen eraginez tratamenduekin batera aditza ere zaildu egin zen eta lehen plurala zena singular bilakatu haren ordezko beste berri bat sortuaz. Azken hau historikoki pleonasmoduna dugu, bigarren pluralgile bat ezarri bait zitzaion^{11bis}.

BZ.ean oraindik aintzinako sistema mantentzen da orohar; 1688ko BB etan oraindik ez da (cf. Lakarra 1984c) gaurko *zueki* dagokion formarik agertzen, nahiz eta pluraleko esanahia izan.

Uste al *dosu* [zuok, giputzok] Viscayan
ain gente biguna dala
nola zeuen alardeen
vildurrac dagoezala.
Con todo mosugorac dira
guiçonac emen bere
espadosu bere uste

Berrogei bat urte beranduago, Barrutiaren *Acto para la Nochebuena*¹² gaur singularreko formatzat joko genituzkeen 63 adizkitatik 42k (bi heren) pl.eko esanahia du oraindik. Alabaina, badira jadanik sin.ekoa duten beste 21 eta, batez ere, bada dagoenekoz -zuri -e bat erantsi diona, jagoitik emango den erabilearen aitzindari: 471 *Veguizcoric eztegiçuen bularchorean isegui*.

BZ.ak goragotik zetorren usadio jator bati eusten zion, beraz, nahiz eta Zabalak bestela ikusi gauzak:

Sea el 2.º defecto que debe evitarse el de usar el mismo modo de los de 2.ª persona de singular agente, paciente y recipiente en lugar de los de plural. Este defecto es bastante común en los pueblos del Señorío inmediatos a dicha provincia [Gipuzkoa], y por la costa se interna algo más: ni de él se han sabido precaver algunos de nuestros escritores, llevados de la costumbre de su patria. (VRB 57, Fr. Bartolome eta Astarloaren aipamenekin).

Omaetxebarriak eta, ondoren, Mitxelenak argitaratu duten 1648ko G.Z.eko testu batean ere berdintsu agertzen zaigu:

Ene seme alaba chipi laztanchoac, oficio citalori eutci eguiçu, biurtzaitez Jaungoico poderosoagana christau onac beçela, sinisten deçula Jesu Christo Criadore Redento[re]agan... (TAV 167, bibliografiakekin).

11. Iruzkinean bai esaten du geroaldiko aginteratzalet duela *Sobre el pasadon* ez aipatuaren.

11.bis. Tratamenduen historia eta azterketarako ikus orain Jabier Alberdiaren lanak ASJU XX-1 eta XX-2 (1986)ekoetan.

12. Ezaguna denez, testu honek ez darama fetxarik; nire utez hizkuntzazko argudioetan oinarriturik (cf. LAKARRA 1984a) suposa daiteke halere 1730 baino lehenagokoa dela ziur aski; aztertu gogo dut arazo hau beste lan batean.

eta A.zko (cf. Mitxelena 1984b) 1610eko beste batean orobat: *Fantasiaric estagüicula,/Seraphin escogituac* (TAV 120).

Hurrengo mendeetan P. Bartolomek, J.J.Mogelek eta bestek (dakidanez iker-
tzeke dago zehazki usadioaren hedadura eta iraupena B.ko testuetan) -zuren for-
mak pl.eko esanahiarekin erabili eta Eibar eta beste nonbait horrela mantendu
arren, esan daiteke *zueken* formak nagusitu direla ia osotoro.

Honetan ere B. berria beste euskalkiek batera joan da BZ.ean mantendu
arkaismoa ezabatuaz.

5.8. Futuroaz.

a. Mitxelena aspaldi ohartu zen -a morfema bat ba zela BZ.ean —nahiz eta oso agerraldi gutxirekin eta ia galtzear— futuroa markatzeko: Cf. RS 31 *Ax adinhon ta axa hon* “se acomodado y serás bueno”, id. 174 *Yndac micabat orban baga, diada nesquea gajpaga* “Dame una picaza sin mancha, dar te he la moça sin mal”, id. 233 *Yquedac ta diqueada* “Darasme y darte he” eta id. 422 *Ausso Chordon arz orri ta nic yñes dayda* “Ten Hordoño a esse Osso y yo haré huyda”, non *axa, diada, diqueada* eta *dayda-k* balio hori duten (Mitxelena 1954a, 30-33)¹³.

Ez da, dakidanez, horrelako adizkirik agertzen gainerako euskalkitan; ala-
baina Mitxelenak frogatu zuen -a hori ez zela morfema aske eta berezi bat baina
-(a)n subjuntibokoa: cf. Gar. 26 *Ausho Perucho Vrdeorri, eta neuc iesdaguidan*,
eta gogora beste aldetik RS eta Mikoletaren testuko -n gabeko adizkiak, bai indika-
tibo lehenaldian eta baita imperativo eta subjuntiboan ere. Gainera subjuntiboaren
eta geroaldiaren hurbiltasun hau ezaguna da beste hizkuntzetan, grekera zaharrean,
esaterako (Mitxelena, ibid.), eta goiko forma horiek ez genituzke -n orokorra
eroritako etorkizko subjuntibo geroaldi bilakatuak baizik.

Halaber, Oih.139 *Eneco execa hi harzari, nic demadan ihessari* “Eneco saisis-
toy de l’ours, afin que i’aye moyen de fuir” ikusirik galde daiteke Oihenartek
ez ote zuen bildu usadio zahar bat mantentzen zuen errefrau bat, garaiko Zuberoa
eta Baxenafarreko hizkeran galduztako usadioa hain zuzen, eta aldi hartan jadanik
demadanek beretzat zuen esanahiarekin (subjuntiboa ez geroaldia) itzuli (Mitxe-
lenaren azalpena, ibid.).

b. Ezaguna da BZ.ean (Lafon 1943, II 42, 44; Irigoien 1985, 12) *eginen*
orainaldi atzizkigabea erabili ohi zela aditz iragankorren geroaldia egiteko: RS
18 *Çagoquez exilic ta ençun eztayçu guextoric* “Callando estareys y mal no oyreis”,
id. 40 *Nayago dot to bat ce amauí emon deyat* “Mas quiero, toma uno, que doze te
dare”, id. 136 *Az ezac er[r]joya diratâ beguia ta mutil guextoac quendu deyque
arguia* “Cria el cueruo, sacar te ha el ojo, y quitar te ha la luz el mal moço, id.
178 *Zarrari ajea eguioc aldatu ta dayc galdu* “Al viejo mudale el ayre y perder
le has”, BB 23 *Arabac ecarrico dau/Guipuzcoa onestera,/lagun esteyo guerrara,*
Kap. 140 *Echoçu eta iaquin daiçu* “esperad y sabreis”, 154 *Au alan içanic erraz
esan daiçu* (ordinak gabe gaztelerazkotz testuan), etab. (ik. Lakarra 1984c).

13. Lafonek eta Irigoienek (1985, 47) *axa-z* “orainaldi bilusia” dela esan arren, Mitxelenak erakutsi zuen lan horretan *ax-i* gaineratu -a horrek
dakarrela esanahi aidaketa. Besterik da *izan-i *haiza* dagokiola pentsatzea; hemen sinkronia hutsean ari gara —nahiz eta XVI. mendekoaz ari—
eta sinkronikoki *axa* ez dago “bilusirik”.

Ba ote nonbait hauen kiderik? Baiezkotan nago eta Oihenarten errefrauetan bertan gainera, Mitxelenak ez aipatu arren; gonbara bitez goiko forma horiek eta Oih. 126 *Egurra daguienac leku gaizean, Ekarri beharco du soinean* “Celui qui fait son bois de chauffage en un mauvais endroit, est obligé de le charrier sur ses espaliers” eta —itzulpen zehatzagoarekin— Oih. 153 *Esacussan beguic nigar esteguic* “L’œil qui ne te void pas, ne te pleurera pas”.

Ezin uka, beraz, guzti honen aitzinean euskara zaharrean subjuntiboak eta futuroak zuten beren arteko lotura, ez eta lotura hau orokorra zela B.ko zenbait azpieuskalkitan estaliago geratu bazen ere -naren erorketaz.

c. Orokorra bide zen orobat —*kidi*— atzizkiaren bitartez euskara zaharrean sortzen zen geroaldiko eta ahalerako saila: cf. *Detxeparer eny erhoa, çu iaquynxu, veha enaquidigu eta Leizarragaren ezlaquidigu deus probetchu* (Lafon 1943, II 34-5).

Lafonek ez zuen horrelako formarik eriden berak aztertu XVI. mendeko bizkaierazko testuetan; alabaina, bada bat bederen XVII.aren bukaerako batean, euskalki guztiekin legez, B.k ere atzendu baino lehentxeagokoak: *BB 37 Ezin daizu ucatu/ nolan ascoc aduertidu/ zaytuzan eguin bear yacala/ Viscayari erregu;/ santua bere eztaquidizu/ orregaz baliadu,/ bayas su obstinadu* (ik. Lakarra 1984c).

5.9. Aoristoaz.

Egungo euskaran indikatiboaz atetiko moduetako laguntzaile gisa erabiltzen dira *egin*, **ezan* eta **edin*; euskara zaharrean, ordea, bestelako balorerik ere bazuten lehenaldian Lafonek ikertu zuenaren arabera:

Le type *sar zedin* sert à exprimer qu’un fait a eu lieu, qu’un procès s’est accompli. Cette forme signifie littéralement “il devint entré”; *gosse* étant l’adjectif qui signifie “affamé”, *gosse cedin* signifie littéralement “il devint affamé”, dont “il eut faim”. Le type correspondant à patient et agent est *ikus zezan*, litt. “il fut fait par lui vu”, qui correspond à frç. “il le vit” (LAFON 1943, II 46)

Hara, adibidez, Etxeparer *Iaun erreguec meçu nenzan ioan nenguion berta-ric*, hots, “erregek gaztigatu zidan beregana joateko” eta *ioan nendin* “joan nintzen”; Leizarragak “d’innombrables exemples” dituela markatzen du Lafonek eta hala daki beraskoitzeurren testurik, ikusi duen orok.

Badira usadio honen agerraldiak BZ.eko testurik garrantzitsuenetan, ez soilik Lafonek (ibid.) ikertu XVI. mendekoetan baina baita XVII.eko zenbaitetan ere oraindik: RS 52 *Vnayoc arri citean gastaeoc aguir citean* “Los Pastores rifieron, los quesos parescieron”, id. 167 *Erioac ereçan Butroeco alabea Plencian* “El tartago mato a la hija de Butron en Plencia”, id. 263 *Lotsaga nindin oguiz ase nindin* “Sin vergüenza me hize y arte me de pan”, id. 294 *Iaygui cidi naguia erracizan vria* “Leuantose el perezoso y quemó la villa”, VJ 2 *Salvaetaco etorri cidina*, id. 6 *Celan erredimidu eta libredu guenguicé*, id. 6 *Virgine Marie Santissimea gueracidin Virgine Iesu Christo gure Iaune eguin azquero?*, Mik. 10 *Xauna nic vostac containinçan* “Señor las cinco yo las conte”, Mik. 141 *Non eguin sidi?* “A donde fue hecho?”, id. 263 *Memoria ene gasaben trapucusleac eroan eguisanena* “Memoria de la ropa de mi amo que llevo la lauandera”, EK 55 *Martiçen*

susperroa eldu equiçun, EK 115 sartu citeanean ondar ybayan, EK 120-1 sar cidin orduan, animosoa,/ ecusi eguianean Domingo Heguico, etab.; Kap. [guztiak Kredoan] 6 iaio cidin “nació”, 6 jachi cidin “descendió”, 6 erresuzitadu cidin “resucitó”.

Forma perifrástikooz gainera baziren trinkoak ere: Kap. [aitorrean] 20 *Cerren bay neguian pecatu gravemente* “que peque gravemente”, Mik. 142 *Au ta sillac etorsan Salamancaric* “El y las sillas vinieron de Sala(man)ca”, Andramendi (TAV 160 bibliografiarekin) *baesan ece bere arma çarrac ausi ta letorrela* “les dixo que sus armas antiguas abi(a) ronpido”, RS 75 *Oparinac nenguiâ bearquin ta alperqueriac auzquin* “La necesidad me hizo obrero, y la vagamundez pleytista”, id. 332 *Adiunça onean nentorre vaya ezer ez nencarre* “En buena sazon vine mas no tru xe nada”, id. 438 *Lar janac eta edanac guichitara nencarre* “Demasiado comer y beuer me ha traydo a poco”, Gar. *Fray Vicente esala Fedea cina licala* “que fray Vicente habia dicho ser juramento la fe”, etab.

“Ces formes à valeur d'aorist s'emploient couramment au XVI^e siècle” badio ere Lafonek (loc. cit.), ene ustez eta ikerketa zehatzagoren faltan, adizkiok aski zaharkituak bide ziren dagoeneko lehendabiziko testuetan. Bizkaiera zaharrean aurkitu ditudan azken agerraldiak aipatutako Kapanagarenak dira, 1656koak. Gerotzik ez da agertzen, dakidanez, beste inongo testutan¹⁴, nahiz eta Azkuek dioenez mende honen hasieran bizirik egon Barrikan:

En la variedad bizkaina antes citada de Barrika (Plencia) he oido estos dos ejemplos: *alaba bi eukaza, bat ezkondu egin zidi* “tenía dos hijas, una se casó”, *gazterik il ze* “murió siendo joven”. Aquí no dijeron zidi. *Joan zidi ta etorri zidi emakumea* “la mujer se fué y se vino”. (1935, 85)¹⁵.

Ia mende bat lehenago Zabala ere konturatua zen fenomeno honetaz, eta —nahiz eta testuen lekukotasunaren aukako hedadura eman garaiko bizkaieran— baita zuhurki erakutsi ere usadio orokorra dugula:

En Plencia, Guecho y pueblos comarcanos usan como de artículos regulares y ordinarios para el pretérito remoto de indicativo de *leguian, cenguan, nenguan*, etc. de la columna número 14, que son los regulares del pretérito imperfecto de subjuntivo, ciñiendo el uso del *evan, cenduan, nevan o nendun /de la 2.^a a la formación del pretérito imperfecto. El mismo uso del leguian, nenguan ...*] hacen en Llodio, Orozco, Barambio, etc., aunque sin excluir el *evan, nevan ...* y podemos decir que en todo Vizcaya se practica poco o mucho esto mismo. Y he aquí la clase de conjugación que usó Mr. Lizarraga en su traducción del Nuevo Testamento, y de lá que han hecho misterio el P. Larramendi prolog. al Dicc. pag. xxxiv y Mr. Lecluse Man. §. 3 y 10. (VRB, 56).

Iparraldean ere azken aleak Kapanaga baino lehentxoagoko testuren batean izanik, ezin harritu XVIII. mendera baino lehen hain urri diren gipuzkerazko (eta areago araberazko) testuetan exenpluak ugari ez aurkitzean; halere honako hauek irakurtzen dira Isastiren errefraueta: 30 *Eliza ceguienac aldarea, aldarea ceguienac abadea* “El que hizo la iglesia, el altar; y el que hizo el altar, el abad”, 44 *Guezurra nesan Guetarian, ni ychean ta ura atarian* “Mentira dixe en Guetaria, yo en casa

14. Hots, testu fetxatutan, zeren eta bai bait da agerraldi bat Foruko “Marijesi” batzutan (ARANA 1984an aipatuak baina ez argitaratuak): 34 *Eseutu ebenian/ sala jaungoicoa/ ofrecido eutzen/ lelengo incensoa,// 35 adoradu eta/ contentu andiegas/ biurtu sitesian/ ceruco arguiegas*. Alabaina, ez dut testu hau hemen kontutan hartuko aurkezen dituen fetxa eta etorkiazko istiluak ez bait dira bizkaierazko (eta euskal) literatura zaharrerako duen interes eta garrantzia baino txikiago. Ez ditut ere kontutan izango Añibarro (edo Mendiburu) batengan agertu ekion, ekien [= “zitzaión”, “zitzainen”] bezalako datibozko forma fosildu apurrik.

15. Lehenago berdintsu Bonapartek baina Zabalarengan oinarriturik aitortu legez.

y ella a la puerta”, 50 *Illac aguin ceguan, viciac bere naya* “El muerto mandó, y el vivo hizo lo que quiso”.

Zalantzarik gabe Isastiren errefrauotan isladatzen da jadanik bere liburua idatzi zuen garaiko (c. 1620) G.z mantentzen ez zen ezaugarriren bat, aoristoaren hau esate baterako, errefrauakin usu (gogora RSeko arkaismoak)¹⁶ gertatu bezala; hemen axola zaiguna, ordea, besterik da: GZ.ak ere aspaldiko usadioaren arrastoak gordetzen dituela eta sendotzera datorrela goian azaldu ustea, hots, euskalki guztiak zuzenbide berarekin eta kronologia beretsuarekin pairatu duten aldaketa bat dela aoristoaren galerarena.

5.10. *Eroan* eta *joan* laguntzaile gisa.

Bi aditz hauek, beste lurralteetan¹⁷ duten erabilera eta esanahiaz gainera, ohizkotasuna adierazteko laguntzailetzat erabiltzen ziren B. zahar eta klasikoan, nahiz eta gaur egun desagerturik edo desagertzear izan usadio hori: Olaetxea (1763) 113 *Castigau daroa aen magestadeac*, 82 *gueienean jazo doeana da*, RS 79 *Triscan badabil asoa aus asco erigui daroa* “mucho poluo leuantar suele”, id. 210 *Andra urenac esea lauçatuguino daroa betatu* “suele hinchir hasta el tejado”, id. 61 *Guichia guichia asco eguin doa* “poco a poco se haze mucho”, id. 94 *Dindica murcoa betatu doa* “gota a gota se hiche el cántaro”, Mik. 56 *Ori da bat yru gausetaric esan eroena Ganasa* “Esta es una de las tres cosas que Ganaza dezia”, etab. Zabalak (VRB 23) iragan mendearen erdi aldera oraindik “la formación de que ahora hablamos es usadísima en Vizcaya con toda clase de verbos, y se hace con el participio de presente o pretérito, aunque más comúnmente con este en los verbos propios, y con los artículos respectivos de los verbos auxiliares *eroan* en activa, y *yoan* en la mista” azaltzen zuen¹⁸.

Jadanik Azkue ohartu zen (1923-5, II 634) fenomeno honen zabaltasunaz:

El verbo *yoan* conjugado tiene en este dialecto B y por lo menos tuvo en BN la significación de “soler” cuando se refiere a un verbo intransitivo... Oihenart se valió de él en sus proverbios... Dechepare dice *enganatu doa*, se suele engañar.

Patxi Altunaren Detxepareri buruzko lanei (hiztegi eta edizioari, batez ere) eskerrak I 157ari dagokion pasarte horri beste hiru gehiago ere erants diezaizkiokegu: X 43 *Pitxer ebilia hautsi dihoazu*, VI 6 *Harçaz orhit nadinian vioza doat ebaqui* eta IV 27 *Beriarequi eghustiaz hayn hayn noha penatu*. Leizarragak ere ezagutzen zuen erabilera hau: *Gauça hauc gucioc usançaerez galdu doaça* (Col., 2, 22) “toutes lesquelles choses perissent par l’usage”, *creatürä sanctificatu dihoac Iaincoaren hitzaz eta orationez* (1 Tim., 4, 5) “elle est sanctifiée par la parole de Dieu et par oraison”, *mundu hunen figura iragan doa* “la figure de ce monde passé”, etab. (Lafon 1943, II 148).

16. LAKARRA 1986a-n aurki daiteke Garibairen bildumen eta izengabearen arteko gonbaraketa llabur bat beren arkaismo kopuru ezberdinatasun hain harrigarraria markatuz.

17. Ohar bedi (Azkuek “Bc” baino ez dakar) *eroan* bai G.Z.ean eta baita A.n eta iparraldeko euskalkietan ere agertzen dela; cf. OA 76 *Ematen ere die indarrac matrimonioco carga andiac eroateco*, OA 139 *cerren izanican* (*Concilio Tridentinorequin suponiturus deroagun becela*) Oih, 530 *Seroretara sautuan gogosa,/ esteteitara aiseac narao Gamiz 201 Gustoz ibilco gara.// Almorzu ona erango degu/ tortillaonbat urdiaiz*

18. Alabaina, ez deritzon hain erabilak bide zirenik VRB 24an aurkeztu (*bajleroake/ bajliyoake-ren* bitartez osatu egitarak; Zabalak ez du idatzizko lekukotasunik ematen ohi bezala, eta ez dakit ahalko zukeen ere).

Berdintsu Azkuek aipatu Oihenartek ere; hara zenbait errefrau berak eman itzulpenarekin: 293 *Lan aizineti pagatua ihesi doa* “Le trauail payé par auance, s’en fuit”, 332 *Nesca harzen ari dena saldu doa, galdazen ari dena da galdua* “Fille qui prend elle se vend, fille qui demande est perdue”, 466 *Urhe-gacoas ate gusiac irequi doas* “Une clef d’or ouvre quelque porte que ce soit”, 511 *Betheguis sorroa lehertu doa* “Par trop remplir, le sac vient à crever”, 565 *Burla gaxtoa bere sor-lekura izuli doa* “Une méchante raillerie, retourne vers le lieu d’ou elle est sortie”.

Lafonek bai aditz iragangaitzetan eta baita iragankorretan ere ematen dela dio egitura hau; ohar bedi, gainera, orokortzat duela euskara zaharrean, ez honako edo horrako dialektutako:

Il est notable que, en basque, le présent simple de *ioan* et de son causatif *eroan* s’emploie avec un participe passé pour exprimer un procès habituel (*ibidem*).

Ez du *eroanen* exenplurik ematen Iparralderako baina bai horren aldaera den *eramanenak*:

Lorsque le procès comporte patient et agent, Dechepare emploie le verbe *eraman*, qui repose sur **eraoan* et qui est la forme prise dans une partie du domaine basque par le causatif de *ioan*: *Mundu honec anhiz gendee enganatu darama* (D 2^e 7) “ce monde trompe beaucoup de gens”. Et deux vers plus loin: *Guti us̄te duyenian ehor uci darama* “quand on ne s’y attend guère, on est abandonné par lui”¹⁹.

5.11. Ez aditz nagusia eta laguntzailearen artean.

Ez partikula aditz nagusiaren eta laguntzailearen artean agertzen da usu eta ez, laguntzailearekin batera, nagusiaren aurrean, gaur bezala: Mik. 7 *Aranguiño estau onto arguitu baina BB 9 Yzango esta neñurre ustean / ain golpe segurua*, 23 *Lagun esteyo guerrara*, ZubLez. 143 *Jaungoicoa apartadu ez da gorpucerean ez arimeaganic*, Mik. 78 *Adarrac eta ulla urdinac estoas etorri egunacayti*, RS 336 *Galdu ce egvic aldia ta ydoro dayc naya*, etab.

Nolanahi ere, ordena arrunta askorekin gehiagotan ematen da eta, bestalde, Koldo Mitxelenak (1977-8, 223-4) aipatu izan ditu G.zko exenpluak Kardaberatz eta Lardizabalen testuez baliatuz: *Anchume bat egundaño eman ez didazu, Gauz onik egingo ez dute, zure semearen icenic ere mereci ez det*, etab.

Egitura honen erabilera oraindik zehaztasun haboro behar dituen arren argi dago B.tik kanpo ere eman zela, areago Mitxelenak bildu ez zituen beste zenbait exenplu kontutan baditugu: *nic eztaquit jauna, ni(c) ycusci ezaytut* 1611ko nafarrerazko testu batean (“Contribución” 108) esate baterako.

5.12. *bai(s)t.*

Atzizki bezala *-bait* oraindik ere orokorra da nahiz eta aurrizki juntagailu gisa egun ekialdekoa egin. Alabaina, hau ez da beti honela izan RSetan 20 *Celan*

19. *Ibidem*, “Liçarrague n’empiole aucun verbe de la 2^e classe [iragankorrak] accompagné d’un participe, pour exprimer un procès habituel” erantsiaz. Oihenarten errefrauetan ere ez dut horren exenplurik idoro.

baysta ojala alacoa mendela “Qual es el paño, tal es el orillo”, 35 *Celangoa baysta amea alangoa oyda alabea* “Qual suele ser la madre, tal suele ser la hija” eta 478 *Celan baynabil janciric alan oza daucat nic* “Assi como ando vestido de aquella suerte tengo el frío”; Barrutiak ere badu oraindik XVIII. mendearen lehen zatian 299 *Lastasacua baininçan ala bat*.

BZ.ak, beraz, ez du euskara osoaren forma zahar bat mantendu baino egin; berriak ezabatu duenean ere ez da horretan bakarra izan galera bera izan bait du G.k ere²⁰.

5.13. -(K)eta.

Aditzaren izenkiak sortzeko erabiltzen diren morfemen artean bada bat, -(k)eta, erabilera ongi mugaturik ez badago ere -du (-tu) partizipioa duten aditzekin erabili ohi dena, eta komunzki B.rekin lotu ohi duguna: cf. *kantetan dabe / kantatzan dute*, etab.

Alabaina, B.ren berezitasuna ala lehen hedetuago zegoen ezaugarria ote? Erronkariko testuak hartzen baditugu —ni Hualde Mayoren San Mateoren itzulpenaz (RIEV 25-26) baliatuko naiz— honelako exenpluak irakurtzen ditugu: *Jesus, Maria eta Jose bueltatan dra Egiptotik, Reinatan ziolarik Herodesek, Eta xuntatan ziolarik sazerdotien principale guziuak, Eta xin zen bizi izaitra ziudade batian deistan baizen Nazaret, Kunplitan zelarik gisa kontan profeten errana, Juan pre-kursorak predikatan du penitencia eta batixatan*, etab. Ez dut ikertu zehazki Erronkarin -tan edo -atanek ze distribuzio duten eta ezin jakin, beraz, beti bat datorren B.rekin. Dena den, uste dut baiezta daitekela atzizkia B.zkoa bera dela eta, horrenbestez, deklinabidetik kanpo, aditzean ere inoiz orokorrago izan zela, bai bait dira exenplu argiak gainerako euskalkietan ere: *Land osquetan deuena* “hurtador”, *aulquetâ joan* “magrecerse”, *aguinquetâ deuena* “mandón”, *gauça mereçietâ deuena* “merecedora cosa”, *motejaytâ deuena* “motejador”, etab., BK 15 *Jaungoicoa debeela herreguten* (kopia batean *herreguetan*), TBI *Argaitic oi davil puñalchoa paseaetan*, etab²¹.

5.14. *ezan/egin.

Egin laguntzailea B.tik kanpo ere ezaguna zen eta oraindik ere horrela da (ik. aurrerago) Badirudi, beraz, euskara zaharrean, hizkuntzaren historiaurrean bada ere, bi laguntzaile —*egin* eta **ezan*— zirela funtzio berarekin edota oso antzekoekin bederen, eta dialekto bereizketa batez, euskalki batzuek bata hautatu zutela eta bestea gainerakoek (cf. Mitxelena 1960, 237-8).

Uste hau sendotzera dator BZ.eko egoera ere. Euskalki honen lehendabiziko testuetarik *egin* da nagusi aditz iragankorreko indikatiboaz kanporako denboretan; nagusi baina ez bakarra, ordea, gaur egun bezala, **ezanen* formak aurki bait daitezke oraindik lehenagoko usadio orokor horren lekuko:

20. Atal honetarako ik. MITXELENA 1981, 303; RSeko 2 adibide ere bereak dira eta Barrutiaren bazekarren dagoenekoaz Azkuek *Morfologian*.

21. Azken honetaz eta Landucciren erantzukoa zen Mitxelena; ik. TAV 129 eta 2.ari egin sarrera.

Aek 3 [Ar]amayo suac erre açala, id. 5 cerren ceuren jauna ezcençan empara, id. 25 erre deceagun Mondragoe, id 4 [T]a sumi aſçalla Gurayarra, RS 95 Daguanac aguindua jan deçala, id. 98 Egun ona sar essac essean, id. 101 Ez ezauenac erosuala, id 136 Az ezac eroya ..., id. 165 Azarcúzeac bildurra vzabesz..., id. 166 Hurdinetan assiazquero prestuesta seyzaorao, ynoc çebez aurqui guero çe aldia eldudoa, id. 167 Erioc erekçan Butroeco alabea Plencian, id. 194 Vler ezac lenago ta yz eguiç gueroengo, id. 294 Iayguicidi naguia erracizan vria, id. 355 Aoti bero ezac labea ta çarra, id. 363 Samarien osticoa da gestoa, noc verac arbez vere ydecoa, id. 382 Ezcõezac semea nayoaneâ..., id. 401 (eta 516) Lagunen gacha aguirce ezana, id 411 Areçac Mayazean aünz balçlaren eznerean..., id. 429 Ydiac eta veyac yl ezazu..., id. 439 Arrezac leyen ganeco lañoa..., id. 513 Eznea, guria, taodola errorean atera neban ta ezer yrabaci ez neçan ta ene beychua galnezan, id. 532 Saguac jango dauena catuac jandecala, id. 535 Oçac yl eguiç Mayaça, ta ni asenenza, Kap. 153 arnasa eta animo arreçaç Mik. 10 Xauna nic vostac containinçean baya goxa ta herloxua estabilas batera, id. 232 garvi essasus ene erropa dustiac, id (poesia) 51 Nic nala beti sufri essasu seuc bere seure penea Amileta 2 gueure esaieatic libra gaiçaç, Bar. 26 arren adiezazu gure negarra, id. 90 mutilac libre nescachac eurac pagadezeela danzea, id. 170 asco da loric esnaazaitez, viozoc garviezazuz, id. 249 Adiezac Verzebu onen viziza modu, id. 286 adiezazu mundua, id 366 Aseguin arrezazu Belengo pastoreac, id. 469 adi, adi, adi, adiezazu berba bi, id. 480 adi, adi, adiezazu berba bi, 489 biurrezazuz orain gueugana, id. 512 Veroni salezozu vioz guztia.

Ohar bedi exemplu guztiok *nork-zer* ereduokoak direla ez bait dut (ezta Etxaidek, 1984, ere) *nork-nori-zer* sailekorik eriden (cf. atal honetan bertan GZ.az esana).

Hara zer dioskun Azkuek bere *El verbo guipuzkoanón* ahalera eta agintearako laguntzaile iragankorraz:

Una vez expuesto y analizado el Paradigma correspondiente a las flexiones objetivas de imperativo, del auxiliar transitivo, tales como *ikus nazak* veme tú y *yan dezagun* comámoslo, sería de muy poco interés presentar al lector, con la cuadriculación habitual, todos los paradigmas correspondientes a los paradigmás bizkaínos que figuran a continuación en el Tratado de Morfolología Vasca. De algunos bastará dar alguna ligera indicación. El paradigma que sigue al antes citado es el número XXXIX. En él se exponen las flexiones receptivas de imperativo del auxiliar transitivo. Muchas de sus flexiones no las usa ya el pueblo, y en muchísimas otras se vale, casi en todas partes, del núcleo del auxiliar bizkaíno *egin*, habiendo desaparecido el de su propio auxiliar *ezan*. (AZKUE 1923-5,144).

Soilik Oiartzun eta Amezketa bildu ahal izan zituela *eman zadak* eta antzerakoak aitortu ondoren, hemen bere ondorioak:

en las flexiones meramente objetivas vive el auxiliar *ezan* y en las flexiones de recipiente ha sido generalísimamente sustituido por el auxiliar *egin* del dialecto bizkaíno (ibidem).

Iritzi bera agertzen du Jon Etxaidek arestian argitaratu duen “(e)za aditzerroa datiboko aditz-jokoetan autoreetan zehar” lanean:

Nere lanerako zenbait egile edo autore giputz, nafar eta ifarraldeko hautatu ditut. Bizkaian ez da aditz-erro hau erabiltzen, inoiz erabiltzen baldin bazen ere [oharrean exempluak emanaz] eta Gipuzkoan ere ia galdurik dago datibotan, bere ordez Bizkaiko “egi” aditz-erroa sartu delarik, dirudienez “egin” aditzetik hartuta. Hau dela-eta, Gipuzkoako autoreetan bi aditz-erroak bildu ditugu, —*eza*— eta —*egi*— alegia, elkarren arteko borroka nabari dadin. Irakurleak konproba dezakeenez, borroka honetan, nahiz eta beti atzeraka, imperatiboan eutsi zaio sendoenik —*eza*— aditz-erroari (ETXAIDE 1984, 601).

Egungo erabilera Azkueren datuak zuzentzen ditu **ezanetiko* formei hedadura handiagoa emanaz:

Astigarraga eta Oiartzun'ez gaiñera besteok gaiñeratuko nituzke: Amezketa (aipatua), Abalzizketa, Orendain, Altzo, Lizartza, Gaztelu, Orexa, Leaburu, Ibarra, Belauntza, Berrobi, El-

duaien, Berastegi, Urnieta, Errenteria, Lezo, Pasaia, Irún eta Ondarribia. Uste dut Naparro-mugaldeko herriotan gehiago edo gutxiago (bañian gero eta gutxiago) oraindik zenbait kasutan kontserbatzen dutela “—za—” aditzerroa. Hontaz gaiñera esango nuke aginkorreko forma batzuek (za(i)dazu/za(i)dak, zaiozu/zaiok, zaizkidazu/zaizkidak, zaizkiozu/zaizkiok...) naizta galurrean, Oria'ko ibarluzera guzian erabiltzen direla oraindik Alegi'tik Orio'rainera eta erabiltzen eztuenari ere oso ezagun edo etxeko egiten zaizkio. Baiñan, Azkue'k dion bezala, aztarrenak besterik eztira gelditzen. Beraz, bildurrik gabe esan diteke gaur Gipuzko'a'n erabilten diren datiboko aditzerroak ‘egin’etik atereak direla (op. cit. 622, 1.ko oharra).

Baina zergatik dateke “bizkaino” edo “Bizkaiko” (hitzen adiera hertsian) *egin* G.zko lehendabiziko testuetarik **ezan* baino ugariago eta erabilera zabalago batean edireiten badugu? Nola “kutsatu” diete bizkaitarrek gipuzkoarrei aditz laguntzaile oso bat? Ez ote da zuzenago *egin* laguntzailea ere **ezan* adinbat G.zko dela ezagutzea?

Ez da hori, ordea, azalbiderik nagusiena. Ikus esate baterako F. Ondarraren iruzkina arestian argitara duen Zegamako 1741eko dotrinaren aditzaz:

Aditz laguntzailea. Agintaldian eta subjuntibozko orainaldian, *nor nori nork* adizkietan, *egin* erabiltzen da laguntzaile bezala: “barca eguiçuzu” (1) eta “barca eguiçuzu” (4 lat.); “barca deguigula” (4 lat.). Bizkierazko forma propioak dira horiek (ONDARRA 1984, 10).

Alabaina, azalpen hau G.ren historiaz dakigun apurraen kontra doa eta G.Z.eko testuen lekukotasuraren mezprezu nabarmena dugu. Ez dago euskalki hortako testuak arreta apur batekin irakurtzea baino —eta jakina denez egiteko horrek ez du asti gehiegik kentzen— subjuntibo, imperativo eta ahaleran ematen zen asimetriaz jabetzeko; hots, adizkiak bi osagai (*nork-zer*) ala hiru (*nork-nori-zer*) izan, kontuak aski ezberdin zihoazten; halaber adizkia singularreko edo anitezko zen erro berezia hartu ohi zuen. Zehatzago, bi osagaiko adizkietarako bai *egin* zein bai **ezanen* formak hauta zitezkeen *nor* singularra bazeen; *nor* anitza bazeen **ezanenak* erabili ohi ziren eta *eginenak* hiru osagaitakoetan:

1. *Eguinbeza essan degun moduan* (Otxoa Arin 134), *serbitu ceguian* (OA 11), *essan bece* (OA 133), *aitaric izan ceguian* (OA 26), *pagatu ceiquealaric* (OA 164), *galdu cezaqueten* (OA 165), *ezagutu daguian* (OA 132), *reverenciatu dezagun* (Irazuza 27), *bedeincatu deceen* (Ir 27), *reyna dezala* (Ir 23), *ecarri beça* (AzpGut), etab.
2. *Contadu bitça* (OA 135), *eutzi ditçaqueanac* (OA 139), *criatu ditceen* (Ir 41), *aditu ditzan* (OA 58), *itzuli ditzaque* (OA 24), *itzuli itzazu* (Ir 5), *socorridu cizaquela* (OA 155), *laja ditzagun* (Ir 2); salbuespen bakarrak *itzuli eguitzatzu* (OA 8) eta *esan eguitztu* (OA 63) bide dira.
3. *Itaundu begiyo* (OA 168), *escribi deguiçudala* (AzpGut), *ezdeguiçula utci* (Ir 24), *erregutu deguiçula* (Ir 49), *eman deigun* (OA 58), *deguiola eman* (BK), *quendu eguidaçu* (Miserere); *jaso ez diozagula* (OA 4), *esan niazcaquec* (TBI), *eman diazagula* (Ir 23) eta beste 3-4 salbuespen direlarik.

5.15. *dio/ deutso.*

Hemen ere gero bakar bilakatuko den *deutso* nagusi da testurik zaharrenetan hasita eta oso dira bakan *di-* formen agerraldiak. Nik ez dut bi exenplu baino aurkitu. Lehena Milia Lasturkoren eresian hain zuzen (TAV 75):

Iausi da cerurean arria,
Aurquitu dau Lastur-en torre barria,
Edegui dio almeneari erdia.
Lastur-era bear doçu Milia.

bigarrena Martin Iturbekoaren laukoetan

Borboneq uste çeban
Espainian aguindu,
Austriaq egun zugaz
eman dio osticu.

(“Contribución” 92)

eta bada oraindik RS 25 *Arloteari emayoc ar(r)auça, escatuco dyc zoça ere.*

Baina Mitxelenak aspaldi (1960b, 237-8) erakutsi bezala, *diores* ereduko formak ez dira soilik G.renak edo G.N.renak, hauetzat eta BZ.az kanpo Iparraldeko euskalkietan ere lekuokoak bait dituzte Axular, Detxepare eta Oihenartengan gutxienez. Orobat, Bonapartek zioenez (apud Mitxelena 1960b) joan den mendean Saran hirugarren pertsonan bai *derau-tik* datozen formak eta bai *diotik* atereak erabiltzen ziren, nahiz singularrean nahiz pluralean.

Azalpena lehengo bidetik doa: G. eta G.N.ren zati bat izan dira lehendabizi-koak sistema aberatsago bat murrizten *dioreskin* soilik geldituaz beste euskalkietan oraindik eredu horrezaz gainera besteren bat ere bazerabiltenean. B.k beranduago egin du hautaketa hori eta, halabeharrez, G.k egindakoaren kontrako bidetik. Haatik, ez du honek eragozten historikoki, hots, testuek lekukotasuna ematen duten garaian, *dio* forma orokortzat jotzea.

Baliteke, gainera, beste sistimak —*deu-* eta *derau-*, alegia— historiaurrean orain baino zabalduagorik egotea, batez ere bigarrena. *Dirautzu, dirauzku, zirauz-kun, diraust* eta beste honelako adizkietatik sortuak oso hedaturik daude gaur ere G.ren eta G.N.ren hainbat lurraldetan, eta ezagunak ez eze ia bakarrak ere baziren G.Z.ean (ik. Lakarra 1985b): OA 16 *eutzi cizcan sacramentuac* baina OA 52 *eman cizcan eleiza ama santuari*, OA 6 *Eleizan eutzi cizcun sacramen-tuac, Mis. Çure graciac quenduco diraust culpa gustiac*, OA 71 *cer ondasun comunicatcen edo ematen dirautça...* OA 145 *Ofrecitcen dirautçut neure vicia, neure anima, neure obrac eta trabaju guciac*, etab.

5.16. Objetu zuzena genitiboan/ nominatiboan.

Mendebaldeko euskaldunok ekialdekoen testuekin edo hizkerekin topo egiten dugunean, aditzeko eta hitzegiko ezberdintasunez at, konturatzen gara sintasiarekiko beste zenbaitez ere; hain duten menpeko esaldietako objetu zuzena genitiboan jartzeko ohitura, estase baterako; genitibatze honen bitartez gure *Joan nintzen adiskideak agurtzera* haientzat *Joan nintzen adiskideen agurtzera* dugu; ik. J. Heath “Genitivization in Northern Basque Complement Clauses” ASJU VI (1972, 46-66).

Honelako esaldiak orain arrotz egiten bazaizkigu ere, aurki daitezke inoiz edo behin BZ.eko testuetan, nahiz eta lehendabiziko egitura izan orduan ere, eta askorekin, arruntena:

Argui içarrac urten dau
Çeruan goyan ostançean;
Bergararroc asi dira
Trajoe baten asmaçean

(Aek, TAV 83)

Goacen mairu errira
Mairuen zaticen,
Mendi Adlateraño
Guztia erreken.

(Iturbe, “Contribución” 83)

Berdin G.Zean ere:

Irequiquo deçu ene aoa
Alaba çayçadan Jaun çerucoa
Çure alabanzaen beti esaten
Egongo nayz cein andiac diraden.

(Misererea)

Estu egongo aiz oen glosacen;
Ançar[r]ac vaceaquic deadarr eguiten;
Salamancaco çuloan egondu inçan icasten
Hicaragoa aiz oen egu[i]ten.

(TBI, TAV 127-8)

Datu hauen arabera badirudi mementuren batean erregela orokor eta optatiboa zen honek bi aterabide izan dituela: 1) hedatu eta mantendu zenbait euskalkitan (ekialdekoetan) eta 2) ezabatu gainerakoetan, hots, B. eta G.n²².

5.17. -gaz.

BZ. eta berriaren deklinabidean atzizki markagarririk bada honako hau dugu seguruenik:

La única particularidad occidental exclusiva (ya que *-rean* “de, desde” es a todas luces un arcaísmo cuyas huellas se descubren también en otras partes) es el suf. *-gaz* de comitativo que, como ya se ha dicho, no reina solo en todo el vizcaíno: Landucci, por otra parte, no tiene más que *-kin*.

dio Mitxelenak, “lo que es propio y exclusivo no es, en todo caso, la desinencia *-z* que es la común del instrumental, sino el elemento —*ga*—” zehaztuaz (1981, 301).

Azalpenak ez du behar argitasun haboro, ene ustez hori bait da azalbide zuzena, baina gehi dakizkioke Mitxelenak labur beharrez erantsi ez zizkionak:

- 1) *-gaz* bada ere nagusi, aurki daiteke *-kin* B.zko testu zaharretan, batez ere Gipuzkoatikoetan: Bar.61 *zeugaz*, 78 *nigaz*, 496 *gueugaz*, baina 143 *oearequin*, 147 *molsuarequin*, 150-275 *zurequin*, 151 *zerequin*, 217 *neurequin*, 325 *urarequin*, 369 *Xaunonequin*, Amileta 1 *omnipotentearequin*, 1 *Espiritu Santuarequin*, 2 *cegaz*, 3 *gaucequin*, 3 *Jaungoicoagaz*, 4 *preciosoagaz*, 5 *mandamentuequin*, 5 *gorpuzarequin*, 5 *merecimentuequin*, 6 *gorpuzoequin eroequin*.
- 2) *-gaz* ez da soilik B.z erabiltzen zeren eta A.z —Landuccik soilik *-kin* badu ere Mitxelenak markatu bezala— Gamizek biak bait darabiltza: 199-202 *orrequin*, 200-202 *onequin*, 200 *iltzeaquin*, 201 *bategaz*, 201 *tortilla on bat urdaiaz*, 202 *esperanzas vizigara*, 202 *alcarregaz*, 202 *osasunaquin*.
- 3) Egungo B.ko hainbat lurraldetan (eta lehenago Prai Bartolomek adibidez) singularrean *-gaz* izan arren *-kin* dute pluralean.
- 4) Azkuek G.ren barnean kokatzen den Orekan ere aurkitu zuen:

guregaz ai die (ari dire) “se ocupan de nosotros”, *Jaunarengaz* “acerca del Señor”, *Kristorengaz* “acerca de Cristo”. En ellos el hoy bizcaíno *gaz* se agrega al tema mediante el posesivo, exactamente como se agrega su hoy sinónimo *kin*: *Jaunarekin*, *Kristorekin*.

dio Azkuek iruzkinean (1923-5, I, 321-2). Ikusitakoaren arabera “bizcaíno”, “demás” eta “confunden” zehaztuko banitu ere, funtsezko

22. Cf. atal honi buruz LAKARRA 1983b, 58-60; ez ditut hemen erabili, han egin bezala, zenbait herri kanta ez eta *eskaturekin* zihoaazien exenpluak ere orain azken hauek beste azterketa moeta bat behar dutela uste bait dut.

ideian bat etor gaitezkela deritzot Azkujerekin oraingoan bere azalpen diakronikoan:

El sociativo bizkaíno gaz y el kin de los demás dialectos, que hoy se confunden, debieron de ser distintos un tiempo, expresando el primero la idea “por medio de personas o seres animados”, exactamente como se distinguen en georgiano *Mam’it* nuestro *Aitagaz* “hacer algo con el padre, valiéndose de él” y *Mama-t’an* nuestro *Aitarekin*, por ejemplo “venir en compañía del padre” (ibidem).

5.18. -de iragankorretan.

NORK zutabeko hirugarren pertsonako ezaugarriak-Ø (singularrako) eta -e (pluralerako) zirela uste badugu euskara zaharrerako *dute*, *duten*, *zuten*, *diote*, *digute* eta era horretako formek historikoki pleonasmo bat (-t-e) lukete. Ezaguna da, gainera, G.ren lurralte askotan oraindik -Ø / -eren (edota -a(n) / -en erlatibo eta lehenaldian) oposaketaren bitartez gauzatzen dela NORK-en 3.pertsona.

Aipatu pleonasmoak suposatzen duen berrikuntzak azalduko luke BZ.eko zenbait testutan (eta baita egungo azpieuskalki batzutan ere cf. ErIru) *dabe* eta *ebenen* alboan *daude* eta *euden* bezalako formak azaltzea: BB 20 *espa ecusico daue*, ZubLez 54 *Emaiten deustela bera servietan dabenai*, Zumarraga 14 *gueyago dala dan vaño esango dabee*, etab., baina VJ 9 *Iangoicoen gracian dagoçanac participetan daudela*, VJ 11 *Christinauec erreccibietan daudena* RS 3 *Aberassoc jaya daude chiro gajooc veti neque, auçoooc vere yguy daude veti dabilena esque*, id. 54 *Iaube bat daude asco baraçeac eta emazteac ce gueyago leuquee gasso*, Mik. 9 *Nolan esan do(s)tu bostac xo daudela*, id. 111 *Selan alan estaude despatchetan orren meçede ori*, Aek *Urten daude beralan, Joanicoc eta beste ascoc eudela parte bertan*, etab.²³

5.19. *edinen asimilazioa.

B.ren lehendabiziko testuetarik -adi -idi asimilazioa ematen da *edin lagun-tzailearen formetan: RS 195 *Nesquea açidin leguez quirrua yrundin leguez*, id. 188 *Gal bidi guizona ta ez aren ospe ona*, id. 263 *Lotsaga nindin, oguiz ase nindin*, id. 294 *Iayguicidi naguia erracizan uria*, BB 9 *gal di[d]la mairua*, id. 16 *Biar didin vizi*, id. 29 *Leen diite beartu*, Barrutia 15 *cumplidu vidi secula veti*, id. 356 *Izan ezidin gauza gustian mutilau desgraciadu*, VJ 5 *Yru personetaric cein sidin guizon*, etab.

Oraingo honetan ere berrikuntza ez da soilik B.rena, erdi-mendebal osokoa baizik, horren ezaguna ez izan arren G.Z.ean eta A.n ere ematen bait zen, nahiz eta horietan asimilaziogabeak ere izan: OA 52 *bera sinistua izan dadin*, Ir 25 *Ala izandedilla*, Gamiz 201 *ezandio Aytari ta/ dio viurtu bedi baina Ir 3 Santificatua izan bidi zure icena... Eguin bidi zure vorondatea*, OA 162 *Ofendidutçat eman eztidin*, ibidem *Acusatu bidi penitentea*, Ir 23 *Izandidilla ezagutua*, id. 40 *izan didin gure arimen mantenimentua*, OA 41 *Iñor ere salvatu ote diite*, id. 142 *Confesatu diite conveniencia gueiagorequin*, id. 160 *Modu artara alabatu dirin, Land. “oxala” validi*.

23. B. berrirako ik, *ErIru* (gerraurreko) eta GAMINDE 1984 (gaur egungo egoeraz).

5.20. -n/-Ø leheenaldian.

Dakigunez N.ko hizkera batzutan erori egiten da *-n* lehenaldiko ezaugarrria, *ekarri zue, joan ze, handiak gina, eraman genue* eta antzekoak erabiliaz eredu hedatuagoetako *ekarri zuen, joan zen, handiak ginen* eta *eraman genuenen* ordez. Lehenaldiko erlatiboetan (*eraman zuen gizonak ebasti zue*) bada, aldiz, *-n*, baina hor bi *n* “dira” izan: erlatiboarena eta lehenaldikoa, eta soilik hau erortzen da.

Erorketa, baina, ez da euskalki horretan gertatzen bakarrik, BZ.eko mendebaleko zenbait azpieuskalkitan ematen bait da: Mik 126 *Flandesic etorri sirea*, 131 *seybatan eve berorec escritoriau?*, 142 *Non eguin sidi?*, RS 244 *Onçoriçat neuca baya oparinac eroa eusta*, 294 *Iayguicidi naguia*, 332 *Adiunça onean nentorre vaya ezer ez nencarre*, etab.²⁴

Bi mende beranduago Zabala da fenomeno horren iraupenaren lekuo:

Por 3º defecto cuenta la supresión de la *n* final de los artículos [=adizkiak], practicado en los pueblos de la costa del mar cercanos a Bilbao, v.g. *yan eguiá* por *eguián* o *evan*, él lo comió: *etorri cidi o za* por *cidiñ o zan*, se vino: *yoan ekio* por *ekion* o *yacon*, se le fue. (VRB 57).

eta oraindik 1930 inguruan Azkuek (1935, 85) *Alaba bi eukaza, bat ezkondu egin zidi, gazterik il ze eta joan zidi ta etorri zidi emakumea* bezalakoak aditu ahal izan zituen B.ren ipar-mendebaleko muturrean.

Markatzekoa da RSen Darmstadt-eko alea aurkitu zenean Jules Vinsonek (*Additions et corrections* 6-7a) -naren erorketa honegatik esaten zuela bilduma horretan mendebaleko G.N. errefrauak ere bazirela, euskalki hori bait zen fenomeno hau ezagutzen omen zuen bakarra (cf. Lakarra 1986a); halaber Eduardo Valenciaci lan argitaragabe batean erakutsi legez G.N. hegoaldekoan bertan ere badirela *-n* mantentzen duten hizkerak galdu dutenen aldamenean.

5.21. Konkordantzia falta.

Azkuek zioenez “en varias zonas territorialmente guipuzkoanas y alabesas del dialecto B rechazan por lo general toda característica de pluralidad objetiva. Dicen *dauko y emon dotsagu* aun tratándose de varias cosas en vez de *daukaz y emon dotsaguz*” (1923-5, II 775)²⁵.

Beste zenbaitetan bezala Azkue baino lehen jadanik ohartua zen honetaz Zabala; begi zolia berea ahozko zein iskribuzko B.ren ezaugarri eta akatsak miatu eta epaitzeko:

La sinceridad que nos hemos propuesto en esta obra demanda, que así como las perfecciones, digamos también los defectos que en algunos pueblos se cometan en los artículos a fin de que puedan evitarse.

24. Bainaz sistematikoki, cf. Mik. 142 *etorsan*, RS 75 *nenguiā*, 228 *ez eban*, etab. Gainera arazoan hemen azaldu baino istilutsuagoa da lehenaldik kanpo ere zenbait *-n* erortzen bait dira inoiz. RS 125 *garea gu on veti*, RS 344 *Daygu Goliz auzi ta garea vaquez bizí* “Hagamos pleyo de Goliz y seamos con paz biur”, RS 440 *aroari jarraian gaquioza* “al tiempo sigamosle”, Mik. “Optatiuo, subjuntivo singular: yo haga, tu hagas, nosotros hagamos” *nic eguiñ daguida, suc eguiñ daguisua, guc eguiñ daygua*, Mik. 15 *obe da nic diñoha gusurra* “mas vale que mienta yo”, 287 *doblado daygua* “pues doblemoslo”, etab.
25. Bego hau definizio gisa nahiz eta zehazketaren bat falta laguntzaileaz kanporakoetan. Azkue ondoren berriro ukitu du gaia A. Arejitzat eta Eusko Ikaskuntzaren *Hizkuntza eta literatura* 3. alean, 13-4.or. Amileta, Oinatiko eskuzkribua Aek(?) gehituaz Azkueren adibidei, bainaz ezer erantsi gabe hark eman hedaduraz.

Sea pues el 1.^º de estos el usar de los artículos de paciente de 3.^a persona de singular para los pacientes de 3.^a de plural como lo hacen en varios pueblos de Guipúzcoa que hablan nuestro dialecto, v.g. “nic zuri gauza ederrac emongo *deutsut* por *deutsudaz*: yo os daré a vos cosas hermosas” (VRB 57).

Komunztaduraeza aski zaharra bide da lurralte horietan jadanik Barrutiaren testuan eta Antzuola aldeko Amiletaren dotrinan (1678) ere ematen baita: Bar. 179 *Abrasazen deust errai guztiac*, id. 301 *Lastazarra baininzan ala quendu jeuste zayac*, id. 347 *sein demporan atera yeusan guztiak pica mantarrac*, id. 347 *Ona non ofrezizen deusut mundo bioz guztiak*, Amileta 1 *Ofrecien deusut neure viciea, obraac, trabaju guztiac*, ibidem *Jauna ai ici ceuscuna ceure pasiño santuco señaleac*, id. 4 *Amudiozco obraac dira Espiritu Santuari aplicacen jaacona*, id. 5 *guizonari ezpatea ta maguinea biac dausa ta ez eraq alcarri, ala arimea ta gorpuza bere Jaungoicoari eusan*, id. 6 *Christoc ici euscula elizaan remedioac becatuac parcaceco*. Badugu oraindik 1825eko beste lekukotasun bat Antzuolarako urte horretako dotrina eskuizkribatu batean honelakoak irakur bait daitezke: *barcatzen jaco becatuac confesau baño lenago... ez jaco barcatzen becatuac confesinoco sacramentua recibidu artian, penitencia gueijago santu guztiac egun dituenac baño, barcatu degula Jaungoicua gure becatuac*, etab.

Erabilera hau ez da, beraz, B. osora hedatzen egun eta, dakigunez, lehenago ere horrelatsu zeuden gauzak. Alabaina markatzekoa da B.tik kanpo ere ezaguna zela eta dela.

Azkuek B.ko ekialdeko zenbait lurralderentzat ohartu eta bertan orobat egin zuen Bährrek (1925, 98-9) Legazpi eta G.ren hegomendebalekoentzat:

Al primer vistazo dado al cuadro de las flexiones se da uno cuenta de la carencia de ciertas categorías; es decir, las receptivas con el objeto en plural (y las correspondientes intransitivas), resultando de ahí una notable simplificación. Este fenómeno es también propio de los subdialectos guipuzcoanos inmediatos; es decir, los de Cegama, Segura, Gaviria, Mutiloa, Ormaiztegui e Idiazabal (en Beasain se empieza a hacer uso, aunque no uniforme, de flexiones como *zaizkio*, *dizkizut*, *dizkiogu*, etc., y más allá de Villafranca su empleo es corriente y exacto), y hasta en las variedades vecinas de la parte vizcaína en Oñate, Mondragón, Vergara y Anzuola se observa la misma restricción. Dada la absoluta falta de tradición literaria en estos dialectos, parece imposible, hoy por hoy, averiguar las causas y la evolución de tan peregrina simplificación, pues ni las personas de edad más avanzada recuerdan las flexiones perdidas [oharrean “El príncipe Bonaparte encontró el verbo en Cegama hace más de medio siglo igual que hoy día” gehituaz]. Lo que sí puede darse por cierto es su primitiva existencia, deducida, claramente, de su empleo irregular y poco frecuente en el potencial.

Aberatsegi egin dela ezin esan badezakegu ere, azken urteotan Bährrek lerrook idatzi zituenan baino aberatsago bada azpieuskalki horretako literatur tradizioa, edota, zehatzago, badugu dagoenekoz (ikus ASJU XVIII-2, 1984) F. Ondarrak eta L. Murugarrenek *Zegamako dotrina* (1741) eta *Goiherriko platika* (XVIII. m.) argitara ondoren hango euskararen lekuko zahar edo aspaldikorik. Bada bietan eriden ahal da komunztaduraezaren adibiderik: ZeDot 10 at. eta 63 at. *Barcatuco dirazula neure pecatuac*, 10 *Nic ofrecitcendizut neure vitcia, obrac, eta trabajuac*, 41 at. *Jaungoicoac barca deguigula gueure peccatuac, guc ere barcatcen diegun betcela*, GP 6-7 *esqueñico balizute munduan diran honra, hacienda, ta gusto guztiac, ta mundu guztico errengue izatea, ez cenduque estimatuco*, 7 *eguin diguen agrabio, ta ausencia gaiztoac*, 10 *cerbait arinduko ote dizuen cere tormentuac!* *Betoz zuri agur andiac, ta cortejo guztiac eguiten zizutenac*, 11 *zuc daquizun ichusiberria queria guztiac*, 14 *ematen didazu aviso gozo oec*.

G. zahar eta berriaren azpieuskalki hauetan ez eze fenomeno hau oraindik beste lurraldetan ere hedatzen da, horietarik hegoalderantz hurbilen zen A.n hain zuen, euskalki honen bi lekuoetan aurki bait dezakegu: Land. *miembro andiac daucana* “membrudo”, *surr onac daucana* “oledor”, Gamiz 199 *Zugatic gauza gustiac izten dut oso*, id. 200 *Duzu beguicho bazuc/ ta aurpeguichobat*, ibidem *Escuac duzu leun*, ibidem *Or vildu duzu/ munduco perfeccioac*, ibidem *Asqui esan dudanac/ disparateac/ barcatu bearco duzu/ erorean itzac*, id. 201 *erresposta ezta gaizto/ bodac daucagu*, id. 202 *Ene gorainciac emozute/ ene adisquide gustiat*²⁶.

Berrikuntza honen hedadura ezin interesgarriagoa da hiru euskalkitan emanik ez bait dator baten mugakin ere ados (nahiz eta A.ren lekukotasunak urriak izan baieztapen sendoetarako) goian aipatu dudan horien izaeraren tasun bat, zabalera ezberdineko isoglosa multzo arbitrario batean oinarritzea alegia, indartuz.

Bestalde, eta esandakoaren ondorioz, behar diren datu guztiak kontutan hartzen ez dituen azterketa atomistaren arriskuak argiro agertzen zaizkigu: euskalki bakoitza zein bere aldetik erabilirik eta orobat sinkronia eta historia ere, ia aipatzea merezi ez duen bitxikeria edo hutxa genuke; azterketa orokorrako batean, aldiz, arreta gehixeago merezi bide dute honelako datuek.

5.22. -Ø / -tu.

Egungo euskaran ezberdintasun nabarmena dago ekialdeko eta hegoaldeko euskalkien artean indikatiboaz atetiko denboretan aditz nagusiari dagokionez. Ekialdeko hizkeretan (eta batuan) mendebal aldekoetan bezala partizipioari eransten zaio laguntzailea indikatiboan, baina gainerakoetan aditz erroarekin doa: *etorri zen, onartu zuen baina etor zedin, onar lezan*. Mendebalean, aldiz, bi kasuetan partizipioa erabili ohi dugu: *etorri zedin, onartu lezan (egian)*

Usadio zaharra, jakina, ekialdekoek mantendu dute. Azkue eta Lafon aritu dira honetaz eta beren lanetan hainbat frogatuta bildu dute hori baieztatzeko:

- 1) Oraindik mantentzen dira B.z *ken hortik* edo *hor konpon Mari Anton* bezalako arkaismoak (Azkue 1935, 67),
- 2) zenbait hitz konposaturen lehen osagaia aditz erroa da: *sorlekua, Jaunaren crucifica lekua* (Leizarraga),
- 3) -gai, -gei aditz erroei (*irakurgai*) eransten zaie, eta
- 4) *erazo/arazi* ere aditz erroei eransten zaie (*galerazo, harrarazo*) (ik. Lafon 1943, II 20 azken hiru arrazoiatarako).

Datu hauen arabera honako ondorioetara iritsi zen Lafon:

La distinction du radical et du participe doit donc avoir eu autrefois une aire d’extension plus grande qu’aujourd’hui; il est même vraisemblable que tous les dialectes l’ont connue et l’ont, plus ou moins systématiquement, utilisée (ibid.).

Hemen erakusten saiatuko naizenez morfologi bereizkuntza hau ez da “daitekeena” baina segurua (cf. Omaetxebarria 1948, 314) bai aitzineuskararako eta

26. Zenbakiak J. Goikoetxea-Maizaren edizioko orrienak dira ohi bezala; ik. halaber KNORR 1974 zeinen iruzkina ez bait dator mirearekin bat puntu honetan; dagoeneko MITXELENA 1958an gaztigatzen da usadio hau Landucci dela eta, baita Azkue aipatzen ere.

baita B.Zeko lehendabiziko testuetarako. Mitxelenak usu errepikatu digun bezala, badira arazo batzu euskararen eboluzioan *historiaren* barnean (ez historiaurrean) gertatzen direnak eta besterik gabe testuetara joaz iker daitezkeenak; hau dugu horietarik.

XVI. mendeko testuen bitartez ezagutu arren XV. mendeko diren kanta zaharrak (Milia Lastur eta Abendañoren eresiak, Olaso, Arrasateko erreketaren eta Sandailiaren kantoreak) har bagenitza, honelako emaitzak genituzke (ik. Lakarra, 1985d): *Ezcon bequio, Al banegui empara, Gal didila Un̄cueta, Sumi a[ç]alla, Jauna ezcençan empara, sar gayteza[n], Nay ez daquiola valia*. Hots, 7 kasuetarik zazpiak mantentzen dute forma zaharra, berriaren ale bat ere gabe.

Hurrengo mendean, XVI.ean, hasten dira jadanik indikatiboaz kanpoko partizipioaren lehen agerraldiak: *Onec galdu badagui, choria escôdu ney, ucatu vadidi*, etab. Alabaina, oraindik mende horretan ere gehiago dira aditz erroarekin doazen modu hipotetikoetako adizkiak (34, 27ren kontra) eta nagusi da RS, Garibai edo Zumarragarengan nahiz eta partizipiodunik ere izan; markatzekoa da Betolatzaren²⁷ kasua 9tarik 9ak bait doaz partizipioarekin.

XVII.mendetik aurrera jadanik partizipioa izango da erabiliena, aditz erroa arkaismo solte bezala baino gordetzen ez delarik; 1700 ingururako ez da jada bereizketa prosan inoiz ere mantentzen eta hortik aurrerako testuetan (Arzadun, Urkizu) ez da horren arrastorik. Ohartu behar da, halere, forma zaharkituak ez zirela egun bezain ezezagunak ez eta agramatikalak ere, poesian oraindik BBetan eta *Acto para la Nochebuena* erabiltzen bait dira, bigarrenean gainera kopuru markagarrian (25/39tatik).

Fenomeno berau —nahiz eta bere kasuan lekuko urriagoak izan— gertatu zen beranduxeago G.z ere: AzpGut. (1622) *sofri yçaçu, escribi deguiçudala, gaztiga deguiçudala, serbi deçadala*, Isasi (1620) 50 *Illaç aguin ceguian*, 81 *Unaiac aserra citean gaztac aguer citean*, Salbea *erregu ezazu* (id. Etxabek 1609), guztiak salbuespenik gabe; Mis.ean nagusi dira (10/4) -tu gabeak: 1c *borra eçaçu*, 2b *quendu eguidaçu*, 3d *vençetu çinçan*, 7a *apartadu eçaçu*, 7d *borra biza*, 8a *garbi eçaçu*, 9b *quendu ez çateala*, 11b *viurtu eguidaçu*, 11c *fortaleci naça*, 12b *libra naçaçu*, 12c *alabaçayçan*, 12d *ensalça dasan*, 13b *alabaçayçadan* baina ez bedi ahantzi neurriarekiko menpekotasuna. 1648ko testu batean (TAV 167) *biurtu zaitez irakurtzen* dugu baina adibide bakarra da eta gainera 1655eko beste batean (“Contribución” 129) oraindik *uidal ezazu* dakusagu *patente bat bidalduren* ondoren.

Nolanahi ere bereizkuntza galdua edo galtzear zen XVIII. mendearen hasierarako hegomedebaleko zati batean: OA 1 *barcatu eguiçutzu*, 4 *honratu daigula*, 4 *santificatu ditzagula*, 8 *regutu eguizu*, 11 *serbitu ceguian*, 13 *libratu gaitzatzu*, 14 *artu eguizu*, 23 *deseguindu ditçaque*, 33 *salvatu guindecen*, 49 *quendu leiqueo*, etab.; 50. orri arte aurkitu ditudan salbuespen bakarrak 1 *libra gaitzatzu*, 2 *regu eguizu* eta 11 *goza ceguian* dira, eta hauetarik 1.ko biak bederen Gure Aita eta Agur Marian fosildurik kausitzen ditugu.

Egia da Zegamako dotrinan (1741) 25 adibidetarik soilik 9tan dugula -tu eta Irazuztarenean (1739) soilik 29tarik 9 baina ene ustez -Øren adibide gehienak

27. LAKARRA 1984b, 174. orrian markatu nuen (soilik ablatiboa zela eta baina orobat jazoten da beste hainbat arlotan) Betolatz eta Mikelaren arteko bereizkuntza. Geroztik ARANA 1986an erakutsi da Betolatz ez zela bilbotarra —eta horrela beren arteko ezberdinatasunok azpieuskalkienen aldetik azal daitezke— eta KNORR 1986an hain zuzen ere Betolatzakoa zela frogatu da.

erlijio hizkuntzako fosiltzat jo behar ditugu; Oikiako Agirreren lekukotasunak (1749), aldiz, garbi diosku oso bestela zeudela gauzak ekialderago: lehendabiziko 25 orriean ematen diren 16 adibideetarik *erregutu daguiozula* (9) da -tu daraman bakarra.

Euskalkiek beren aldaketan ere zenbat antzekotasun erakusten duten gogoratzeko ez dut ukitzen ari garen arazo honetaz beste datu bakar bat baino emango: partizipioaren hedakundeak kronologia ezberdina du -tu aditzentzat eta -i aditzentzat; baina, halere, zein BZ.ean zein GZ.ean -i aditzetan ematen da lehendabizi, euskalki horien historiaurrean, hain zuzen²⁸.

6. Zenbait ondorio.

Aski luze, luzeegi beharbada, gertatu da nik laburrago nahi nuen saiotxo hau; ez nohakizue, bada luzatzeria BZ.a eta gainerako euskalkien arteko gonbaraketen aipatu ditudan datu eta adibideak nahiko bait dira hemen dagokidan egitekorako. Goazen, hortaz, —usadioa ere izaki— aurrekoa taula batean laburbilduaz ondorioren bat edo beste ateratzera, nahiz eta agian entzule zuhurrentzat beharrezkoegia ez izan^{28bis}.

28. cf. "Contribución" 129; horregatik ez ziren kontutan hartu hauek LAKARRA 1985d-n non falta bait dira GZ.eko datuok ere.
28bis. Parentesiek ezaugarri hori soilik egile edo testu bakar batean ematen dela adierazten dute.

	Bizk. Zah.a	Gip. Zah.a	Liter. Bizk.	Liter. Gip.
1. <i>egin eta *ezan</i>	+	+	—	+
2. <i>dio eta deutso</i> (edo <i>dirau-</i>)	+	+	—	—
3. Togen eta nominatboa.	+	+	—	—
4. <i>-gaz eta -kin</i>	+	—	+	—
5. —D— <i>dauden</i> (edo <i>duten</i>)	+	+	—	+
6. asimilazioa <i>*edinen</i> .	+	+	—	—
7. <i>-n > -Ø</i> lehenaldian.	+	—	—	—
8. Komunzt. falta objetuarekin	+	+	—	—
9. <i>-Ø / -tu</i> bereizkuntza a. nag.	+	+	—	—
10. <i>-rean</i> ablatiboan.	+	(+)	—	—
11. <i>-ti</i> prosekutiboan.	+	+	(+)	—
12. genit. gonbarazioan.	+	—	—	—
13. Xekin Y = “X eta Y”	+	+	—	(+)
14. Futurozko inperatiboa.	+	+	+	—
15. <i>—a— / —e—</i> 2 eta 3 perts.	+	+	+	—
16. <i>-zu</i> “zuek” aditzean.	+	+	(+)	—
17. futuro zaharra.	+	+	—	—
18. aoristoa.	+	+	—	—
19. <i>eroan eta joan</i> aditz lag.	+	—	+	—
20. Aditz nag. + <i>ez</i> + Lag.	+	+	—	(+)
21. <i>baist.</i>	+	+	—	+
22. <i>—eta—</i> aditz izenkietañ	+	(+)	+	—

Gogoangarria izan daiteke F. Rodríguez Adradosek proposatu eta Tovarrek (1959) eta Mitxelenak (1964b) beren lanetan inoiz erabili erizpide batez dialektu ezberdintasunak sailkapen hirukoitzean labur daitezkela:

- 1) hautapen ezberdinak,
- 2) berrikuntza "
- 3) arkaismo iraupendunak. (apud Mitxelena 1964b)

Gure taulan 1.tik 4.era ezarri ditugu euskara zaharreko diasistima hautagaiak (gero nonbait noizbait batera edo bestera erabakiak), 5.etik 9.era (kronologia eta hedadura ezberdineko) berrikuntzak eta 10.etik akabura arkaismoak.

Dakusagunez, G.Z.a bat dator B.Z.arekin 22etarik 16 ezaugarritan (% 72,7) eta are 18tan (% 81,8) parentesi artean doazenak ere onartzen baditugu; Lit.G., aldiz, bakarrik 3tan (% 13,6), parentesi artekoak gehituaz ere 5era (% 22,7) baino ez da iristen. Baino ez da soilik hau B.Z.etik urrundu dena: lit.B.k ere ez ditu B.Z.aren 5 (edo 7) ezaugarri baizik, %22,7 (edo % 31,8) alegia, eta areago dena B.Z.a ∩ (Lit.B ∩ Lit.G.) = 0.

Aurrerago ere bihurtuko gara berriz taulon iruzkinera baina diogun hasiera hasieratik hauek honela izanik ezin onar daitekela inola ere Uhlenbecken iritzia, hots B. eta G. hurbilduaz joan direla historian zehar, nabarmena bait da horien garairik zaharrenak askozaz gertuago zirela beren artean euskalki bakoitzaren aldirik zaharrenak eta aldamenekoaren berria (erraztuaz literatur euskalkia) bai-zen; pentsatzeko da, bestalde, horrelako zerbaiz susma daitekela historiaurrerako ere:

Basta, por lo demás, con consultar la documentación disponible que, si no es excesiva, tampoco es escasa para llegar sin vacilaciones a la conclusión de que las diferencias entre vizcaíno y dialectos más orientales no han hecho más que crecer sin descanso desde los siglos XV-XVI hasta nuestros días. No veo, por consiguiente, razones que inviten a no extrapolar, es decir, a no suponer que las divergencias eran todavía menos marcadas digamos en el siglo X.

(MITXELENA 1981, 300)

Taulara bihurtuaz norbaitek uste lezake oraindik orain ere B. eta G. (=Lit.B. eta Lit.G. oraingoiz, ik, aurrerago) ez daudela oso urrutি beren artean eta beharbada arrazoi du. Alabaina, ohartzekoa da biek batera "irakurtzen" duten 10 ezaugarrietan (% 45,4) guztietan "ezetz" irakurtzen dutela; hots, ez dutela halako edo holako ezaugarria, baina ez nahi eta nahiez biek ezaugarri bera dutenik: cf. adibide argi baterako 2.a. Ez lioke, bada, adostasun horrek balioko goian esandakoaren aurka, bertatik ezin atera bait daiteke inongo hurbiltze prozesurik.

- , 1986: *Barriers*, MIT Press, Cambridge (Mass.).
- DOUGLAS, W.A., ETULAIN, R.W. & JACOBSEN, W.H.Jr. (éds.) 1977: *Anglo-American Contributions to Basque Studies: Essays in Honor of Jon Bilbao*, DRIPSS, Reno (Nevada).
- EGUZKITZA, A. 1985: "Kontrol- eta oharmenaditzen jokabide sintaktikoaz", in Melena (éd.), 981-985.
- EUSKALTZAINDIA 1985: *Euskal gramatika. Lehen urratsak*, 1, Euskaltzaindia & Institución Príncipe de Viana, Pampelune.
- GASTAÑAGA, L. 1977: "Gapping Basque Constituents", in Douglas et al. (éds.), 169-175.
- GRIMSHAW, J. & MESTER, R.-A. 1985: "Complex Verb Formation in Eskimo", *NLLT* 3/1, 1-19.
- HALE, K. 1983: "Warlpiri and the Grammar of Nonconfigurational Languages", *NLLT* 1/1, 5-47.
- , 1985: "On Nonconfigurational Structures", *ASJU XX-2* (1986), 351-358.
- KOOPMAN, H. & SPORICHE, D. 1982: "Variables and the Bijection Principle", *The Linguistic Review* 2/2: 139-160.
- LAFITTE, P. 1962: *Grammaire basque (navarro-labourdin littéraire)*, Editions des Amis du Musée Basque et Ikas, Bayonne.
- LAUNHEY, M. 1986: *Catégories et opérations dans la grammaire nahuatl*, thèse d'Etat, Université de Paris IV.
- LEVIN, B.C. 1983: *On the Nature of Ergativity*, thèse doctorale, MIT.
- MARÁCZ, L.K. 1985a: "Some Notes on Weak Crossover in Hungarian", in Beninis, H. & Beukema, F. (éds), *Linguistics in the Netherlands 1985* (Foris, Dordrecht), 129-138.
- , 1985b: "On Bound Variable and Coreferential Interpretation in Nonconfigurational Languages", communication présentée à: *Workshop on Lexical v. Syntactic Structures*, Groningue, octobre 1985; aussi dans: *Theoretical Linguistic Research*, 2/2, 1986, 85-172.
- , 1986a: "On Transitivity in Nonconfigurational Languages", in Beukema, F. & Hulk, A. (éds.), *Linguistics in the Netherlands 1986* (Foris, Dordrecht), 161-169.
- , 1986b: *Disconnexity in Syntax*, ms., Université de Groningue.
- MELENA, J.L. (éd.) 1985: *Symbolae Ludovico Mitxelena Septuagenario Oblatae*, 2, UPV/EHU, Vitoria.
- MOHANAN, K.P. 1984: "Lexical and Configurational Structures", *The Linguistic Review*, 3, 113-139.

- ORTIZ DE URBINA, J. 1986: *Some Parameters in the Grammar of Basque*, thèse doctorale, Université de l'Illinois à Urbana-Champaign.
- REBUSCHI, G. 1982: *Structure de l'énoncé en basque*, Dpt. de Recherches Linguistiques, Université de Paris VII; rééd.: SELAF, Paris, 1984.
- , 1983: "A Note on Focalization in Basque", *Journal of Basque Studies* 4/2, 29-42.
- , 1985a: "Théorie du liage et langues non-configurationnelles; quelques données du basque navarro-labourdin", *Euskera* 30/2, 389-433.
- , 1985b: "Niveaux de représentation et non-configurationnalité: remarques sur les anaphores et les variables du basque", *Sigma* 9, 109-144.
- , 1986: "Diathèse et (non-)configurationnalité: l'exemple du basque", *Actances* 2, 175-207.
- , à paraître a: "Is There a VP in Basque?", in Marácz L.K. & Muysken, P. (éds.), *Configurationality*.
- , à paraître b: "Quelques traits typologiques de la langue basque", *Lalies* 1987.
- RIEMSDIJK, H. VAN & WILLIAMS, E. 1981: "NP Structure", *The Linguistic Review* 1, 171-217.
- SAITO, M. & HOJI, H. 1983: "Weak Crossover and Move-Alpha in Japanese", *NLLT* 1/2: 245-259.
- SALABURU, P. 1985: "Uztardura", in Melena, J.L. (éd.), 987-994.
- , 1986: "Uztarduraren teoria", in Goenaga, P. (éd.), *Euskal sintaxiaren zenbait arazo* (UPV/EHU, Vitoria), 59-94.
- TRASK, R.L. 1985: "The Basque Passive: a Correct Description", *Linguistics* 23, 985-991.
- VITALE, A.J. 1981: *Swahili Syntax*, Foris, Dordrecht.
- WHITMAN, J. 1982: "Configurationality Parameters", ms., Harvard University.
- , 1986: "Features of Languages Without Clear Spec/Comp Distinction", communication présentée à: *Amsterdam and Groningen Workshops on AUX, Configurationality, and Lexical Structure*, avril 1986.
- WILBUR, T.H. 1979: *Prolegomena to a Grammar of Basque*, John Benjamins, Amsterdam.
- WILLIAMS, E.S. 1980: "Predication", *Linguistic Inquiry* 11, 203-238.

EUSKAL IZKINDEAKO ADITZA. (Hiperbizkaieraren historiaz II).

Itziar LAKA

Massachusetts Institute of Technology

Goizegi da dudarik gabe, igaro berria dugun mende erdia azterzeko eta epaitze-ko, geurok ere, etsai nahiz aldeko, haren ume eta iloba baikara, orduko haizeak sortu zituen olatuetan baikabiltza igeri, nahiz eginahalean haikein borroka ari. Ezin jakin guk segurki behintzat, zer esango duten aldi hori urrutia gotik, haserre eta maitasunik gabe, ikusiko dutenek. Onik eta txarrik aurkituko dutela horrengan, hori bai, edozein alditan bezala.

(K. Mitxelena, "Asaba zaharren baratza").

ATAURREKOAK.

Hiru urte bete dira Evaristo Bustinza "Kirikiño"-k idatziriko *Abarrak* ipuin bildumaren edizio kritiko bat prestatzen hasi nintzela. Zerbait egin nahiean lotu nintzaion lan honi, errez eta arinki egin zitekeelakoan. Baina, zorionez, honelako lanak beti gertatu ohi dira hasiera batean uste baino astunagoak, eta kasu honetan ere, uda batean bukatu asmo nuen lantxoa, luzatuz eta zailduz joan zen, artile korapilatsutik mataza borobila egin nahi denean bezalaxe.

Berehala jabetu nintzen lanerako nuen zaitasunik latzena, Kirikiñok idatzi zuen garaiko euskaraz, edo hobe esan bizkaieraz, egindako lanen urria zela. Beraz, testuen aldaketak neurtzeko, derrigorrez egin behar XIX eta XX. mendeen artean zangalatrabuan dugun garai hartako bizkaieraren azterketa. Ekin nion, bada, azterketa horri: Bi eskola zeudela banekien, Arana eta aranatarra batek, eta Azkue bestetik. Zuriak eta beltzak, beraz. Hala ere, eskurik esku eta ahoz aho igaroriko eritzia zen hau. Paperetan barrena abiatzean, baina, gero eta argi gutxiago zegoen: Zuriak eta beltzak, denboran atzera jo ahala, kolore nabarreko tarte ilun batean nahasten zirela ematen zuen. Ez zirudien, beraz, edizioari egindako hamar bat orrialdetako sarrera batekin garbitzeko auzia zenik hau.

Ondorioz, lanez aldatzea erabaki nuen behingoz¹. Garai honetako edozein testuren edizio kritiko erabilgarria egin nahi badugu, hasierako lana garaiko hizkuntza zertan zegoen (edo zertan zebilen) jakitea da. Euskal literaturaren gainerako garaietan ez bezala (agian Larramendiren ondorengo idazleak salbu), metahizkuntzak berebiziko eragina du garai honetan, hizkuntza idatzian. Lehengo ere baditu gramatikagile edota euskararen gainean diharduten egileak, baina

(1) Artikulu hau *Hiperbizkaieraren historiaz: hastapenak* izenarekin E.H.U.ko Filologia Fakultatean 1986ko uztailean aurkeztu tesinaren sarrera orokorrak eta bigarren kapituluak osatzen dute. Lehen atala LAKA 1986-a argitaratu da eta aurki jarraituko zaizkio lanaren laburpenean aipatu gainerakoak. Ik 4. oharraren bukaera ere.

Lean hau Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saileko ikerketa laguntza batu eskerrak burutu ahal izan da eta hainbat zor du hainbat pertsonarekin; guztiek hemen aipatzea ezina bada ere (zerrenda lana bezain luze bait litzateke), eskerrak eman nahi nizkieke Ibon Sarasola tesina zuzendaria, bera laguntha gabe oraindik ere lana idazten hasterik egonge bait nintzateke; Joseba Lakarrari, argitaratzeko orduna egin dizkidan mesede ordainezinengatik; tesinaren aurkezpenean epaimahaiko izan ziren Koldo Mitxelena eta Pello Salabururi, beren ohar eta aholkuengatik; eta baita Marian Egaita EHUKo Filologia Fakultateko Bibliotekaren arduradunari.

aurreragokoen lanek ez zuten gero literatur lanetan garai honetan duten adineko isladapenik.

Foruak 1876.ean inausi ziren, eta hamar-hamabost urteren buruan, abertzale-tasunaren jaiotza gertatzen da. Euskal-herriaren eta euskaldun izatearen berpentsaketa orokorra ematen da, bada, urteotan; berez dator euskara beraren berregitura-tzea. Euskaldun izatea zer den definitzeko saioekin batera, euskara bera zer eta nolakoa den erabakitzentz da, erabilera mailan baino lehenago gramatika edota euskararen gaineko idazlanetan. Diren euskaldunen aurrean, izan-beharko-luketen euskaldunak; den euskararen aurrean, izan-beharko-lukeen euskara.

Idazlerik gehientsuenek (guztiekin ez esatearren), eta bizkaieraz ari naiz bereiziki, aukerak egiten dituzte darabilten hizkuntza, eta jakinaren gainean egindako aukerak. Izan ere, garai honetako testuetan *deutsat* edo *dautsat* agertzea, edota *ditu* edo *dauz*, ez da soilik hizkuntz eredu baten aukeraren adierazgarri: Konnotazioz beteriko formak ditugu hauetan XIX.aren bukaeran eta XX.aren hasieretan; gehien bat, konnotazio politikoak, eta baita euskarari buruzko jarrera osoarekin zerikusia dutenak, ondorioz.

Hizkuntza ereduak honenbesteko garrantzia izaki, ez bakarrik ideologia mailan, baizik baita ordurarteko bizkaiera idatziaren tradizioarekin suposatzen duen hausduragatik ere, beharrezkoa deritzot arazoari heltzea, zehatz-mehatz jakin dezagun zer-nolakoa izan zen hizkuntzaren iraultza hau. Are gehiago, kontutan izanik 1890-1918 tarte honetan euskal aintziran jaurti harriek sortu zituzten uhinetatik zenbait, guganaino heldu direla, eta behin baino gehiagotan, seguru asko, gu ohartzeke.

Arazoa, beraz, ez da jujamendutan aritzea, gauzak ondo ala txarto egin ziren erabakitzea. Eritzien garaia baino lehenago, uste dut, ezagutzarena behar genuke, eta beldur naiz gure artean eritziak ditugula maiz aldez aurretik, ezagutza zehatzik gabe. Hau da, behintzat, nire egoera. Honengatik ekin diot, agian, bestek bukatu beharko duten lan honi.

SARRERA.

0. Bizkaiera Literatur Euskalki Bezala.

Euskalkiek gure literaturaren historian zehar izan dituzten indarraldien harrian, bai ekoizpenari eta baita literatur hizkuntzaren eraiketari gagozkiela, bizkaiera ez da XIX. menderarte literatur euskalki bilakatzen, nahiz XVI. mendean dagoeneko, gipuzkera baino landuago agertzen zaigun gorde diren testuetan².

XVIII. mendean, aitzitik, suntsialdi antzeko bat nozitzen duela dirudi, Larra-mendiren ondorengo berpizteak gipuzkera indartuko bait du gehien bat. Literatur bizkaieraren sorerra urteak 1802-1803 ditugu, eta Mogel eta Añibarro bere eraikitzaile nagusiak, bide ezberdin bi urratuz bada ere: Markinako eskola lehenak, eta Arratiakoa deitu izan dena bigarrenak³.

(2) Ikus J.A. LAKARRA "XVI. mendeko bizkaierazko errefrauez: I. Garibairen bildumak" *ASJU* XX-1, 1986, 31-65, bereziki. 31-33. or.

(3) Xehetasun gehiagotarako ikus B. URGELL. "Literatur bizkaieraz: Añibarroren *Esku-liburua*" *ASJU* XIX-1, 1985, 65-117 eta "Añibarroren inguruan zertzelada batzuk" in *Hiztegiak eta testuak*, E.H.U.ko 1986ko Udako Ikastaroak.

Alabaina, XIX.eko lehen herenean ematen den ernetze eta indarraldi honen ondoren, literatur bizkaieraren ekoizpenak gutxitze nabarmena ezagutuko du mendearen erdi aldera: 1800-1820 tartean argitaratu ziren hamabost liburu berrien aldean, 1840-1879 urteetan ordea, bost baino ez dira kaleratzen (cf. Sarasola 1975, 108).

Beherakada honek ondoren, XIX. mendearen azken hamarkadan ematen den berpiztean kokatzen da gure lana⁴.

Ekoizpenari begira, 1890-1900 tartean, eta baita ondorengo urteetan ere, 1936.erarte behintzat, bizkaieraz argitaraturiko lanen kopuruak gorakada izugarria egingo du, aurreko garaietan ezagutu ez zuen adineko. Aldi berean, euskal aldizkariak sortzen dira, hala nola *Euskalzale* edota *Ibaizabal*, R.M. Azkueren zuzendaritzapean eta, abertzaleen giroan, hastapenetan aldizkari eta gerora egunkari bilakatuko zen *Euzkadi*, euskarari lekua uzten ziona. Euskalaritzak ere indarra hartuko du; euskarari buruzko ikerlanak nabarmenki ugaltzen dira: Azkue eta Arana Goiriren lanez gain, baditugu Arriandiaga, Lopez Mendizabal, Orkaiztegi, Arrigarai, Zamarripa, eta abar luzea. Ezin ahantzi, bestalde, Julio Urquijoren eskutik sortutako *Revista Internacional de Estudios Vascos* aldizkariaren inguruan bildu ziren hainbat eta hainbat ikerlari. Gehiegikeriatan erori gabe esan daiteke, bada, garai honetan ezagutu zuela euskara idatziak, eta euskalaritzak ere, ordurarteko bultzadarik handiena.

Bizkaierari zehazki dagokionez, susperraldi honetan, literatur hizkuntza berri baten eraiketari ekingo zaio (esan gabe doa “literatur hizkuntza” bere zentzurik zabalean darabilgula, hots, idazkerari dagokion neurri osoan). Mende hasieran Mogelek eta Añibarrok urraturiko ildoak utziz, beste bide berri bat sortzen du mende bukaerako bizkaiera idatziak, nahiz eta, zenbait ezaugarritan, idazle bi hauen joera ezberdinaren isladapenik aurki daitekeen Arana eta Azkueren idazkeretan.

1. Hiperbizkaieraz.

Hizkuntz eredu honek ezin ukatuzko pisua du gure literaturaren historian; gorenetarikotzat edota irakurrienetarikotzat ditugun hainbat idazlek garai honetan burutu zuten beren lana, bizkaiera moeta hau erabiliaz. Hala ere, ezer gutxi da literatur eredu honen bilakaeraz dakiguna; bera aztertzeko egin diren saioak oso gutxi dira; gutxiegi egiazki⁵.

(4) Berpizte horren bi lekuo argitar berri ditu I. PAGOLAK: *Resurrección María Azkue Bein ta betiko. Batxi Guzur*, Kultura eta Turismo Saila “Klasikoak” Bilduma, 1987. Bilduma berean ene *Abarraken* edizioa ere.

(5) Are gehiago, csango genuke zenbaiten ez zaiola hizkuntza eredu honi inolako garrantzirik ematen; bere gainetik igaro ohi delako idazle hauen lanaren parte ez balitz bezala. Honen erakusgarri ditugu, adibidez, zenbait idazle bizkaitarren idatziekin egiten ari diren argitalpen berri batzu, inolako erizpiderik gabeko beren hizkuntza aldatu ohi dutenak. Gure literaturan gorenetairkoa den olerkari bat aipatzeko, har dezagun Lauaxetaren kasua. Duela ez urte asko kaleratu den bere prosa lanen argitalpen batetik jaso ditugu ondorengo oharrak, delako joera honen erakusgarri bikain gertatzen direnak gure usteaz: “Sistema argia euken ordukoek deklinabidea eta gaurkotik hurre dagoana. Noizbehinka ikutu dogu, koerentzia zaintzearen eta esanahi argitzeko, hala nola, genitiboan (“argientzat, Bakion artean” —argirrientzat, Bakioen artean, “etsaian” —etsai—en), datiboan (“meari” —meai) eta inesiba singularrean (“Musturran, batzarran” —musturrean, batzarrean).

Aditzean egin dogu aldakuntzarik gehien, batez ere modu eta egitura nahasketagatik.

—Baldintzazko hipotesiakoa gaurko literatur adizkietara erakarri ditugu:

- “jazoko leiteke” —litzake
- “etorriko zeintekez” —zintzakez
- “ikusiko baneuke” —baneu
- “etorriko balirake” —balira
- “itanduko bazeunskioe” —bazeuntsoe

Jakina da 1890-1936 tarte hori, garbizaletasunaren erresuma izan zela; izan ere, ez da kasik besterik aipatu ohi, garai honetako hizkuntza joerez mintzatzean. Argitzeko dugu oraindik, baina, zer den delako garbizaletasun/-keria hori, noraino hedatzen den. Sarrienik, hitz hori erabiltzean, hiztegi alorrean gauzatu zen joera neologismogile jakin bat adierazi nahi da: Arana eta bere ondoren goek osatzen dutena; *aranatarren eskola*. Hauen aurrean, esan ohi zaigunez, bazeñ bestelakorik, aurkakorik, nolabait. Hauen buru Azkue, herri-euskararen abokatu.

Por una parte, tenemos la dirección o escuela aranista, cuyas características ya quedaron esbozadas. Tendencia reformista, purista y neologista a ultranza, que modela la lengua según ciertos principios lógicos o aprioristas, de espaldas al uso real. Contra ella, Azkue, Campión y Urquijo (cada uno con matices propios) señalan la otra tendencia, preocupada por afincar bien el estudio del vascuence y su cultivo literario sobre sus auténticas bases y fuentes: la lengua real, la tradición literaria (VILLASANTE 1979, 311).

Aitzitik, hor ditugu, garai honetan bizkaieraz idatziriko testu gehien-gehiendetan, hala garbizaletzat jo ohi ez direnetan, nola mutur muturreko aranatarren eskolakoetan, aurreko literatur tradizioarekin zerikusirik ez duten hainbat gertakari. Har ditzagun adibide Azkueren pasarte bat, *Euskalzale* aldizkaritik, eta Arriandiagaren *Goizpárik eta Beldubaik egina-tik* bestea:

1. Eztot gomuta nik gaurrarte eskatu dautsadan gauzarik iaritsei edo eskuratu eztodana. Iaungoiko guztiz altsuak beste zorionekoa iarispide bat edo beste emon izan dautse, gutzat eskergarri edo mesedeak lortuteko. (...)

Merkatari oni, il-orduan, Andra Maria ta bere Semea ta Iose agertu iakazan; da esan eutsen: “Zeuk zeure etšeán artuten izan gozuzan eskero, geuk geurean artu gura zauguz”⁶.

2. *Goizpára*, edo *goizpería* ereisten dautsagu euskeraz erdeldunen agoz *evangelium, evangelio, évangile*, ta a. danari. Eta eretxi, be, egoki eretxi *Goizpára*. Goiko Jaunak bere Semigaz bidaldu dauskun izpaŕ ona, gotik, Beragandik bidaldu dausku. (...)

Josu-Kisto'z atxin jagiko diran gustijaik, aři gogoř onetan jo ta autsi egingo dira, autsi sakabanatu ta deuseztu egin diran letz éfomataf agintzamendunaik eta Doibatzaren beste etsai gustijaik. Batenbatzu biztaldi onetan zoruntsu, Josu-Kisto'ri jarkifa, be, bixi baldin ba-dira, Josu-Kisto'ren epai-gunari eztautsae iges-egingo, ta Berak orduban jo ta apurtu egingo dauz⁷

Hiztegiaz gaindi, ortografiaz gaindi, bada testu bi hauen artean amankomunekorik; hain zuzen ere, aurreko literatur tradizio zaharra (*gaingiroki* bada ere) ezagutzen duen edozein irakurlek nabari ditzakeen ezaugarriak: *dautsadan*, *dautse*, *dautsagu*, mintzagai darabilgun garai honetan edo beranduago ager daitezke ba-

⁶ “jaso bazan” —balitz

“izan ez bazan” —balitz

“esan baneban” —baneu

“dauskuio” —leusku

—Iraganeko adizki gitxto ere ekarri dogu gaurko idatziko erabiliagoetara (“leikegu, ba ekigun” —geinke, ba genkian, “naukon” “zagozen” —neukon, egozan).

Egin doguz pertsona eta numero marketan ere aldakuntza batzuk, hala nola, “ebiltzazan, dabiltzazanak, “ebezan, daben” —ebazan, dauan, “dabe” —dabez.

—Erro ondoko loturaren arazoan, jarri egin dogu singularrean (“narozu, diñon, zitun, dagola” —naroazu, diñoan, zituen, dagoala) eta kendu pluragle urearen (“egoazala, dauazan, dagiazala” —egozala, dauzan, dagizala).

Orain aldioko datiboden egitura trantsitiboean —a— aspaldiko —e—z trukatu dogu, tradizioaren haria berartuz (“dautsogu” —deutsgo.)” (Lauaxeta, *Azalpenak, 1931-1933*, Bilbo: 1982, Sutondoan) Ohar bedi aldaketa guzti hauek Lauaxetak aukeratutako hizkuntz ereduak desitxuraztuen dutela eta, bakarra ez den arran, azken oharrak garbi asko erakusten du, gure eritziz, euskal lanetan oraindik ere hedatuegi dagoen literatur eredukiko axolakabetasuna. Cf. Ines Pagola “Piarres Adame: testua eta argitalpenak” *ASJU XIX-2*, 1985, 431-8, batez ere 435-7 *Bertolda eta Bertoldin eta Josetxoren* edizioez.

6. “Itz ad Joseph” in *Euskalzale*, 1897, I, XII zenb. 89. or.

7. *Goizpárik eta Beldubaik egia*, Bilbo: 1958, 15. or. eta 109. or.

karrik, ez inolaz ere aurreko tradizioan, adibidez Mogel edo Añibarro baten gan; era berean, *gozuz, zauguz, dauz* aditz formek ezbairik gabe adierazten ditute garai jakin bateko testu baten aurrean aurkitzen garela: XIX. mendeko azken urteetatik aurrerako testu baten aurrean, izan ere.

Adibide hauen bitartez erakutsi nahi izan duguna zera da: badela hiztegi eta ortografiazko istiluez gaindiko batasunik XIX. mendearen azken urteetatik XX.aren erdialdera kasik (eta are, ilaunago bada ere, gaur arte) zabaltzen den literatur bizkaieran. Batasun hau, inon baino gehiago, aditz morfologian dago; bai aranatarrek, eta baita inguru horretan biltzen ez ziren ere, itxuraberritutako aditz sistema erabiliko dute, ordurarte dokumentatu gabeko, edo bakanka karrik dokumentaturiko aditz formak aukeratuz eredu berrirako. Mitxelena irakaslearen hitzek laburbildu dute joera honen ezaugarririk nagusiena:

Desde hace años, acaso desde finales del siglo pasado, ha hecho estragos el deliberado empeño de confundir el vizcaíno con lo que yo he llamdo —no sin acierto conceptual, y que se me perdone la petulancia— hipervizcaíno, formado con sólo aplicar la regla que sigue: algo es vizcaíno de lengua si y solamente si sólo aparece ahí y falta en las demás variedades de la lengua (de la cual se sigue suponiendo, sin embargo, que es dialecto el vizcaíno); si no se alcanza esa perfección extrema, siempre deseable, algo es vizcaíno en la medida en que tiene menos copartícipes o, en otras palabras, en la medida en que no es vasco común (MITXELENA 1981, 300).

Beraz, eredu idatzia eratzeko orduan, bizkaierak eskeintzen dituen aukeretik gainerako euskalkien aldean gehien bereizten direnak hautatzea litzateke, azken batean, hiperbizkaiera. Joera hau, esan dugun bezala, aditzaren alorrean gauzatzen da batez ere. Mitxelenaren hitzakin jarraituz:

Ni en el siglo XVI ni en el XVII (ni tampoco, creo, en el XVIII) se atestigua el vizo. *gintzazan* “somos”, sino tan sólo *ginean* o variantes de acuerdo con *ginan, ginen* de los demás dialectos; no se halla *dauz* “los ha”, sino *ditu* o, a lo sumo, más tarde, *dituz*; ni *ebazan* “lo había” (aunque sí, sin variación, *eban* “lo había”, frente a *zuen*, etc., de zonas más orientales) sino *zituzan* (*ibidem*).

Hiperbizkaieraren ezaugarri nagusienetako bat diren aditz forma hauek, XIX. mendearen azken urteetatik aurrera ugaltzen dira testu idatzietan; are gehiago dena, literatur tradizioan ohizko zirenekin batera agertu beharrean, oso urte gutxien buruan erabat ezabatzen dituzte, salbuespen gutxirekin. Aditz forma hoiak aukeratzeak, bestalde, aukera gehiago ekarri ohi ditu loturik, aldi berean. Auke-rra guzti hauak osatuko lukete, beraz, hiperbizkaieraren eredua; beraiek lirateke hiperbizkaieraren ezaugarriak.

Lehenik, —*it*— pluralgilearen gaitzestea dugu, eredu edo joera honen tasunik oinarrizkoenetako bat. Bere ordez, -*z* marka hobesten da; honela, literatur tradizioan (eta ahozko bizkaieran) maiz erabili ohi ziren *ditudaz, ditue, nituzan* eta antzeko aditz formak ez dira ageri ohi hiperbizkaieraren ereduan. Beraien lekuan *dodaz, dabez, nebazan* e.a. erabiliko dira beti. Joera hau azken mugaraino eramanaz, badira hiperbizkaierazko zenbait aditz forma ezin aurkituzkoak gertatzen direnak XIX.aren azken hamarkada baino lehenago, adibidez *dauz, ditu* ordez, edota *baleuz, balitu* arruntaren lekuan⁸. Hau NN jokoko aditzei da-

8. Joera hau euskalkiak ulertzeko modu tradicionalean datza: euskalki bakoitzak tasun bat agertu beharko Juke funtzio bakoitzera, eta marka ezberdin biren artean, bigarrena aldameneko euskalkian ere ager daitekeelarik, amankomuneko gaitzestera zeraman derrigorrez. Bizkaieraren kasuan, —*it*— pluraleko marka gipuzkeratik hartua dela zabalduko da. Beraz, nolabait “bizkaitarrago” lirateke —*z* markadun aditz formak, urriagoak izanik ere, NN aditz jokoaren kasuan adibidez.

gokienez. Hala ere, joera hau agertzen duten testuetan, edo hobe esan, eredu honen arauera idatzirik ageri direnek, beste bigarren aldaketa bat ezartzen dute aditz laguntzailean; guk hiperbizkaieraren bigarren ezaugarri nagusitzat hartu duguna.

Aldaketa hau, orain aldiko NNN jokoko aditz formeitzailea da. Bizkaierazko *deutsat*, *deust* eta abar arrunten ordez, berriz ere, dokumentatu gabeko formak aukeratzen dira: *dautsat*, *daust*, e.a. Hots, orain aldian, *eu* erroa *au* bezala berridazten da⁹.

Gure ustez, hauek lirateke hiperbizkaieraren ezaugarri nagusi biak, eta, horregatik, beraiei eskeini diegu lekurik gehien lanean zehar. Izan ere, bi ezaugarri hauen haritik egituratu da, batik bat, ondorengo lan hau¹⁰.

Hala ere, Mitxelenari jarraiki guk ere hiperbizkaiera deituko dugun eredu hau, ez da inolaz ere eredu oso eta itxia; hots, badira guttieneko zenbait (gorago aipatu ditugunak), eta testu batek agertzen dituenean esango genuke hiperbizkaierazko idatzi bat dela; guttieneko ezaugarri hoietatik aurrera, baina, bada halako mailakatze antzekorik: ez da gauza bera Kirikiñoren ipuineta ageri den bizkaiera, edo Azkueren *Euskal-Izkindeakoa*; halaber, beste ezaugarri berezi batzu aurki litezke, esaterako, Joseba Altunaren hizkuntzan; nolanahi ere den, idazle guzti hauek, esanda dagoen legez, hiperbizkaieraren ondarea jasotzen dute.

Gure lan honek, eredu berriaren sorburuetara jo nahi izan du: hiperbizkaieraren hastapenetara. Nolabait, bada, euskararen historiari dagokio. *Euskararen historia*, baina, oso konzeptu zabala dugu; bere barnean mailak berezi daitezkeela, edo hobe esan, berezi behar liratekeela uste dugu. Batetik, hizkuntza osoaren denboran zeharreko ibilera genuke; bilakaera honen azterketarako, testu idatziak besterik ezean erabili ohi dira lanabes, aurreko garaietan delako hizkuntzak —gure kasuan euskarak— ageri zuen zernolakotasuna hautemateko xedeaz. Bestetik, eta hizkuntza horren ekoizpen idatzia ugalduz doan neurrian, hots, idazkeria hedatuz eta indartuz doan neurrian, literatur ereduen bilakaera azaltzen da landu beharreko ikergai bezala: nola sortzen diren ereduok, zertzu aukera egiten diren ahozko hizkuntzak eskeintzen dituen aldaeretatik, ereduen arteko harremanak, e.a. Azkenik bada, gure eritzian, hizkuntzaren historiari atxikia dagoen hirugarren ikerketa alorra, agian bazterrekoago, baina hala ere garrantzikoa dena hizkuntzaren bilakaeran: gramatika tradizioen historia. Azken alor honi dagokio, batik bat, hemen aurkezten dugun saio hau.

9. Bizkaieraz zeharrean, jakina denez, aditz laguntzailearen —e— horrek datibotasuna ageri ohi zuen, hots, aditz formak NNN moetakoak zirela (gure lanean NNN laburpenak adierazten du Nor-Nori-Nork jokoaz ari garela; era berean, NN laburpenak Nor-Nork jokoak adierazten du; azkenik NN laburpenaren bidez adierazi ohi dugu Nor-Nori jokoaz ari garela hitz egiten). Mitxelenak markatu duenez: "Podemos afirmar como conclusión que en el vicio, antiguo la alternancia *a/e* servía no sólo para distinguir las formas derivadas del tema de presente de las formadas sobre el tema de pretérito (tipo *banakus* 'me ve' o 'si me ve'/'banekus' 'si yo lo vieras') o, empleando la terminología más neutra de R. Lafon, las formas del primer grupo de los del segundo, sino también, y es ésta una conclusión que puede tener importancia diacrónica, las formas bipersonales de las tripersonales dentro del primero" (MITXELENA, 1954, 29. or). Hala ere, denboraren ibilian, —e— markak adierazten zuen datibotasun honen kontzientzia galduz joan zen; subjuntivo aditz forma batzuetan, zenbait idazleneren usadioan, XIX. mendetik aurrera gutxi gora behera, *a/e* nahasketak ematen da, baina ez indikatiboakotan; hala ere, ez dirudi hiztunentzat NNN aditz jokoko —e— horrek datibotasunik ageri zuenik. Irigoyenek dioenez, "De los autores citados, Moguel, el de "Perú Abarca", Prai Bartolomé y Uriarte no usan en las formas de subjuntivo la característica de dativo, *e*, confundiéndose algunas formas no dativas con las que lo son. En el modo indicativo siguen utilizándolo, pero se hace necesario suponer que estos autores no tenían conciencia de su valor y utilizaban dichas formas por pura tradición, tanto oral como escrita. Los demás autores estudiados hacen la diferenciación y en el subjuntivo existen formas en oposición" (IRIGOYEN, 1958, 129. or). Beraz pentatsu behar da XIX. mendearren erdi aldetik aurrera bederen, *e/a* oposaketa bakarrik gordezen zuela hiztunentzat esanahirk orain aldia eta iragana bereizteko; izan ere, aurrerago ikusiko denez, *dautsat*, *daust* bezalako formen erakuntzaren eritziz honek izan zuen pisurik handiena, hots: *eu* erroa iragan aldirako utzen da, eta *au* aukeratzen, gainerako aditzetan bezala, orain aldirako.

10. Hiperbizkaieraren zabalzearekin batera, hau da, aipatu diren aditz formen hedatzearrekin batera, beste zenbait gertakari ere ageri ohi dira: adibidez, *urtzen*, *igonten* aditzak laguntzailean iragangaitzken erabiltseko joera, edota, joskera mailan, galdera hitzez osatutako menpeko perpusean arbutuaz. Hala ere, aditz laguntzailearen arazora mugatu gara batik bat, lana gehiago ez zaitzarren. Dena dela, aukera izan dugunean behintzat, gai hauei buruzko oharrak egin ditugu; eta hauek nahikoak ez direlarik ere, uste dugu aditzaren azterketaren bidez itxuratzen den ikerketa bidea baliagarri gerta daitekeela baita aldameneko hauei buruzko lanak burutzeko ere.

Hiperbizkaieraren sorburuetara jotze horretan, hau da, gorago aipatu diren ezaugarri hoiek lehenengo aldiz noiz eta non ageri diren aztertzean, euskara *gai* duten zenbait lan aurkitzen ditugu. Euskal literaturarekin baino lehenago, beraz, euskalaritzaren, euskal gramatikagintzaren alorrean sorturiko zenbait eritzi eta hipotesirekin egiten dugu topo. Hain zuzen ere, hoiek ditugu hiperbizkaieraren hazia. Gero, literatur hizkuntzan landaturik, kimu horrek gero eta barrene-rago sartuko ditu bere sustraiak, azkenik bizkaieraren (hots, bizkaiera osoaren, bai idatziaren edo ahozkoaren) izateari buruzko eritziak eurak ere baldintzatuaz¹¹.

Lan horretan, iturburu diren ideia hoiek aztertu nahi izan dira batez ere; ez hiperbizkaieraren ezaugarri diren aditz-formen agertze-maiztasuna edo era-bilera. Erantzuten saiatu garen galderak hauek lirateke: nola sortzen den hiperbizkaiera, eta, oroz gain, zergatik, hau da, zeren izenean bultzatzen diren aditz lagun-tzaileari eragiten zaizkion aldaketak. Ikusiko dugunez, jokabide guzti honen atzean datzan azken arrazoia, euskarari buruzko eritzi oso bat litzateke: *euskara garbia*, edo, kasurako, *bizkaiera garbia*. *Garbia*, hau da, akatsik gabekoa. Helburu hau erdiesteko xedearekin sortzen da hiperbizkaiera, bada: zetakarik gabe-ko, hutsunerik gabeko bizkaiera eredua eraikitzeko zedarriarekin.

2. Lanaren Laburpena.

Hiru saiok osatuko du orain aurkezten dugun lan hau. Ikergaiok aukerat-zean, helburu nagusi bik gidatu gaituzte. Lehena, dagoeneko adierazi duguna, hiperbizkaieraren iturriak hautemateko xeedea. Bigarrena, eredu honek literatur hizkuntzan ezagutuko zuen arrakasta azaltzeko asmoa.

Hiperbizkaieraren iturria, hau da, literatur bizkaieraren aditz morfologia gramatika (eta are filosofia) eritzien arauera itxuraberritzeko saioa, R.M. Azkueren *Euskal-Izkindean* gauzatzen da. Jakina da, bestalde, saio honek (ez bere zehetasun guztiaren baina bai funtsen, azalduko denez) eskola eta joerez gain-diko arrakasta ezagutuko zuela XIX. mendearren azken urteetatik aurrera: bai Aranaren eskolakotzat jo ohi diren idazleak, eta baita ingurune hortatik lekora zeudenek ere, onartu eta erabili egin zuten hiperbizkaiera literatur eredutzat. Honengatik, bada, ezin saihestuzko arazoa zen, hiperbizkaieraren hastapenen berri ematerakoan, Arana Goirik, Azkueren garaikideak, hiperbizkaieraren garape-nean izan zuen lekua, eta oro har, *aranatarren eskola* deitu ohi den taldeak eredu honi dagokionez hartu zuen bidea.

Asmo orokor hauen eraginpean, Bizkaiko Aldundiak 1888. urtean sorturi-ko Euskarazko Katedrarako lehiaketa, eta lehiaketa-ondokoak bilduz eratu ge-

11. Honen haritik, uste dugu azpimarratu behar dela hiperbizkaierak, hots, literatur eredu bezala aurreko urteetan bizirik irau duen joera honek, euskal dialektologian izan duen eragina, bereziki bizkaierari buruzko ikerketeta eta inkestetan. Alde batetik, gerra aurrean egindako inkestak baliazoa berraztertu beharko litatzekela esango genuke, zeren, maiz, fidagarriegi ez diruditzen datuak eskeintzen bait dituzu. Irigoyenek *dau*- moetako NNN aditz formez dioena jasotzen dugu, adierazgarri gertatzen bait da: (Azkuek eginkiro inkestetako ari delarik) "Todo esto después de haber recorrido un buen número de pueblos pertenecientes al dialecto vizcaíno y no recoger flexiones con la característica a más que en Orozco (en Orozco y Barambio, dice la "Morfología", p. 703, pero en el manuscrito no figura Barambio como pueblo investigado), y éstas muy dudosas, pues en el flexionario manuscrito donde iba anotando las formas que oía, en la columna referente a Orozco aparecen en la misma página más formas con características e que con a" (IRIGOYEN, 1958, 130. or.). Asko luza daitetako dialektoologia inkestetako edota lanetan aurkitu ohi diren aurreeritezkiak baldintzaturiko datu-irakurketa zaldantzagarrion aipuak; hala ere, azken bat ekarri nahi nuke horretara: duela arte gutxi kaleratzen den dialektoologia liburu bat, datu-biltzar baino besterik eskeintzen ez duen arren eztabaidagarri begitantzen zaiguna, guri dagokigun ezagutza neurrian bederen. Delako liburu horretan, *dita* batuzko formaren *daus* ordaina Ondarrun erabiliz ohi dela esaten zaigu, eta ez da beste aldatzik aipatzzen; aitzitik, guk ezagutzen dugun Ondarruko hizkeran bederen, *dottu*, *itu*, *doitu* edo antzekoak ageri dira bakarrik. (Ikus Gaminde, *Aditza Bizkaieraz I.ko lib.* Iruñea: 1984, 320. or.).

nuen aurreko saio bat (ik. Laka 1986a). Jakina denez, Unamunoz gain, Arana eta Azkue aurkeztu ziren, besteren artean, lehiaketa honetara, eta Azkue irten zen garaile. Hain zuzen ere, *Euskal-Izkindea* Katedran egindako lanen ondorioz, eta Aldundiak berak argitaraturik kaleratu zen 1891.ean. Lan haren xede nagusia, Katedrak Arana eta Azkuerengan izan zuen eragina aztertzea zitekeen, hau egikizun zen neurrian bederen. Lehenik, Katedrarako lehiaketaren gorabeherak azaltzen ziren, eta baita gazte bi hauentzat lehiaketa honek zuen garrantzia, kontuan izaki zein zen garaiko kultur giroa eta bizkaieraren (edo oro har euskara-ren) egoera. Ondoren, Katedraren lehiaketa galtzeak Aranagan suposatu zuena aztertzera abiatzen ginenean; honetarako, Katedraren historia egitean erabili ez diren zenbait argitasun bildu genituen: batetik, duela zenbait urte Muga aldizkarian agerturiko Aranaren gutun bat, gai honen gainean; bestetik, Aldundiko administraritza artxibategian gordetzen den Aranaren eskuizkribu bat. Gure eritziz, Aranak bere egitamu politikoaren barnean biltzen zuen hizkuntza arautze-ko boterea lortzea, eta lehiaketa honetan garaile ez irtetzea, zentzu honetan, be-re burruka politikoaren atzerapausu bezala hartu zuen. Honela azalduko litzateke, edo honek azaltzen lagunduko luke, Aranak Azkueren proposamenen aurrean agertzen zuen jazarkundea. Hasiera urte hauetako Arana eta Azkue ez ziren, gure eritziz, gerora izango ziren bezainbateko ezberdinak: hizkuntz alde-tik, bederen, Azkuek aditz mailan eginko proposamenak oso ongi ahoka zitez-keen Aranak helburutzat zeukan hizkuntza garbiarekin. Beren arteko desados-tasunaren iturria (eta esan dezadan 1900.erarteko tarteaz ari naizela orain), hizkuntzaren alorrean gauzatzen den arren, hizkuntzaz kanpoko gorabeheriei lotuago zegoela uste dugu: hizkuntza arautzeko boterea lortzeko ahalegina litzateke, bada, bien arteko eztabaidea iturri hau. Azkenik, Azkueri dagokionez, Katedraren erdiestek bere bizitzak aurrerantzean jarraituko zuen ildoa itxuratu zuen. Bes-talde, eta kontrakoa badirudi, Katedrako lanetan aritzeak, bere hizkuntzazko eriti platonikoak, nolabait esateko, ematu egin zituen. Honen frogagarri, Aldundian aurkeztu zuen lehen ikasketa programa aurkezten genuen, *Izkindearekin* ageri-ko loturak dituena.

Oraingo lehen saio honetan hiperbizkaieraren jaiotzaz dihardugu hertsia her-tsian; hots, *Euskal-Izkindeak* eskeintzen duen aditz sistemaz. Bertan erakusten saiatu garenez, *Izkindeak* gauzatzen du hiperbizkaiera, baina gramatika honek iturri nagusi bat du: Astarloaren lana. Izan ere, *Izkindearen* egitamua Astarloaren ideien frogatzea litzateke, hots, durangarrak erizpide filosofikoen arauera, baina hizkuntzazko datu gutxi bilduz eskeintzen duen tesia, hizkuntza beraren erregeletan gauzatzea. Gauzatze honen ondorio litzateke, beraz, hiperbizkaiera. Azkuek, bere gramatikan, euskara *giza-izkeria*, hots, hizkuntza naturala edo lehen hizkuntza dela erakutsi asmo du. Euskararen izate miraritsu hau, aditzean age-riko litzateke bereziki: euskal aditza (nahiz Azkuek bizkaierazkoa soilik hartzen duen hau frogatzeko) erregularra, analogikoa eta erabat naturaren legei egoki-tua da. Izan ere, hiperbizkaierak aukeratzen (edo sortzen) dituen aditz formak, erregulartasunaren arauera hautatuak ditugu, analogia zahartasun froga delako usteaz.

Bigarrengoa saioan (Laka 1986b) garai hau aztertzean saihestu ezina gerta-tzen den Sabino Aranak hiperbizkaieraren garapenean izan zuen lekua aztertzen dugu. Lehenik, Aranak euskalaritzan jorratu zituen gaiak zeintzu izan ziren zehazten saiatu gara. Aranak, izan ere, hitzen alorra hartu zuen gaitzat batik

bat; ezer gutxi landu zuen morfologiaren eremua, edota joskerarena. Beraz, ez da bere lanetan, bidenabar ezbada bederen, aditzari buruzko, eta bereziki aditz morfologiari buruzko azterketarik edireiten. Hala ere, oharretan banaturik bazen ere, gai honetaz aurkeztu zituen eritziak biltzen saiatu gara, eta hau gutxi izaki hiperbizkaiera jaioberriarekiko zuen jarreraz jabetzeko, bere euskal testuak aztertu ditugu. Azterketaren ondorioz ikus daiteke Aranak ez zuela 1897. urte-rarte Azkuek eskeiniriko eredu erabili; eta erabiltzen hasi zenean ere ezin aurki daiteke eredu horri buruzko oharrik bere idatzietan. Aranaren jokabide honen argitara pentsa liteke ez zela oro har jabetu *Izkindeak* egiten zuen eskeintzaren xedeaz, hots, aditz mailan ere bizkaiera garbitu beharra zegoelako eritziaz. Areago, abandonatarraren zenbait pasartek adierazten bide dutenez, Aranak uste zuen Azkuek eskeiniriko aditz sistema Bizkaiko eskualde batean hitzegiten zena zela. Bu-kaeran, Aranak aditzari buruz hil ondoan bukatu gabe utzi zuen lana aztertzen dugu.

Azken saioa (Laka 1986c) Manuel Arriandiagari eskeiniko diogu. Uste du-gu inolako gehiegikeriarik gabe esan daitekeela Arriandiaga *Aranatarren eskola* deitu izan denaren sortzaile nagusienetako bat dela. Haatik, ez da hori oro har berataz aritzean aitorrtu ohi zaion lekua. Arriandiaga dugu garbizaleen taldeko teoriko nagusia, morfologia, eta bereziki aditz morfologia arazoetan. Erakus-ten dugunez, Arriandiaga Azkueren ikaslerik atxikiiena izan zen; *Izkindearen* mi-reslerik sutsuena. Mireste hau ez zen aitzitik itzali irakaslearen izena aldatu zue-nean. Izan ere, Arriandiagaren lanak *Izkindearen* egitamua areagotze saio bat lirateke azken batean. Beraz, *aranatarren eskolak* izena ematen dion egileagan-dik jaso zituen hiztegi alorreko joera eta eritziak, baina morfologiari dagokio-nez, aditz laguntzaileari buruzkoetan, Azkueren ondarea da jasotzen duena, Az-kuere gaztearen ondarea: *Euskal-Izkindearen* emaitza. Guzti hau Arriandiagaren lanak aztertzean frogatzen arren, bada argibide ziurragarik, lanaren eranskin gisa (Laka 1986d) aurkeztu gogo ditugunak: batetik, Arriandiagak idatziriko es-kuizkribu argitaragabe bat, aditzari buruzkoa, bere ondorengo lanen hazia, eta *Izkindearen* eredura eginikoa erabat; bestetik, Arriandiagak Azkuerei zuzenduri-ko gutunak, zeinetan ageri baita norainokoa izan zen bien arteko lotura: irakasle-ikasle artekoa.

Honenbestez azaldu ditugu lanaren nondik-norako handienak. Aitzitik, buka-tzeko, bertatik atera daitezkeen ondorio nagusi biak laburbildu nahi ditut ondo-ren, nolabait defendatzen ditugun tesiak zeintzu diren agertu asmoz.

Lehenik, hiperbizkaieraren iturburuei gagozkielarik, aipagarria begitantz-en zait P.P. Astarloak eredu honen sorreran duen erabateko itzala. Izan ere, hiperbiz-kaiera Astarloaren tesi eta eritzien gauzatze bat baino besterik ez genuke, bere muinean bederen. Honela bada, XIX. mendearen azken urteetatik aurrerako biz-kaiera idatzia Astarloaren lanen upta beranta genuke: hiztegi aldetik, Aranak burutzen du, neologismogintzaren bidetik, haren soinuen berezko esangurari buruzko ideia; morfologia aldetik, eta are joskerarenetik ere, Azkuek jasoko luke durangarraren ikuspuntua eta pentsamoldea, horren arauera aditz laguntzailea itxuraberrituz. Astarloaren lana da, beraz, XIX. mendearen amaieran gorpuz-ten duena aurkakotzat aurkeztu izan diren euskalari bi hauek zubi dituelarik: hiztegiari dagokionez Arana; aditzari, aldiiz, Azkue; biak, halere, egitamu bera-rekin: ahalik hizkuntza garbien, osoen eta akatsik gabekoena erdiestea.

Bigarren ondorio nagusi bezalakoa, hiperbizkaierak bere abiapuntutik aurrera egiten duen ibilibideari legokioke. Izan ere, hiperbizkaieraren arrakasta tarroente-tako bat abertzaleek onartu eta erabili zuten eredu izatean datza; lanean ikus daitekeenez, Aranak jaso baino besterik ez zuen egin, bere azken lanetan, Azkuek bultzaturiko bide hau. Hala ere, garbizaleen inguruan *Izkindeak* urraturiko zidorra zabaldu eta areagotuko zen, hiperbizkaieraz gaindi, halako hiper-euskara bat ere sortzeko saioak eginaz. Horrelakoak ditugu Arriandiagarenak, edota Soloeta Dimarenak. Talde honek hartzen du beraz, sekula egilearen ize-nik aipatu gabe bada ere, *Izkindearen* lekukoa; lekuko hartzé honetan Manuel Arriandiaga agertzen zaigularik, bere benetako irakaslearen izena ukatu arren, oinordeko edo premu.

* * *

EUSKAL IZKINDEA. ADITZAZ.

Pero lo que Azkue quería era precisamente esto, restaurar, por ejemplo, el verbo vasco, como se restaura un edificio o un cuadro: borrar en la lengua las injurias del tiempo y desempañar el brillo original del instante mismo de su creación.

(L. Mitxelena, *Fuentes del diccionario de Azkue*.)

0. R.M. AZKUEREN GAINLEAN.

R.M. Azkue euskalaritzaren ardatz erraldoia izan zen bere lehen lanetatik (1891), hil arteraino (1951), hain zuzen euskararen batasunerako bidearen zatirik garrantzitsuenetakoan: lehenik, bizkaiera idatziaren bateratze lanetan ihardun zuen, eta Euskaltzaindia sortuz geroztik, euskara osoaren batasunera eramango zutenetan. Zeregin larriak izaki hauek, halakoak dira Azkuek utziriko emaitzak ere: “Increíble que aquello sea obra de un hombre solo”, Olabidek behin esan bezala¹².

Asko da mende erdi luze hartin gizon bakar honek eginikoa; asko eta askotarikoa: gramatikoa, hiztegintza, ahozko tradizioa... Bere lanez aritu den orok aitortu dio handitasun hau; Mitxelena irakasleak era berean aurkezten digu Azkueren ekarria:

En manera alguna puede decirse que la obra, de inmensas proporciones, de don Resurrección María de Azkue no haya sido debidamente estimada, dentro y fuera del país. Lo fue ya mientras vivía y ahora, a los quince años de su muerte, no parece que la reputación de que gozó en vida muestre la menor señal de disminuir. Más bien se diría que es ahora precisamente, pasado casi el período crítico en que la fama ganada con demasiada facilidad se disipa y desvanece, cuando las verdaderas dimensiones de su obra empiezan a dibujarse en su auténtica grandeza (MITXELENA 1970, 17).

12. OLAVIDE, “Lexicología y lexicografía” in *Primer Congreso de Estudios Vascos*, 451. or.

0.1. Garaia heldu doa, azterketa sakonari ekiteko, lehen urteetako laudorioez gaindi. Horixe da, izan ere, euskalaritzak Azkuerekiko duen zorra betetzeko modurik egokiena; ezinbesteko zeregina dugu, berak utziriko ondare joria ezagutu eta aztertza¹³.

Azkue hiztegigilea da agian hobekienik ezagutzen duguna egun, Mitxelena irakaslearen lanei esker¹⁴. Aitzitik, ezin genezake esan Azkueren lan guztiak hiztegiaren adineko arretaz aztertu direnik; Euskal gramatikaren alorrean egin zituenak, adibidez¹⁵. *Euskal Izkindeatik Morfología vasca*-ra doan bidea ibili beharra dago Azkueren emaitza bere neurriean antzemateko: iturriak ezagutu, hizkuntzari buruzko eritziak eta baita garaiari zor zitziona. Honetako lan bat, esan gabe doa, oraingoan aurkezten dugunaren mugetatik kango dago; baina espero dugu, halaz ere, bidearen lehen urratsak egitera lagun dezakeela bederen.

0.2. Urte asko dira *Euskal Izkindeatik Morfología*-rarteko tarte horretan igaro zirenak; asko izateaz gain, norabide aldatze sakona eragin zuten Azkueren lanean. Tardean burutu zuen bere hiztegia, literaturaren ondarea eta ahozko hizkuntzarekin zaletasuna sortu ziona¹⁶; tardean orobat, zenbait liburu eta aldizkari: euskara irakastekoak, ipuinak, itzulpenak... eta etengabeko aritze honetan Azkueren eritziak, iturriak, jokabideak, aldatuz doaz behin eta berriz. Ez da harritze-ko, bada, bere gazte-lanetatik azkenekoetara dagoen aldea; hor dauzkagu, esa-terako, “Txukuneria” izeneko artikuluskan eskeintzen dizkigun burutazioak, bere bilakaeraren erakusgarri:

Orain zar edo beintzat zaxko geranok mutil gazte ginanean, etzan monja erizainik kalerik kale egun auetan bezela ikusten. Gaitz itsaskoén bat —esaterako, baztanga naiz suka-fustela (tifus)— norbaitek zuenean, len gaitz oriek izandako bat edo bat eramatzen zioten gaixoari laguntzat... Baztangadunen etxeen aurpegi zulatudun gizon bat bein baino safiago ikusi dugu atezain.

(...)

Beronen ofíak irakurtzen asi ta laxter, erdi aspertua nintzalarik, neronen buruari galde au egin nion. “¡Zer dala-ta bizkaferatu otedidate lan au irakurtzeko arloa neri, onelako asmo-tarako zaletasunil eztudan oni?” Erantzunik etzetorkidan. Beste ofí banaka batzuren befi artu nuenean, pañiriz erantzun au eman nion lengo galde ofí. “Ik ere gaztetxo intzanean ire zainetan ta batez ere lumatxoan txukuneria izan uelako eta baztanga bein izan duenak bigafenez izaten ezomenduelako, ofengatik eman didatek eri-arteko egikizun au. Ezadi or-dea bildur izan, ezadi kikildu, eri onezaz ezaiz ilko ta ekiok gogoz lanari” ta lanari gogoz ekin diot¹⁷.

13. Honi dagokionez, neureak egin nahi nituzke Mitxelenaren hitzok: “Bere legeak ditu jakite-lanak, lege jakinak eta berberak non-nahi. Aurrekoel era soharrerik diegu, haien lanak aztertu behar ditugu, ahalik ongi beharrezko, garbitzeko, murrizteko nahiz ugariutzeko. Begiramenaren zor diegunekin bakarrik egiten dugu lan hori, eta zor diegun begiramenaren arabera. Eta Azkuera adina inor gutxiri zor diogu euskaldunok” (MITXELENA, 1970, 9. or.).

14. MITXELENA, 1970. Hauxe da, izan ere, Azkueren emaitza aztertzeko egin den saiorik sakon eta osoena. Bertan ematen da Azkuera buruzko lan eta ikerketen berri (17. or.).

15. Azkueren gramatika-lanez ezagutzen ditugun idatzia eza. Oro-harreko ikuspegia bat aurki daiteke ARANA-MARTIJA, 1983-en, “Azkue hizkuntzaria” kapituluan, eta VILLASANTE, 1979-an. TOVAR, 1966, ezagutu beharreko lana da, ez bakarrik Azkueregramatikalariaz jakiteko; *Izkindea* arretaz aztertzeko egin den saio bakarrenetako da. Era berean, MITXELENA 1970, batik bat 1.4 eta 1.5 atalak; laburraga izanagatik. Azkuere hizkuntzalaria eritzit eta baldintzak ezin hobeki laburritzelen dira bertan. Orobat TOVAR, 1952.

16. *Euskal Izkindearen* argitaratzearen ondoren jasotako kritikek bultzatu zuten, hain zuzen, hiztegian sartzen zituen hitz guztiak ematera, hizkuntzan *erabilíak* zirela frogatzena: “Vive, perpetuo caballero andante de nuestra literatura, un notable vascófilo que me dió un buen palo como á padre de mi mencionada IZKINDE, no por su traducción, que no se le alcanzaba al crítico, ni por las formas verbales que extraídas del fondo de la lengua vivieron un día en mi pluma y trascendían entonces sus alcances, sino porque, tratando una lengua viva como viva, expuse como ejemplos frases que todos los días llegaban á mis oídos. Y haciendo de la contusión advertencia me propuse anotar no solo la obra en que leía las palabras y modismos que iba atesorando, sino hasta la página y línea en que se encontraban; además del dialecto á que pertenecía lo que cogía al vuelo, también la localidad en que tal se decía; prefiriendo esta última autoridad, verdadera soberanía en nuestro caso, á la primera” (AZKUE, 1906, IX-X. or.).

17. AZKUE, R.M., “Txukuneria”, *Euskera*, 1925, VI (2-3 zenb.), 4. or. Artikulu honetan, Azkuek Soloeta-Dimaren *Ensayo de la unificación de los dialectos báskos*-en erreseina antzeko bat egiten du, bidenabar bere *Euskal Izkindea* eta ondorengo saio garbizaleak kritikatuz: “Euskalari befitzale”

Alde nabarmena dago, egon ere, Azkueren gaztaroko lanetatik, helduta-sunean burutu zituenetara; Tovarrek (1966, 72-73) esan bezala, “hay que celebrar en Azkue que no se mantuviera siempre en sus conclusiones. Supo conservar éstas casi siempre provisionales, y su deseo de conocer lo llevó una y otra vez a revisarlas”. Dena den, bere jokabide eta eritzi asko aldaturik ere, gizon bera dugu gaztaroko eta helduarokoa; Azkue bakarra da *Euskal Izkindea* herriaren usadioa eta literatur ondarea arbuiatzen duena, eta *Morfología Vasca*-n bere esan guztiak halako herritan edo halako idazlek erabiltzen duela azpimarraturik ari zaiguna. Kontraesana badirudi ere, Azkue garbizalea eta Azkue populistaren artean bada hari bat behin ere eteten ez dena (eta gramatika lanez ari naiz bereziki), zenbait ezaugarriren bidez antzeman daitekeena: erregulartasunarenakiko zaletasuna, hizkuntzaren lehena, garai zaharra hobesteko joera... Azkueren gramatika lanak ahalik zehazkien ezagutu beharko genituzke, ez bakarrrik bizitzaren ibilian galdu zuenaz jabetzeko; baita gorde zuenaren berri jakin ahal izateko ere.

0.4. Ondoren aurkezten den lana, zer esanik ez, itxuratu dugun egitasmo hori baino askoz ere apalagoa da; atal txiki bat baino ez. Gure asmoa, Azkueren lehen gramatika, *Euskal Izkindea* aztertzea da, batik bat bertan itxuratzenten aditz sistema, garaiko bizkaira idatziaren ereduan eragin handia izan zuen. Halaber, *Izkindearen* (eta ondorioz bere aditz sistimaren) iturriak zehazten ahalegindu gara.

Gure lanak ez du inolaz ere Azkuek “mi pobre primogénita” deitu zuen gramatikari buruzko azterketa oso bat burutzen; ez da hori bere helburua. Asko eta asko dira oraindik lantzeko gelditzen direnak *Izkindeari* dagokionez, eta gutxi da orain arte egin zaion jaramona, gure aburuz bederen. Aitzitik, uste dugu liburu honen azterketa osatu batek baduela, ezbairik gabe, interesa franko: bai gure hizkuntzaren bilakaerari dagokionean, eta baita euskal gramatikatradizioaren alorrean ere.

EUSKAL-IZKINDEAZ

1.1. Hiru urtez Bizkaiko Aldundiaren Katedran lanean ihardun ondoren presstatutako gramatika liburua dugu *Izkindea*. Haatik, liburu hau ez zen Bilboko Institutoaren orma barnetan soilik erabiltzeko idatzi: Bizkaia guztiari eskeintzen zaio, bizkaira berriaren, “garbiaren” gramatika bait da¹⁸.

Laka 1986a-n erakutsi dugun bezala, Aldundiaren Katedrak zuen garrantzia, ezer baino gehiago, euskal lanen eragingarri bezala izan zezakeen indarrean zetzan, eta baita bizkaira idatzia arautzeko aukeran, Aldundia bezalako era-kunde publiko batek eskeintzen zuen ofizialtasunagatik. Honela, bada, Azkuek,

txukuneridun-artean ufutiren yoan zaiguna A. Soloeta dela uste dut. Ofetarako dituen kemenia ta zaletasuna aundiak izanaen, etzen noski bide leguentik ainbeste irtengo, ausekikoak izan ezpalitu: nerua bat, nerekin bateratu besteren bat eta aien ondoren eli osoa, berizale-mordo andi ugaria” (14. or.).

18. Lehen esan dugun bezala, ez dugu *Izkindea* bere osotasunean aztertzen. Hemen egiten dugun sarrera honestan, gure lanaren harirako azpimarragarrien begitandu zaizkigun aldeak ikutu ditugu, baina, zer esanik ez, asko da egiteke dagoena. Adibidez, ez dugu uste gehiegiz zabaldu diren *Izkindea* bezalako saio batek dituen alde argitsuak, beti egotzi ohi zaizkion itzalen mende gelditu ohi direnak. *Izkindea*, aukeratzen duen hizkuntza eredu aora behera, hizkuntzaren jokabidea azaltzen saiatzen den euskal gramatika bakarrenetako da; inguruko gramatiken mende aritu gabe, euskalarren egituratua abiatuta euskara azaltzen saiatzen dena. Sakonago aztertzeko daukeke, baina, *Izkindeek* aurrekoei zor diena, eta hortik aora urratzen duena.

denbora asko igaro gabe ematen du argitara bere lehen lan hau, lehena izanagatik ere behin-behinekotzat ageri zaiguna itxuraz behintzat. Izan ere, bizkaiera arautu eta txukundurikoa bait da *Izkindeak* agertzen duena. Gramatika hau behin-behineko mugarrria litzateke: bizkaiera garbiaren mugarria¹⁹.

Mendea ia betea bere ondoren etortzeko zena ezaguturik ari den azterzailearen baino areago, esan genezake Azkuerena beraren dela garai berri baten bi-de urratzailea delako kontzientzia hau. Azkuek “Bizkaiko lenengo euskal irakaslea” bezala aurkezten digu bere burua; lehena izaki, beraz, badu nolabait bere herriaren historiarekiko erantzunkizunik; horretara dator zuzen zuzenean, *Izkindearen* atarian “Bizkaiko Ekautari” egiten zaion eskeintzan irakur dezakegun erosta:

Ni iaio nintzanean’ Bizkaiak bere legeak eta bere erritasuna eukazan; Gernikako zugazpean noizik noizera batzartutenean bere aldunak edo semerik maiteenak... Lotsagarria izango litzake Bizkaitar iaioriko gizaldia Bizkaitar il ezalizatea... Gaur Bizkaiko iauregi zarean eta zugatz maitean inguruetañ t’sori negarti batzun t’sioak baino ezdaiz entzuten. ¿Inor ezaldai bizi iauregi zar orretan? ¿Nor gerizpetuten dauk ik’ lurreko zugatzik entzutetsuen orrek?²⁰

Foru-inausketaren ondoren idatziriko hainbat eta hainbat hileta-kantaren zantzua darama eskeintza luze honek; haatik, ez da negarra bakarrik Azkuek eskeintzen diena irakurleei. Honek bereziko luke Arrese Beitia eta garaikideen jarreratik, Arana-Goiri eta inguruko aldamenera biltzen duelarik: Iraganari begira (baina ikusiko dugu zein iraganez ari garen), etorkizun berria itxuratzeke ordua heldua dela aldarrikatzen du belaunaldi gazte honek:

Euskaldunak, gomutarazo atzo zintzazan guztia, gaur nortzuk zaizan ikusi eizu, iruditu daigun’ ezelan albadagu’ biar zer izateko gagozan (“Bizkaiko ekautari”).

Garai berri horren atari-antzo aurkezten zaigu *Izkindea*, Bizkaia eta euskaren berbiztearen aitzindari. Zentzu honetan, *Izkindea* gramatika bat baino gehiago litzateke: Bizkaieraren biztuerari zegokion euskara “berbiziua”ren liburua.

1.2. *Izkindea*, Euskaraz.

Berbizte horretan Azkuek lekurik gorenean jartzen du euskara, eta honen frogarik garbiiena *Izkindea* euskaraz idatzirik egotea da, hain zuzen. Honetan, zinez eta benetan ageri zaigu Azkue aitzindari gisa, *Izkindea* bait da euskaraz argitaraturiko lehen gramatika liburua. Ez gaude, beraz, erdaratik euskarara itzulitako lan baten aurrean, baizik euskaraz lehenik eta gero gaztelaniara bihurturiko liburu mardul baten aurrean. Azkuek berak azaltzen ditu honen ondorioz izan zituen zailtasunak:

Erderaz’ orainarteko izkirralariak legez’ izkinde au izkiratu baneu’ arazu ta buruauste gitxiago emon izango eustan nire asmoak, eznintzan itz barririk sortuteko peremina latzean egongo, liburu bi baten ipini bearrik bere ezneuan izango, eta ganera nire lantso onek euki-ko dauzan arerio askok’ abegi obea egingo eutsen (op. cit. vii).

19. “EUSKAL-IZKINDEA egin nuanean, Larramendik bezela ‘en adelante onelaxe izango da Bizkaiko euskalkia’ enituenean itz auek liburu artan ezati; baina neronen buruari esaten nion: ire ikasleak ire asmo auek ikasi ta zabaltzen asitakoan, urte batzuk barfu gaurko euskera sastua, Bizkaian beintzat, garbi-barbi, txukun txukun ta yaio zenean bezain txau ta txuri yariko zaigu’. (AZKUE, ‘Txukuneria’, 61. or.).

20. AZKUE, 1891, “Bizkaiko ekautari”. Erka bedi Campionen gramatikaren lehen hitzakin: “Este libro es hijo de un movimiento de patriótica angustia” (CAMPION, 1884).

Buruhauste hoiek, zalantzak gabe, handiak izan zirela pentsatu behar dugu: ordurarte erabili gabeko hiztegiaz gain, hizkuntza berria, hizkuntza "garbia" jorratu nahi du, eta ondorioz aurreko tradizioaz ezin baliaturik moldatu beharréan aurkitzen da. Hala dirudi behintzat, aurrekoek egindakoaz idazten dituen hitzen arauera:

Ezbeie baina irakurleak' nire eritsipean inor menderatu nai dautanik' uste izan. Bide ezaun lau zuzen ta edegietatik ibili nai neuke' errazago ioan-etorria egiten dai-ta; eta egibila noanean bide okerrak' kroskaz beteak eta oitura itsuakaz basatu edo lokatzatuak topako badautaz ¿nor izango dai erruduna? ¿Euskaraari dagokion bide zuzena edegi nai daueña? ¿Ala lengo bide zar kroskatsuak eukiko daue errua? (op. cit. ix).

Zaitasun guztien gainerik, baina, Azkuek euskaraz idaztea erabakitzentzu du. *Euskal Izkindeaz* idatzi direnen artean, aitzitik, behar baino garrantzi gutxiago eman zaio ahalegin honi; izan ere, gehienera iota, aipatu baino besterik ez da egiten hauxe dela euskaraz kaleratu zen lehen euskal gramatika. Gure artean egun, begi bistakoa dirudi euskara ezer baino lehen erabiltzeko dela, hizkuntza den aldetik; Azkue ere bat dator eritzi honekin. Aukeratu zuen euskara eztabaidagarrri gerta daitekeen arren, aitortu beharko litzaioke *euskara* aukeratu zuela. *Izkindeak* akatsak dituenik ez du inork ukatu —are gehiago esango nuke gaingainekeko akatsik nabarienak direla maizenik aipatzen direnak—, baina edozein lanek bezala bertuteak ere aldamenean dituelarik, ez bide dira azken hauek gozoan izan Azkueren gazte-lan honi buruzko eritziak plazaratzean. Argi eta garbi azaltzen digu Azkuek, bere lehen liburu hau euskaraz izango zela edo ez zela izango:

Au gora bera' itz orrei musker begiratuko dautsenik balego' euskaraz izan ezik ezneuan ia izkinderik izkiratuko beki. Noiz edo noiz euskaraak bere' bere erraietan sorturiko arauen iaubea ta ama izan bear dau (vii-viii).

1.3. *Izkindearen Euskara Ereduaz.*

1.3.0. Euskal lana izateaz gain, *Izkindeak* euskarari buruzko eritzi oso bat biltzen du bere orrieta; Azkue gaztearentzat euskara zer zen erakusten digu, berak nahi zuen hizkuntzak zein eta nolakoa behar zuen izan, alegia. Hizkuntzari buruzko eritzi hauak oinarritzen dute *Izkindean* ematen zaigun bizkaiera eredu osoa, aditza barne. Euskararen konzeptio hau da, izan ere, *Izkindearen* bizkarrezurra, eraiketa guztiaren ardatza.

Euskaraz izkera-mueta bi dagoz: euskaraa bera bere izkerantzakaz, eta diartekoa; euskara garbia eta nastua. A bat dai' lau edo bost arpegiduna; beztea mila modutakoa. Nik aleginez euskara garbia arautu ta erakutsiko daut (viii.or.).

Edozein gramatikak, nahiz deskriptiboenak ere, hitz egiten den hizkuntzatik nolabaiteko abstrakzio bat egin beharra dauka, noski; aitzitik, Azkuek egiten duen banaketa hau, diarte-euskara/ euskara garbia, areago doa: axola dion hizkuntza, aztertu nahi duena, euskaldunez gaindi, denboraz gaindi dago. Berak bilatzen duen euskara ez da euskaldunen ahoetan bizi dena; hau, haren isladatze hitsa baino besterik ez litzateke, gero eta isladatzen hitsagoa:

z) Izengoitiak eta lekuen aitzak' *ea ia oa* eta *ua* euskarazkotzat erakusten dauskuez. Itz orrek asmatu itzazanean, gaur baino garbiago itz egiten euen euskaldunak; ezdau inork ukatuko. (...)

Ezdai nire ustez ikustaldi geiago bear' diarteko mugakeraa ta mugakera garbia igarri ezautu ta zeinduteko (98. or.).

Erabilerak, lehenetik orainerako bidean ibiliak, zarpaildu eta pitxatu egin du euskara, eta Azkue gazteak kalte guzti hoiek sendatu nahi lituzke. Aldapan behera amiltzen den hizkuntza, bere lehenera, hots, bere arorik garaienera eraman nahi du *Izkindeak*. Hizkuntzalaritza historikoaren aurreko garaien zantzu nabari da hemen. Hasierako Azkue honek, ez du oraindik ordurako ihardunean zebilen hizkuntzalaritzaren berririk; bere gaztaroko gida-liburueta koba tean bildurik zetorren, izan ere, *Izkindean* azken mugaino eramanik agertzen den erizpide biologista hau:

Las lenguas, lo mismo que los individuos, nacen, se desarrollan y mueren con arreglo á las leyes naturales, y con esto dicho está, inmutables. Cuando una raza determinada, por causa bien sea externa, o bien interna decáe, decáe asimismo su lenguaje²¹;

1.3.1. Hizkuntzaren bilakaera litzateke onartzen ez dena, nahi ta nahi ez okerrerakotzat jotzen bait dira aldaketak²². Honela, bada, euskara ez da, Azkue gaztearen eritzian, euskaldunek sortu eta aldatzen duten zerbaite. Euskaldunei eman zaie euskara, baina ez dute inolaz ere, jaso duten altxor horretan ikturik egiteko eskubiderik. Gorago ikusi dugun aipu batean, Azkuek aintzineko euskaldunen hizkera hobesten du, bere garaikoaren aurrean: "gaur baino garbiago itz egiten euen euskaldunak"; jatortasun hori, hain zuzen, aldaketarik ezean datza. Honen haritik, bada, aintzinako euskaldunak itxuraz aldatzen ez zen euskara mintzatzen ziren: euskara *garbiz*.

Honela, bada, *zu* izenordainaren jatortasunik ezaz ari delarik, oraina eta lehenaren arteko erkatzeari ekiten dio, hizkuntz aldaketaren aldetik: lehena, iragana, hobeak zen aldaketa gutxiago zeudelako; orainak, ordea, hizkuntza itxulaztu du:

Lengo ikustaldietan erakutsi dainez' *zu* diakoa dai' *i* bakarra; euskaraak lotsaz nai lautasesez itz eragiteko' izkera bat ez batek ezdaukan gaia dauka. ¿Langotasun bakan eder miragarrri ta iakintsu au ostikopetuta' ondo deritsoe euskaldunak 'extrangero-en modako cortesiak' tṣatsārak izan arren geuretuteari? (...)

21. CAMPION, 1884, 12. or. Ohar bedi bilakaera honen azalpenean biltzen diren implikatze historiko eta politikoak, jarraian azaltzen dizkigunak Iruñatarrak: "si otras razas han llevado más lejos que ella la cultura, la raza estacionaria se ve obligada á tomar prestada una porción de vocablos que desde luego revelan su origen exótico; si en el combate por la existencia ha sido vencida ó si las llamadas fatalidades históricas la han colocado al lado de otras razas más numerosas, y por consiguiente más fuertes, que de todas partes la cercan y estrechan, la raza subyugada ó acorralada pierde su idioma propio, ó éste sufre la gran influencia de los idiomas dominantes, alterándose y corrompiéndose". Hizkuntzaren egoeraz gainera, kontuan hartu beharko liratzeak, garbizaletasuna epaitzeko orduan (eta hemen *garbizaletasuna* bere zentzurik zabalenean darabilt), joera hauek sortzen diren garaiko kultur eritzik, baina inoiz ez norabide bakarra, hots, joera garbizaleta agertzen dutenen aldera, bestelakoetan ere kultur giro berean murgildurik ageri bait dira. Honi dagokionez, erabat ados nator J.A. Lakarrak apologistei, eta oro har antzerako agertzen diren hizkuntza jokabideei buruz aritzean dioenaz, ez bakarrak hona ekartzen dudan aipuz: "Hizkuntz eztabaikod interesatuak dira teke oraindik XIX. mendean ere, are honen bukaerantz jadanik hizkuntzalaritza modernoa sortua bazen ere. Simplegia, guziz okerra ez esatearren, iruditzen zait "La desmitologización" deitzea Unamunori dagokion atalari Tovarrek bere liburuan egin bezala. Egia da Unamunok bere 1884ko tesian aurrekoen tubalismu kantabrizmu eta bestetako euskaldunen eta euskarakaren etorki eta historiari buruzko mito gehienak suntsitu zituela. Alabaina, zientziaren izenean bada ere, berak ere badarakitzta zenbait mito berri: "norabide bakarreko" hizkuntz tipología ("un idioma aglutinante no puede ser nunca tan perfecto y claro como uno de flexión") eta herriren historia eboluzionista lotuaz, euskara Euskal Herriak aurrera egiteko galdu behar duen oztopo bat dela aldarrikatuko du behin eta berriaz". (LAKARRA, J.A. "Larramendiren hiztegi-gintzaren inguruak", in ASJU, 1985, XIX, 16. or.).

22. Hizkuntz-aldaketak gaitzesteko joera, erabat hedaturik zebilen hizkuntzalaritza historikoa sortu aurreko garaiaren. Mitxelenak dioenez: "Lo que no se acababa de comprender era el cambio lingüístico. No quería decir que no se comprendieran aspectos del cómo y del por qué del cambio, que todavía siguen siendo en buena parte oscuros, y por lo tanto discutidos, sino que no se acababan de percibirse, en primer lugar, de que el cambio, el devenir, no es un accidente, pensado por lo común como una catástrofe, que sobreviene a las lenguas, sino que está insrito en ellas, que es inseparable de su misma naturaleza" (MITXELENA, "Comparación y reconstrucción en lingüística", orain en *Lengua e Historia*. Madrid: 1985, Paraninfo, 88. or.).

Antzinako euskaldunen entzuteak' edonon gaur bere durundia egiten dau; eta ezeutsen euren aitztai *on-ik* ezarri, ezeuen inoiz *zu-rik'* ez *Berori-rik* entzun. (79. or.).

Noizkoak dira, baina, *antzinako euskaldun* hoiek? Ez dira literatur tradizioa sortu zutenak; *Izkindean* oso gutxitan aipatzen dira euskal idazle zaharrak (eta berriak), eta aipu urri hoiek beren hizkuntza gaitzesteko izan ohi dira gehienik; horrela gertatzen da, esaterako, Mikoletaren lanarekin, zaharra izanagatik arbuiatua dena:

Uste au dauken euskaldun batzuk bere badazautaz; onen artean Mikoleta-ko izkiralaria. Orain berreun urte' Izkinde izeneko bat izkiratu euan Bilbotar abade onek. Itz gitxitan errakune geiago ezdaut inoiz irakurri (88.or. 2.oh.).

Azkuek goraipatzen duen iragan hori, ez da inolaz ere iragan historikoa; atzerago kokatuko litzateke, erromatarra etorri aurreko garairen batean, agian. Euskal tradizio idatziaren gaitzeste honek luzaro iraungo zuen euskalarien artean, batez ere garbizaletasunaren ildotik zebiltzanen inguruau; pentsabide hau bikainki bildurik agertzen da Olabidek Azkueri bidalitako gutun batean:

Para hacer Van Eys esa repartición..., debía haber contado con alguna obra euzkca, de los tiempos íntegros del euzk^º, ... Pero desgraciadamente, no tenemos ninguna obra de esas: nuestros más antiguos monumentos literarios son de ayer y solo son apreciables en ellos las formas incidentalmente, acaso contra los prejuicios mismos del autor, y como restos del naufragio, vemos en ellos entre un mar de exotismos de dicción y de frase, que al par que la degradación de nro. idioma, demuestran por otra parte la genuina procedencia indígena de lo que allí queda sano en medio de tanta despreocupación literaria. A nosotros nos toca entresacar esas formas y materiales buenos de entre el montón de trapos sucios; ... (apud. IRIGOYEN 1957, 301-322).

1.3.2. Historiaz kango dagoen urrezko garaiaren bila abiatzen da *Izkindea*; garai hortako euskara berbiztu nahiean. Horretarako, bada, hitz egiten den hizkuntzak gordetzen dituen jatortasun-ondarrak bildu eta hiztunen axolakabekeria eraginiko sasi-bilakaerak baztertu nahi ditu Azkuek:

Onetarako' *edonongo esakeraak* euskarazkotzat eukiko daiz; *nonbaitekoak'* araua ostikopetutenean' euskaratutzat.

Gauza baten ganean oitura ostetu bi dakustazanean' biak al daitan zietzen astertuta gero' eta aragea itsita' araudun oituraa euskarazkotzat beti erakutsiko daut (viii. or.).

Garbitze eta apaintze lanaren ondoren bakarrik ezagutuko da *benetako euskara*, ikuturik gabeko euskara, zein den. Izan ere, berebiziko edertasun eta osotasa duen hizkuntzaren idoro nahiean dabilkigu Azkue; inolaz ere gizakiek sortua ezin izan daitekeen hizkuntzaren bila:

Euskaraa ezdai bezte izkeren antzeko aberatsa: aberatsa dai' edozein baino aberatsagoa eta ugariagoa; ezdai baina aberastasun au zatika batua' bere erraietan' gizonek zelan ezdakiala' sortua baino (152. or.).

Ez dute euskaldunek sortu euskara; ez dira beraz euskararen jabe. Zaindu eta bizirik gordetzeko altxorra litzateke areago, *Izkindearen* hasiera-hasierako hitzek adierazten digutenez:

Bizkaia' bezte askori legez' baituran emon eustan niri bere izkeraa; nik ezdaut zelanbait arautu baino bezterik egin: liburu au ezdai bada nirea, Bizkaikoa ta Bizkaina dai. ("Bizkaiko ekautari").

Hizkuntza delarik nagusi, hots, hiztunen sormenetik kanpo dagoelarik, hauek makurtu behar zaizkio hari, eta ez alderantziz. Azkue gaztearen hitzak irakurriaz, esan liteke ez dela euskara euskaldunen tresna, baizik euskaldunak euskararen mirabe. Campionek ez du bere euskararekiko begirunea azken mutur honetaraino eramatzen, eta bere gramatikan, izen morfologiaz ari delarik, honela dio:

Esto sería lo perfectamente lógico; pero COMO LAS LENGUAS SON CREACIONES ESPONTÁNEAS INCONSCIENTES, muchas veces se apartan de nuestra lógica de gabinete²³.

Azkueren erantzuna garbia da: berak ez du hizkuntzez hitz egiten, baizik euskarari buruz; ez du inolaz ere onartzen euskara horrela sor zitekeenik:

Arturo Campion-i bear dakion begirune edo itzaltasun guztiaz' eta bere izkindea irakurri ta izkinde au irakurten dagozanai gogorik zintzoenaz' oartso batzuk egingo dautsetaz.

a) Euskara' euskaldun askon aoan edo diartean zelanbait esainduta egonarren' ederregia zuzenegia ugariegia politegia ta andiegia dai' *berez* (garitzetako zalgia legez) eta *itsumustuan* (lotorditako [irakur —du—] itzen antzera) sortua daila esateko.

b) Geienean' geure arauetara eta geure gela-arteko adikerara euskaraa ezdaila mendetutenein dinogunean' geu ta geure adikeraa izaten gaiz bere arau miragarrietara mendetutenein ezgaizanok (113. or.).

Euskara, edo *Izkindeak* gaitzat duen euskara bederen, ez da gainerako hizkuntzak bezalakoa; bestelako izakia dugu; bestela eratu eta sorturikoa:

Burutasunak pilotu ta azpilduriko adobakiak daiz oraintsuko izkeron ondasunak. Euskaraak aberatsa ta iakituriz betea izateko' ezdau adobakirik bear; bere sustraietan ezdai gizonan burutasunik agiri (118. or.).

Bestelakotasun honen iturburuan datza, hain zuzen, Azkueren lehen lanaren muina; bestelakotasun honen arauera antolatzen bait da *Izkindearen* helburua. Euskararen bestelakotasuna, hizkuntza naturala (edo Azkueren hitzetan *giza izkeraa*) izateak ematen dio, sintaxiaren (edo *alkarmenaren*) atala aurkeztean dioskunetan:

Ezdakio Izkinde-atal oni bear dain bezte garransi emon, eta emon dakion apurra bere' bezte izkeretatik artu dai: gizako izkeraa ta gizonak itsurgeturiko izkeraak ezin bardin azaldu daizek: a ezdau gizonan burutasunen kondairaak ondo erakutsi al izango, bezte onei gizako legeak aurkeztutea alperreko saila izango litzateke (287. or.).

Hau frogatu nahi digu *Euskal Izkindeak*: euskara, XVIII. mendeko hizkuntzalari askok aurkitu nahi izan zuten hizkuntza naturala, lehen hizkuntza dela:

Euskaraa bere itzen erabidean gozoa' zietza' zolia' ta erraza dai: ikusita dago; ugaria dai bere gaietan, aberatsa' beste izkerarik ezlangoa, arauetan ezunerik bagekoa, iakituriz bete... itz baten: gizako izkeraa. Itzen Alkarmenean zelangoa dain iakiteko' araurik arau ta gertaririk gertari irakurlea eroango daut (288. or.).

1.3.3. Baieztapen honek berehala dakarkigu gogora Astarloaren izena; durangarraren itzala ezbairik gabe atzeman daiteke *Izkindean*, eta Azkuek berak jartzen du lehenik, irakasle izan dituen euskalariak aipatzean:

Ni geien argitu nauen izkiralariak' Astarloa' Zabala ta Campion daiz; eta euroi ezer kendu bage' neure ama maitea' bere ez-iakinean' izan dai nire irakaslerik onena. Guztioi eskerrak (ix. or.).

23. CAMPION, 1884, 256. or. Testuan agertzen den aipua, dena den, *Izkindeatik* hartu dugu, eta bertakoa da azpimarra (AZKUE, 1891, 113. or.).

Euskal Izkindean nabari den Astarloazaletasuna azpimarratua izan den arren, uste dugu eragin honek aitortu zaiona baino indar handiagoa duela. Gure eritziz, Azkue bete-betean jarraikitzen zaio Astarloaren egitasmoxari, batik bat *Discursos Filosóficos sobre la lengua primitiva* liburuan ageri den egitasmoxari: lehen hizkuntza, hizkuntza naturala, euskara dela frogatzea²⁴.

Honi dagokionez, *Izkindean* gramatika bat baino gehiago da, bere asmoetan bederen. Azkuek euskararen deskribapena baino haratago dagoen helburua erdies-tsi nahi du: Astarloaren tesia egiaztatzea litzateke, izan ere, *Izkindean* erakusten zaigun hizkuntz eredu hutsik gabearren zeregina.

1.3.3.1. Asko dira *Discursos* eta *Euskal Izkindearen* artean aurki daitezkeen antzekotasunak; asko, eta arras adierazgarriak. Astarloaren lana da Azkuek bere gramatikan aipatzenten lehenetariko bat; bigarrena, hain zuzen, *Peru Abarca-ren* ondoren: “Astarloak izkiraturiko *Discursos Filosóficos* deritšon liburu baten” dagoz itz onek ondo astertuta” (21.or. 7.oh.). Durangarraren lana da gehien aipatzenten dena *Izkindean*, eta beste idazleen eritzia, batzutan onartuak eta bestetan kritikatuak agertzen diren artean, Astarloarenak beti eman ohi ditu ontzat Azkuek. Onartzen du hizkuntzaren hotsek berezko esan nahia dutelako eritzia, eta eritzi honek berarekin dakartzanak: hizkuntza naturalaren hitzek beren errefe-rentekiko gordetzen duten egokitasuna, adibidez.

Astarloa-ko izkirralari iakintsuan ustez’ *a = eda' sendotasuna...* dai; *r = zirkina, i-k metasuna* esan gura dau.

A + r + i = Eadaan zirkin metua dai, bada. Izamena ez dai bezterik”.

Arin = ari + n (biguntasuna edo indar bagea) = *Izamenan biguntasuna*; eta gauza *arin + a* autse daila edonok daki. (...)

Antsinako Erromarrak’ *Izameneko aria* bizitzan eun eta eriotzan ebateko’ *Iru Parca* euren irudimenean sortu euezan. Euskaraz *ari'* *izamena* eta iruteko *aria* dai. ¿Erromarren ames polit agaz artuemonik etedauka? (55. or.).

Astarloaren oin-hipotesiak loturik dakarren beste eritzi bat, onomatopeien, *zarata-itzen* balioa eta edertasuna da. Honi ere eskeintzen dio Azkuek lehentasuna bere *Izkindean*; “Zarata-itzetan egoteak” izkeraa edertutene dau” (23. or.). Edertasun honen erakusgarri, beraz, zerrenda luze bat biltzen du: *tanta, dandarrez, kikildu, t̄sitsin, kirkil, t̄sirtsil, t̄sirrit...* (24. or.).

Hala ere, hitzen sorburua ez da Azkuek atsegin duen alorra; etimologiak, eta hauei loturiko arazoak ez dira sarri plazaratzen *Izkindean*, oharretan eta bakanka ez bada. *Izkindean* gramatika den aldetik, hizkuntzaren azaltzean, arautzean ari da, ez hitzen sorburu-bilaketan:

Ezdagoke Izkindariai izen sortuak zelan eratutene daizan astertutea: Asterrena etimologia deritšon iakinde baten ikasten dai erabide ori (52. or.).

1.3.3.2. Aditzari eta joskerari dagozkien ataletan nabari da gehienik Astarloaren eragina *Izkindean*. Esan genezake arlo hauetan saiatzen dela batik bat Azkue *Discursos filosóficos*-eko irakaspenak zabaltzen eta oinarritzen. Astarloak filosofiaren haritik eskeintzen dituen hipotesiak, euskararen adibideak ugari eraku-

24. Honi dagokionez, aitortu behar zaio Tovarri *Izkindearen* Astarloazaletasunaz ohartzen lehena izan zela: “Y extrañamente para nuestro gusto, al sobrio y despierto trabajo de *El imposible vencido*, prefiere las especulaciones del durangués, en quien con razón su contemporáneo Moguel criticaba el “genio sistemático”. Hala ere, uste dugu Astarloa ez dela soilik iturri, Campión eta Zavala bezala. Astarloa litzateke *Izkindearen* gidaria, sorburua. Ik. TOVAR, 1966, 62-63. or.

tsiz eta hipotesiok zehazturik frogatu nahi dizkigu *Izkindeak*. Aditzari dagozkiezak direnez gero guk aztergai hartu ditugunok bereziki, aurkeztu baino besterik ez dugu egingo *Izkindeak* ageri duen joskerari buruzko atalak (Azkuek *esapidea* deitzen duena), durangarraren ideiei zor diena, eta ideia hoietatik abiaturik, Azkuerenak berarenak diren aurkikuntzak²⁵.

Para que nos hagamos cargo con la debida claridad de la perfección ó imperfección con que colocan los idiomas sus respectivas voces en la mútua comunicación, hemos de tener presentes las tres noblezas en que se dividen estas; es a saber: la nobleza de origen; la nobleza de ministerio y la nobleza de mérito ó movilidad. Igualmente se han de tener presentes los grados de estas noblezas; esto es, que la nobleza de mérito ó movilidad es la superior de las tres, y que por consiguiente las voces que gozan de esta nobleza han de ser colocadas en nuestros conceptos con antelación a las demás: que después de esta nobleza sigue la de ministerio; y que la última de todas, ó la infima de las nobrezas es la de origen²⁶.

Astarloaren eritzi hau ontzat emanik abiatzen da Azkue euskararen *esapidea* aztertzera. Hasieratik, baina, *Izkindearen* egileak durangarraren hitzon berrirakurketa bat egiten du, gramatika aldetik egokiago gertatzen dena; Astarloak erizpide filosofikoaren arauera mugatzen dituen *nobleza* maila hoiiek —Azkuek *garransi* itzultzen duena—, gramatika-atalen arauera azaltzen ditu. Honela, Astarloaren *nobleza de origen*, *Izkindean iatorrizko garransia*, oso gutxitan ageri dela diosku; beste biak ezartzen ez direnean soilik erabil daiteke erizpide hau.

Iatorriz *aitak semeak* baino garransi andiagoa dauka; augaitik bezte garransirik *semea-n* alde egon ezik' *aita' semea* baino lenago esan bear dai: *aita-semeak, aita ta semea*²⁷

Nobleza de ministerio delakoa, hitzen arteko harremanetan ageri ohi dela diosku Azkuek. Eskeintzen dituen adibideek erakusten digutenez, perpausaren osagaien barneko egituraz ari da batez ere²⁸. Azkenik, *nobleza de movilidad*, Azkuek *eragintasuna* edo *eragintasuneko garransia* itzultzen duena, batik bat perpausaren osagaiek ageri duten ordenan ezartzen dela dio.

Garransi onetatik lenengoa gertadi gitxitan ezarten dai, bigarrena edo egikizunezkoa itz banatuengen alkartasunetan ondoen ezarri leike; irugarrena edo eragintasuna esakizun gaietan (335. or.).

Oro har, bada, esan genezake Azkue, Astarloak erizpide logiko-filosofikoak erabiliz egindako lana, gramatika osatu batean gauzatzen saiatzen dela. Bere hurbilketa, beraz, hizkuntza aldetikoa da gehienik, durangarraren hipotesiak oinarri baditu ere.

Hizkuntza aldetiko hurbilketa hau egiteagatik lortzen du Azkuek zenbait aurkikuntza berri, Astarloaren lanetan ilun edo garatu gabe ematen diren arloak argitu eta landu nahi dituenean. Honen adibiderik egokiena, perpausaren osagaien ordena azterzean egiten dituen oharrak dira.

25. Gai honek, noski, azterketa sakonagoa behar du, bere interesagatik. Guk arazoaren nondik-norakorik orokorenak itxuratzen baino besterik ez dugu egindo. Halere, uste dugu Altuberen uztarraingo, badela halako bide bat euskalari zenbaitzuk urratzen dutena; bidegintza horretan *Izkindeak* badu, ziurrenik, aitorra zaiona baino parte handiagoa.

26. ASTARLOA, 1883, 755. or. *Izkindea eta Discursos-en* artean dagoen hautsiezinako loturaz jabetzeko, erka bitez lehenaren "Esapidea" izeneko atala, eta bigarrenaren "Reconocimiento de la Sintaxis", 754-773. or.

27. AZKUE, 1891, 335. or. Astarloak: "En este caso se ha de dar el primer lugar á aquellas voces cuyos signados son más nobles; se dirá padre é hijo, pero no hijo y padre" (ASTARLOA, 1883, 507. or.).

28. Ikus bedi honetarako, AZKUE 1891, 335. etik 341.era ematen dituen sailkapen eta adibideak: "Izenan osaki mendetuak", "Aditzan osaki mendetuak", e.a.

Astarloaren lanean, *nobleza de movilidad* delakoak garrantzi handia hartzen du, baina halarik ere, durangarraren hitzak ez dira garbiak alor honetan sartzean. Erakutsi nahi duena zera da:

Sin embargo, reparo que la nobleza de movilidad es manejada por el bascuence con más finura que los otros idiomas, y para patentizar esta verdad me valdré de dos particularidades ó de dos modos singulares que registro en nuestro idioma: el uno cuando se quiere dar á entender el entusiasmo que causa en nosotros la cualidad de un sujeto: el otro en el arreglo con que coloca este idioma, no la primera, sino todas las voces según el órden con que contemplaron sus signados en el concepto comunicado (ASTARLOA 1883, 768. or.).

Durangarraren mintzoaren haritik, zaila da antzematen egun *galdegai* deitzen dugunaren susmorik darabilen bere irakaspenetan, ala besterik gabe euskara eta gaztelaniaren egiturek dituzten jokabideak ezberdinak direla frogatu nahiean ari den²⁹.

1.3.4. Azkueren *Izkindean*, aitzitik, badirudi euskal perpausaren jokabideari buruzko zenbait ideia berri ageri direla. Astarloaren esanetatik abiatuz, Azkuek zenbait erregela eratzen ditu, eta hoitan, oztopoekin bada ere, uste dugu galdegaiaren arazoari hurbiltzen zaiola. Adibidez, perpusean komunikazio aldetik garrantzi gehien duen osagaia galderarekin erlazionatzen du:

LENENGO ARAUA. Esakizun-gaien esapidea ezdai beti bardina izaten: batzueta izatea adizkian aurretik esaten dai, atzetik bezteetan. Onenbezte iazoten dai bezte gaiakaz bere. Aurretiko gaia zein dan iakiteko' eragintasuneko garrisnia [nobleza de movilidad] zeinek daukan iakin bear dai: garrisnik geien daukan gaia aurretik ipinten dai, gitxiñen daukana' atzetik. Garrisnia zeinen alde dagon igarteko' itz egiten dauenan alegina ezaututea dai onena, eta itzginan alegina' *gai bilatua zein dan iakinda ezautu al izango dai*. Ona emen lenengo araua: *gai bilatua zein dan iakitea* (AZKUE 1891, 341. or.).

Zalantzarak gabe, pasarte honen erdal-itzulpenak gogora ekarriko liguke Altuberen lana, era berean izendatzen bait da han, hemen Azkuek aipatzen duena: “Para adivinar á favor de cuál está la importancia lo mejor es conocer la intención del que habla, y la intención del que habla podremos conocerla sabiendo *cuál sea el elemento inquirido*. He aquí la primera regla: *el saber cuál sea el elemento inquirido*³⁰. Ondoren, *gai bilatuak* zer diren azaltzen digu Azkuek: “Gai bilatuak itz bilakien [palabras inquisitivas] erantzumenak daiz” (341. or.). Beraz, Azkue gaztea konturatu zen bere lehen lan honetan, galdegaia eta galderaren artean zegoen egitura antzekotasunaz. Bestalde, ohartu zen ere galdera-osagaia eta aditzaren artean zegoen loturaz, bere azken arauan adierazten duen bezala:

29. “En efecto, la expresión *zorioneucuac seme onac da queezan gurassuac*, traducida literalmente á la lengua castellana es la siguiente: *felices-los hijos buenos-los tienen-que padres-los*. Bien veo que es ingratá esta colocación al oido castellano como dijo en su censura crítica el señor cura de Montuenga; pero ¿de dónde viene esta ingratitud? No tiene otro origen sino el uso ó hábito del oido familiarizado con la sintaxis contraria. Esto mismo diría un bascongado si su frase estuviese en la sintaxis castellana; y ¿cuál de estas dos lenguas tendría razón? Para ambos idiomas es ingratá la respectiva sintaxis: se hallan encontrados en su modo de pensar, y es preciso que un tercero decida la disputa. ¡Recurriremos á los demás idiomas para que sean jueces de nuestra disputa? No por cierto. Cada uno de ellos tiene su particular sintaxis; unos favorecen nuestro idioma en la mayor parte: otros la castellana, y por lo mismo son interesados en la sentencia. Recurramos, pues, á la filosofía del lenguaje. Consultemos las causas que hacen enérgica una expresión, y hallaremos que es el trastorno quien causa la movilidad en el órden de las ideas: de modo que estas tendrían mejor sintaxis, cuanto pinten con más propiedad aquel órden ó empuje mayor ó menor que dieron al ánimo en la formación del entusiasmo” (ASTARLOA, 1883, 773. or.).

30. Aurreko aipuaren azken pasartearen itzulpena da hau, AZKUE, 1891, 341. or. (Azkuek berak eginiko itzulprena, noski). Altubek *Izkindeatik* hartz zuen, hain zuzen, bere *elemento inquirido* deitura: “El Sr. Azkue en su *Euskal-Izkindea* hace una somera mención del distintivo carácter que presentan en euskera, bajo el aspecto que acabamos de señalar, las diferentes partes de una oración. Y llama “elementos inquiridos” a los que... (...) Adoptando la denominación del Sr. Azkue, llamaremos, pues, miembros inquiridos a aquellos que como el “aita” y el “Gaur” señalados en el párrafo precedente, ocupan en las oraciones ordinarias, por su importancia y por el acento especial que se les imprime en la pronunciación, el mismo lugar que las palabras interrogativas o inquisitivas (...) en las oraciones de interrogación (ALTUBE. Seber *Ederismos* Bermio: 1929 Gaubeka, 2-3. or.).

BEDERATZIGARREN ARAUA. Itz bilakiak oituten daizan esakizunetan' euren atzetik ipini bear izaten dai aditza.

¿Non egon dai aita? ¿Noiz ikusi daue gure etše? ¿Zelan dagoz Tšomin ta nire bezte adizkideak? ¿Nork zuritu dautsa Tšomini burua? ¿Zeinbat aritz daukaz bere etše-aldean? (345. or.).

Astarloaren irakaspenek baldintzaturik dago *Izkinka*, halere, eta galde-gaiaren egitura galderarenaren antzekoa dela esatera heltzeko, Azkuek durangarrak idatzirikoak alde batera utzi behar zituen. Esan genezake azken urratsa emateko Astarloaren itzalak ilundu ziola Azkueri bidea; honela, *gai bilatuak* perpusean duen lekua azaltzean, *Discursos*-eko esanak darabiltza eredu:

Lengo arauaz zein itz lenengo ipini azaldu dai. Gaien ganera lau edo bost osaki esakinak eukiez gero, ¿zelan iakingo dai zein lenen esan' zein bigarren' zein irugarren... ta zein atzenen? —Onetarako bere' osakien garransia gomuta izan bear dai, eta au ondo egin al izan ezik' bakoitzan *erakuskera* onak lagun egingo dautsa esaleari naiz izkiraginari³¹.

1.3.5. *Izkinka*, bada, ez litzateke soilik, horrela aurkezten zaigun arren, errakuntzaz eta akatsez beteriko euskal gramatika eskasa. Badira, gure eritziz, zenbait aurrerabide liburu honetan, eta ez bakarrik joskera mailan. Tovarrek esaten duen bezala:

Aunque con aquel espíritu lógico, hay que reconocer que Azkue avanzaba muchas veces hacia una gramática fundada no en la tradición greco-latina, que como una camisa de fuerza ha sido impuesta a las lenguas distintas de las nuestras, sino en un análisis descriptivo de las palabras y de su naturaleza y funciones (1966,68. or.).

Esango genuke *Euskal-Izkindeak* baduela zer-esanik ugari euskal gramatika-ondarearen historian: kate horretan eskeini ohi zaion baino garrantzi gehiagoko maila litzateke. Aurrekoek esandakoetatik zer eta nola jasotzen duen bahatzeko dago, eta beraz, nekezago neur daiteke zertan den gramatika honek bere alorrera dakartzan ale berrien kopurua. Zinez uste dugu era honetako azterketa batek ez lukeela ondorio alferrik, batik bat honelako hurbilketak hutsaren ondokoak izan direlako Azkueren lehen lan honi dagokionez bederen; eta lan honetatik zerbait garbi ateratzekotan, hauxe litzateke hain zuzen: *Izkindearen* eragina aitortu zaiona baino areago hedatzen dela, alegia.

IZKINDEAREN ADITZ-SISTEMA.

2.0. Sarrera.

Atal honetan, *Euskal-Izkindeak* aurkezten duen aditz-sistema izango dugu aztergai. Ezin esan daiteke XIX-XX. mendeen arteko Zubian eratzen den bizkaiera

31. AZKUE, 1891, 343. or. Haatik, Azkuek egiten dituen beste zenbait ohar ere, oso interesgarri gertatzen dira, galdegiaren arazoari dagokionez. Honela, konturatzeko aditza bera izan daitekeela garrantzi gehien duen osagaia. "Gitsitan aditzan alde egiten dai itzginan alegina, esakizun luzeetan gitsi lagotan. *Ekari dautsu Andresek?* inork itanduez gero *ekartean* dago garransia, ta *ekari dausku Andresek* erantzun al izango litzake. *Ez ta ba aldagaikaz sarrien eukien dauitzak eragintasuna bere alde: geroago azalduko dai gertaldi au!*" (AZKUE, 1891, 342. or.) *Ez eta bo-ri buruz dioena ere, arras Altube ondoko gertatzen da: "Laguntzaileak ez nai ba aldagaiaik iratzita daukezanean' aditz mugcan aurretek geienean ipiniaz ganera' esapide polita izaten dai bien artean bezte gai biak eta osakiek ipinteak. Ezdau orrelango gauzarik nire anaiak ikusi!* (AZKUE, 1891, 345. or.).

idatziaren aditz morfologia *Izkindeako*a denik bete-betean; baina hala eta guztiz ere, gramatika honetatik atereak dira eredu berri hori egituratzen duten ezaugarri nagusiak, ez hainbeste hiztegi mailan, baina bai aditzari dagokionez bederen, eta baita beste zenbait hizkuntz ataletan, hala nola joskeran edo hitz-eratorketan, esaterako. Gure azterketan, aditzaz arduratzen gara bereziki, inon baino argiago alor honetan utzi bait zuen *Izkindeak* bere zantzua ezarririk ondorengo literatur bizkaieraren ereduari dagokionez.

Izkindearen zantzu hori zertan den mugatu gogo genuke beraz. Izan ere, eragina, itzala, ez datza soilik zenbait aditz formaren arrakasta begi-bistakoan; areago doa: *Izkindean* proposaturiko aditz lagunzaile osotik aurrera egin zuten forma eta aukerekin batera, beren erraietan zeuden eritzi eta hipotesiak ere onartu ziren azken batean. Arazo biok elkarri loturik daudelarik, bien berri ematen saiatuko gara hemen: Azkueren lehen gramatikak erakusten dituen aditz paradigmak osotasun bat direla ahaztu ez dugun arren, arrakasta ezagutu zuten alde eta ezaugarriez arduratu gara bereziki; bestetik, hauen berri ahalik osoena eman ahal izateko, *Izkindearen* aukeretan dautzan erizpideak azaldu nahi izan ditugu. Ondorioz, lanaren atal hau aditz formek baino areago, forma hau ala bestea aukeratzeko erabiliriko oin-hipotesiek egituratzen dute.

2.0.1. Sarreran erakusten saiatu garenez, eta atal honetan zehar berriz ikusi ahalko dugun bezala, *Izkindea* tesi bat frogatu nahi duen gramatika da: euskara, *giza-izkeraa*, hizkuntza naturala delako tesi. Euskararen konzeptio miraritsu honen isladapenik fidelena, euskal aditzaren egitura aurkitzen du Azkuek. Izan ere, aditzari dagokion atala da liburu honetako zatirik landuena, azaltze edo teoriagintza saiorik osatuena ageri duena. Atalaren sarrera-hitzek garbi asko adierazten digute Azkue gaztearen ikuspuntua honi dagokionean:

Euskal-aditza zietz azaldutea' dirudien baino egikizun zailagoa dai.

Euskal-aditan onetsi ta onesan andiaik non ta noiznai entzun ta irakurri doaz; baina gizonan onesan andiena bere' neurri tsikiegia dai aditz miragarri ta Iaungoikozko au adierazoteko. Itšasoan anditasuna' ekaitzena ta gizako bezte mirariena iragarteko' ez dai oraindaino itz egokirik izkiratu ez oguzi: gizako anditasunak Iaungoikoan itzak sortu ta neurtuak daiz; eta tsatsarra dai gizonan itza eurok bear dainez astertuteko. Itšasoa ikusiaz zelanbait zer dain iakin leike, euskal-aditza ikasiaz zelan edo zelan ezautu al izango dai; begirik argienak ikusi daiken guztia ikusita bere' itšasoak zer-erakutsi asko dauka bere azalean ta erraietan; eta bururik askarrenak ikasiala ikasiarren' mila irakaskizun eukiko dauz gero bere euskal aditzak³².

Euskal aditzari buruzko laudorioak ostera eta berrizko gaia dira gure gramaticetan, Larramendi eta Astarloaren ondoren³³; aitzitik, aztura honen ibilbidean, *Izkindearen* hitzak gailentzen dira gainerakoentzat, are Astarloaren etatik gora³⁴. Hain zuzen ere, *Izkindeari* dagokionez bederen, laudorio eta goraipatze hauek sarrera antolatzeko modu bat baino gehiago dira; naturarekin egiten duen erkatzea, adibidez, ez da ustekabekoa, euskal aditzak naturarekiko duen egoki-tasun hobe-ezina erakutsi eta azaltzea bait da Azkuek helburu hartzen duen lana.

32. AZKUE, 1891, 145. or. *Giza* hitzak, "naturaleza" esan nahi du *Izkindearen* euskara ereduan.

33. Honela di Larramendik: "Es tan grande la harmonía del Bascuence en sus Conjunciones, y tan admirable su variedad, y dispositiva, que no puede imaginarse otra mayor" (LARRAMENDI, 1729, 42. or.). Beranduago, eta Azkueren ikasliburu izan zen bat aipatzeko, Campionen hitzak ere bide honetatik dabilutzza. "Dado el genio de la lengua euskara, parece escusado afadir que no había de fallar á sus procedimientos habituales en lo que se refiere al sistema verbal, que es, sin disputa, uno de los más ricos que se conocen, si es que no ocupa el primer lugar" (CAMPION, 1884, 49. or.).

Izkinde guztian bezala, honetan ere bere irakasle Astarloaren urratsei jarraiki doakigu: durangarrak bere *Apología de la lengua bascongada* esanikoa, hots, “el bascuento en su verbo es un vivo retrato de la naturaleza” (147. or.) liztateke, izan ere, *Izkindeak* aditzaren atalean egiaztu nahi lukeen hipotesia.

2.0.2. Honetarako, hau da, euskal aditza hizkuntza naturalaren aditza dela frogatutatz ezarri ahal izateko, naturaren legeetatik hizkuntzaren legeetara doazen argitasunak eta argudioak darabiltza Azkuek behin eta berriz, filosofiatik aditz morfologiarako bidea ibiliz. Honengatik, nekez uler daitezke *Izkindeak* dakinaren sailkapena eta bere inguruan egiten diren ohar edo iruzkinak, aldi berean bildurik dauden erizpide filosofikoak kontutan izan ezik. Azkuek egiten duen bide bera berregiten saiatu gara beraz; horregatik, *Izkindean* nagusi diren ideia biak darabiltzagu guk ere atal honen egituratzaile gisa: Batetik, *izan* aditzaren garrantzia, eta aditz laguntzaile guztian betetzen duen lana; bestetik, *denbora* aditzean: nola zatitzen den, zeintzu diren bere ezaugarriak, e.a. Ideia bi hauen inguruan antolatzen da *Izkindearen* aditz-sistema, eta baita ondorengo literatur ereduaren aditza ere; hortaz, aurreko tradizioarekiko etenari antzemateko, beharrezko deritzogu aldaketen erraietan denari so egitea bereziki.

2.1. *Izan* Aditza: Aditz Bakarra.

Euskal-Izkindea guztian nabari daiteke inguruko erdal-gramatiketatik aldeteko ahalegina, hots, hizkuntza erromanikoen gramatika kategoria eta zatiketak alde batera utziz, euskararen datu eta gertakarietatik abiatzeko ahalegina. Aditzaren atalean, gure eritzirako behintzat, inon baino hobeto antzematen da Azkuek daraman jokabide hau, zeren, ikusiko denez, *Izkindeak* eskeintzen duen aditz-sailkapenak ezer gutxi bait dio zor latinaren edota bere ondorengo hizkuntzen gramatika-eraginei.

Honek ez du esan nahi, noski, aurre-eritzirik gabeko azalpenen bila abiatzen denik Azkue bere lehen lan honetan, eta uste dugu honez gero azaldurik daudela zeintzu diren *Izkindea* baldintzatzen duten ideiak. Euskararen izate berezia delarik gramatika honek frogatu asmo duena, bere jokabidean berezien gertatzen diren gertakarietatik abiatzen den azalpena lantzen da, beraz.

2.1.1. Euskal aditzari heltzean, Azkuek azaldu beharreko arazo nagusi batekin egiten du topo: euskarak, aditz trinkoetan izan ezik egiten duen banaketa, aditz nagusi eta aditz laguntzailearen artean. Izan ere, bere sailkapenak jokabide honen berri ematera etorri nahi du, zuzen-zuzenean, eta baita, esan gabe doa, aditza egituratzeko modu hau naturari berari dagokiona dela frogatzen ere.

Aditzaren definizioa bera, zedarri honekin eratzen du Azkuek, berak eskeiniriko euskal aditzaren azalpenari ongi dagokiona ezarriaz:

Gauzen izamen langotuan edo langogean itz agergarria daila aditza uste daut³⁵

34. Nahiz durangarrarenak diren *Izkindearen* mailara gehien hurbiltzen direnak; adibidez: “No sé si se habrá presentado jamás, ó podrá presentarse en algún tiempo en el orbe literario, un fenómeno más estupendo, más increíble á primera vista, y que con mayor claridad descubra su belleza que nuestro verbo. No tendrán ya los filósofos en lo sucesivo dificultad alguna en instruir á los venideros sobre las acciones humanas. ¡Qué voluntario tan bien dibuxado! ¡qué primor en las acciones necesarias! ¡qué grandeza en el modo forzoso! La posibilidad se presenta en el verbo Bascongado con todos aquellos caracteres que le son propios por naturaleza” (ASTARLOA, 1803, xii. or.).

35. AZKUE, 1891, 146. or. Aipu hau, eta aurreragoko beste zenbait, beren erdal itzulpenarekin emango ditugu, *Izkindearen* euskal ereduaren zailtasunez gain, hiztegi-zailtasunak gehitzetan bait zaizkie, batik bat honen antzeko definizio edota filosofi arazoei buruzkoetan. Itzulpenak, noski, *Izkindeak* berak dakartzanak dira: “Creo que verbo es ‘palabra expresiva de la existencia calificada ó no calificada de las cosas’”.

2.1.2. *Izatea* adierazten duen perpaus-atala litzateke bada, aditza; baina definizio honetan izate moeta bitaz mintzatzen zaigu *Izkindea*: izate *langotua* eta *langogeaz*, alegia. Gorago esan den bezala, Azkuek bere frogabidean jokabide berbera darabil beti: lehenik, naturaren legeak nolakoak diren ezartzen da, eta ondoren erakusten euskarak horrelaxe jokatzen duela. Hemen ere, bada, bide bera egiten du:

Gizan izateak baino ezdagoz. Langotasun ta bezte ganerantzko guztiak izateetan bizi daiz. Izate guztiak *izakizuna ta izamena* daukez: izakizuna' izenak agertu daroe, izamena' aditzak. Izamena (bardin izakizuna bere) langotua nai langotu bagea izan leike: gertaldi biotan *aditza* esan oi dakio izamena agertutenean dauen itzari, estu estuan aditz egiazko bat baino ezezonarren.

Augaitik adirapenean' *gauzen izamen langotuan edo langogearen itz agergarria* daila esan dai³⁶.

Izamen langotu/ langoge bereizkuntza honen funtsa eta zergatia, ez zaigu azalpen guzti honen ondoren baizik agertuko: *izan* aditza bait da, hain zuzen ere, *izamen langogeari* dagokiona, eta *izamen langotuari* gainerako guztiak:

Izan aditzak' izamen langogea edo utsa agertutenean dauer; bezte aditz guztiak izamen langotuak agertutenean dauez, edo obeto esateko, izamenan langotasunak³⁷.

Izkindearen ereduan, beraz, hauxe litzateke euskal aditzak ezagutzen duen zatiketa nagusia: *izan* aditza (*aditz langogeak*) eta gainerakoak (*aditz langotuak*). Zatiketa honek azalduko luke, ez bakarrik euskal aditzaren jokabidea, baizik honekin batera (eta hauxe litzateke *Izkindearen* helburuetarako azalpenaren alderik garrantzitsuena) jokabide horren zergatia: naturarekiko egokitasuna. *Izan* aditza da euskal aditz laguntzailea sortzen duena; honela, bada, gainerako aditz guztiekin (*aditz langotuek*), bere beharra dute jokatuak izateko. Ondorioz, euskal aditz bakarra, *sensu stricto*, *izan* aditza da *Izkindearen* arauera:

II. ADITZ LANGOGEA

Len esan dainez' estu estuan bakartzat euki leike aditz au. Bezteak izamenan langotasunak daiztula-lendik däigu. Gizan izate guztiak *daiz*: batzuk modu batera, bezteak bezterra, batzuk *ibilten iaten ioaten etorten...* bezteak *egoten irauten igoten iausten...*

Augaitik' aurrerantzean ikusiko dainez, *izan* aditza edo aditz langogea bear daue aditz guztiak irabiateko. Euskaraak daukan lege au iakitzuriz beteriko legea dai, gizako legea dailako; gizako legeak barriz euren Egile Iakintsuari iarraitu daroakioe. Gizako legea dai' langotasunak eurenez ezin bizi al izatea, izateetan bizitokia eukitea: aditz langotuak edo izamenan langotasunak *izatean* (*izan* aditzean) irabia ta bizi bear daue³⁸.

Izan aditzak biltzen du, beraz, laguntzaileen alor guztia, bai nor, nor-nori, nor-nork eta nor-nori-nork, indikatiboan, potentzialean eta subjuntiboan ere:

36. "En la naturaleza no hay más que seres. Las cualidades y todos los demás accidentes en los seres viven. Todos los seres tienen *esencia* y *existencia*: La esencia suelen manifestar los nombres, la existencia los verbos. La existencia (como también la esencia) puede ser calificada ó bien no calificada: en ambos casos se llama *verbo* á la palabra que suele expresar la existencia, aunque en rigor no haya sino un solo verbo. Por esto en la definición se ha dicho que es *palabra expresiva de la existencia calificada ó no calificada de las cosas*". (AZKUE, 1891, 146. or.).

37. "El verbo *izan* (ser) suele expresar existencia no calificada ó pura; todos los otros verbos suelen manifestar existencias calificadas, ó para decirlo mejor, cualidades de la existencia" (AZKUE, 1891, 146. or.).

38. "III VERBO NO CALIFICADO (sustantivo).

Según se ha dicho ya, este verbo en rigor puede tenerse por único. De antes sabemos que los demás son cualidades de la existencia. En la naturaleza, todos los seres *son*: unos de una manera, otros de otra; unos *andando, comiendo, yendo...* los otros *estando, durando, subiendo, cayéndose...*

Por esto, como se verá en adelante, todos los verbos necesitan para ser conjugados el verbo *izan* ó el verbo sustantivo. Esta ley que tiene el euskara es ley llena de sabiduría, porque es ley de naturaleza; y las leyes de la naturaleza siguen á su Sabio Criador. Es ley de la naturaleza que las cualidades no puedan vivir en si mismas y que tengan su vivienda en los seres: los verbos calificados ó las cualidades de la existencia deben conjugarse y vivir en el *ser* (en el verbo *izan*)" (AZKUE, 1891, 147. or.) Gogora bedi gorago aipatu ditugun Astarloaren hitzak: "El Bascuñez en su verbo es un vivo retrato de la naturaleza".

Egintza bi daukaz aditz onek: batzuetan bakarrik oituten dai, bezte batzuetan aditz langotuak mugatu ta irabiateko balio izaten dau. Bakarrik oituten dainean' *izamen utsa* agertu doroa, erderaz *ser*. Bezte aditzen laguntzailetzat oituez gero' erderazko *haber'* langotasun biralkoiakaz batutenean, eta langotasun euskoia *haberse*³⁹.

Laguntzailearen arazoa zen, aditza arautzeko orduan, garrantzitsuenetarikoa, ez bakarrik hizkuntza-barneko arrazoengatik: XVIII. mendearen erdi aldetik aurrera eginiko euskalaritza lanetan, ostera eta berrizko gaia legez ageri da laguntzailearen sustraien/-aren arazo hau⁴⁰. Azkuek sustrai bakar baten bidez sortzen du laguntzaile osoari buruzko tesi hau, *izan* aditzarena. Bestalde, bere tesia ezin hobeki egokitzen zaio euskararen izate "Iaungoikozkoari", ez bakarrik gorago aipatu diren izateari buruzko filosofi-erizpideekin bat etortzearen; baita euskal aditz morfologiaren sustraiak eta egitura erabat sinpletzen dituelako ere: egokitasuna eta erreztasunaren baldintzak betetzen dituen tesia dugu hau; Astarloaren lanetan behin eta berriz errepikatzen den hirukotea, "propiedad, economía y eufonía", naturaren hizkuntzak beharreko lituzkeen ezaugarriak biltzen ditu.

2.2. Aditz Langotuak.

Aurre-sailkapen nagusi hau finkatu ondoren, eta *izan* aditzari buruzko zehetasunak gerorako utziaz, aditz langotuak aztertzen igarotzen da *Izkindea*, hots, *izan* aditza ez ezik, gainerako guztiak (edo gaurko hitzetan ohituago dugun izenaz aipatzeko, *aditz nagusiak*).

Lehenago, baina, ohar bat egiten du, pasibo/aktibo zatiketa kritikatuaz; berak ez du erizpide hau ontzat hartzen, eta ondorioz, ez du kontutan hartuko bere sailkapenerako:

Aditza ataldu orduko egokia izango dai oar bi egitea. Askok aditz-muetatzat *egingea* ta *egileak* erakusten dauez. Atalkera onek ezdauka eztertariko garransirik. Aditz egingea bat baino ezdai: *izan* aditza. Bezte guztiak' izamenan langotasunak daizalako' egileak daiz: *ibil-teak, etorteak* eta onen antzean bezte aditz euskoi enparauak egimena adierazoten daue (146. or.).

2.2.1. Aditz nagusiak, edo *Izkindearen* ereduian *aditz langotuak*, lau erizpi-deren arauera sailkatzen ditu Azkuek. Sailkapenera igaro aurretik azpimarratu behar da, bidenabar, eraberritzea suposatzen duela hurrengo zatiketa honek, euskal gramatiken tradizioan. Azkuek bildu egiten ditu iturri ezberdinatik jasotako erizpideak, eta berak sorturiko berri batzurekin batu; berak eskeintzen duen sailkapen hau, behin eta berriz errepikatuko da ondorengo gramatiketan. *Izkindea*, bada, eredu bilakatzen da arlo honetan ere⁴¹.

39. "Este verbo tiene dos oficios: á veces se emplea sólo, otras veces suele servir para limitar y conjugar los verbos calificados. Cuando se emplea sólo suele significar *existencia pura*; en otra lengua *ser*. Empleándose por auxiliar de los otros verbos, suele tener la significación de *haber y haberse*: *haber* cuando se junta con cualidades transitivas, y *haberse* con cualidades intransitivas" (AZKUE, 1891, 148. or.).

40. Esan daiteko laguntzailearen sustraiari buruzko eztabaidak asko gogortu zirela XIX. mendean batez ere, eta gehienik euskalarik eztarritarren artean. Hor ditugu, esaterako, Bonaparte, Van Eys eta Vinsonen arteko eztabaida luzeak, erakusgarri gisa. Gutxi gora-beherako azalpen bat aurki daiteke Campionei gramatikan, CAMPION, 1884, 307-323. or.

41. Erka bitez, esaterako, Arana Goiriren "Clasificación del verbo bizkaino" (ARANA O.C. 2323. or. eta hur.) eta Arriandiagaren "Notas sobre el verbo euzkérico" (Euzkadi, 1907) eta "La reforma de la conjugación euskérica. Estudio y ensayo" (Euzkadi, 1915), *Izkindearen* sailkapen-ereduarekin. Iku honetarako LAKA 1986 b eta LAKA 1986 d.

Aipatu ditugun sailkapen-erizpideak hauexek dira: a) *Agerkizuna* edo esangura: erizpide honen erauera, aditzak trantsitiboak edo intrantsitiboak izan daitezke; b) Jatorriz sailkaturik, aditzak *sortuak* edo *etorriak* genituzke; c) *Alkarbidez* edo erlazioz, berriaz, *tolezgeak* eta *toleztuak* lirateke aditz nagusiak; azkenik, d) *Izatez*, aditzak *irabiagariak* edo *irabiageak* ditugu, hau da, trinkoak (joka daitezkeenak) edo ez trinkoak (ezin joka daitezkeenak).

Azter dezagun orain erizpide hauen arauera Azkuek egiten duen zatiketa, berak darabilen hurrenkerari jarraituz:

2.2.2. *Agerkizunez* edo esanguraz sailkaturiko aditzak. Esan dugun bezala, erizpide honen arauera bi talde nagusi egiten ditu Azkuek: aditz trantsitiboak edo *biralkoiak*, eta intrantsitiboak edo *euskoiak*:

Biralkoiak “egimena egileagandik *urten eragiten* dauen aditzak” daiz.
Aditz euskoiak “egimena egileagan *egon eragiten* dauenai esaten dakioe”. (148. or.).

Lehenxeago ikusi dugu *Izkindiean* baztertu egiten dela aktibo/pasibo sailkapena; baina azken batean, euskal gramatika zaharretan banaketa honek duen esangura, trantsitibo/intrantsitiboarena lizateke: hots, aditzak ergatiboa eskatzen duen ala ez begiraturik egiten den atalkera. Azkuek baduke aitzitik arrazoi bat, hobesten duen erizpidearen alde: trantsitibo/intrantsitibo banaketak ez luke eskatuko beste hirugarren maila bat; pasibo/aktibo eritzien arauera egindakoak, ordea, *mixta* deitu ohi den bitarteko zekarren loturik, Azkuek bere sailkapenean behar ez zuena. Bestalde, erizpide hau lotuegi agertzen zitzaison latinezko gramatiket eginiko itzalari. Azkuek, pasibotasunaren arazoa saihesten duen erizpidea aukeratzentz beraz⁴².

Astarloaren idatzietan ezin zezakeen Azkuek honelako zehetasunen berri jaso, eta beraz bere bidea urratzeari ekiten dio. Halere, bazuen bidegintza honetan gidaririk: Mateo Zavala, Astarloaren jarraitzaile “pragmatikoa” zena nolabait, nahiz egun uste ohi dena baino gutxiago⁴³. Zavalaren liburuan, *El verbo regular vascongado-n* aurki daiteke aktibo/pasibo eta trantsitibo/intrantsitibo sailkapenen arteko berdintzea:

Por voz del verbo entienden los gramáticos el modo de significar el atributo. Las voces son tres, activa, pasiva y mixta. A esta última llaman también *neutra*, *media* é *intransitiva*; y á la activa *transitiva* (1. or.).

42. Ikus bitez, bada, aurreko gramatikagileek aurkitzen dituzten arazoak aktibo-pasibo-neutro/mixto sailkapenarekin. Larramendik, esaterako, *passivo* eta *neutro* bereizten ditu, baina bere mintzoan arras nahasturik ageri dira azken bi hauak, *aktiboa* zer den garbi azaltzen den bitartean. “... en la segunda significación es verbo no activo, ó neutro...” (158. or.) baina “no activo” bi gauza izan daitezke: pasibo edo neutrero. Aditz neutreroaz honela dio: “De aquí nació que el Bascuence, que es Lengua Philosophica, hace sus verbos pasivos con los auxiliares absolutos del verbo neutro, observando puntualmente la correspondencia entre el significado del verbo pasivo, y neutro, y entre los modos de significar, que tienen ambos” (164. or.). Aurreraxeago, ordea: “La formación de tiempos del verbo neutro, y la formación de los modos del infinitivo sigue en todo las reglas del verbo activo” (165. or.). Azken batean, beraz, arazoa da euskarak bi ataletan egindo lukeen banaketa, hirutan egokitu nahi dela. Astarloari dagokionez, uste dugu argiago ageri dela banaketa honen desegokitasuna; izan ere, *Discursos-en* egiten duen sailkapenak hiru atalak onartzentz ditu: *activa*, *pasiva* eta *mixta*, baina atal bakotzean dauden aditzak edo aditz formak begiratzean, nahaste antzeko zerbaiz nabari daitzeke. Honela, adibidez, libururen lehen atalean, hots, hizkuntza naturalak bete beharreko ezaugarríak azaltzen diharduelarik, hiri konjugazio mota bereizten ditu: *activa*, *pasiva* eta *mixta*. “Tal hubo de ser el idioma primitivo. Este hubo de tener á más de las conjugaciones activa y pasiva, otra que fuese mixta ó media entre la activa y la pasiva” (435. or.). Aitzitik, hizkuntza natural hori euskara dela erakustean, eta “Reconocimiento del verbo” atalean, aldatu egiten du aurreko sailkapena: orain ez dira hiri konjugazio, baizik bi, *aktiboa* eta *pasiboa*, bakoitz bi azpiataletan banaturik: *activa pura* eta *activa mixta* batetik; bestetik *pasiva pura* eta *pasiva mixta*. (Ikus LARRAMENDI, 1729 eta ASTARLOA, 1883).

43. Zavalaren kasuan, beti apzimarratu ohi da bera praktikotasuna, hizkuntzaren benetako dátuekiko duen atxikitasuna; honela Villasantek ere: “Aunque alaba la *Apología* de Astarloa, reconoce que, en vez de andar por sus huellas, se ha procurado abrir un camino que sea suyo. Astarloa —dice él— ha tratado filosóficamente el vascuence. El, en cambio, se fija en la lengua tal y como se encuentra en el estado actual; y en cuestión de terminología se atiene a la usual y recibida en otras gramáticas, aunque dichos nombres no cuadren tan bien a la gramática vasca. O sea, en vez de construcciones fantásticas a priori, se atiene rigurosamente al método positivo, de observación de los hechos, y éste fue su acierto indudable” (VILLASANTE, 1979, 238. or.). Hala ere, aurrerago ikusiko dugunez, Zavalaren lanak azalean diriduena baino gehiago dio zor Astarloaren astarnari.

Sailkapen honen arauera, eta euskarak “ezunedun araurik” ez duenez gero⁴⁴, gaitzetsiak gertatzen dira objeturik ez duten aditz trantsitiboak:

Bizkaian aditz euskoi batzuk biralkoitza oitu daroaguz; oituko ezbageuz’ obe. *Urten DAUT’ urten NAI esateko, igon GEUAN’ igon GINTZAÑAN* esan bearrean (AZKUE 1891, 148. or.)

Proposamen hau egitean, ez da *Izkinka* lehena; izan ere, Zavalaren irakaspe- netatik jasoa dugu zuzen-zuzenean:

Por el contrario el verbo de significación mista siempre y en todo caso debe conjugarse por la conjugación mista. Y así es que en nuestro dialecto se yerra dando conjugación activa á los verbos “*igo ó igon* subir, *urten* salir y *yarraitu* seguir”. No debiera pues decirse: “*igo evan, urten-dau, yarraituteneus*” sino *igo zan* (Urt. t. 1 p. 87 y 89) urtetean *da* y *yarraituteneus* *yacuz* (Arzadun *Doctrina*, sobre el santiguarse) como tambien se usa, aunque poco, y como se practica constantemente en los otros dialectos (1848, 16. or.).

Dena den, proposamen honek arrakasta handia ezagutuko zuen ondorengo urteetan testu idatzietan, eta nabarmena da nola, bizkaieraz ohitura delarik *urten* eta *igon* laguntzaile trantsitiboekin jokatzea, XIX.aren azken urteetarik aurrera, gero eta gehiago jokatzen den intrantsitiboarekin, azkenik, XX.aren lehen hamarkada betetzen denerako, arau bilakatu arteraino⁴⁵.

2.2.3. *Izkinka* aditz nagusiei dagokienez ezartzen duen bigarren sailkapenak, aintzinatasuna edo *iatorria*, darabil erizpide bezala; bi talde nagusi egingo ditu Azkuek honen arauera: aditz *sortuak* edo aditz zaharrak batetik:

Aditz sortuak euronez daiz aditzak. Euren ostean beti eukiten daue sei aots onetatik bat: *a e i o l n.* (150. or.).

Talde honetaz, baina, ez da luzaz arduratzen Azkue. Adibide gisan zerrenda antzeko bat eskeini ondoren, bigarren taldea aztertzera igaroko da. Aurretik, halere, aipa dezagun badela ohar interesgarririk aditz hauei dagokienean; Tovarrek esan bezala: “Las deducciones históricas de Azkue son acertadas en muchos casos, a pesar de que su punto de vista no tiene nada de historicista en este su primer libro de gramática” (Tovar 1966, 65. or). Adibidez, aditz zaharretatik atera diren forma —*tu*—dunak berriak direla dioenean:

Aditz erorri asko dazautaz’ euren iatorrizko ‘itzak izentzat gaur oituten ezdaizala. Asterrenlarentzat eta Ikasola baterako egokiagoa dai ikasmen au; baina ahi gaizanez gero... Aditz onetatik batzuk aditz sortuak izango daiz, eta lenago *tu* iratzgaia bage esan izango daizala dirudi; 1.^o gaur bere batzuk *estali*, bezte batzuk *estaldu* esaten daue, *iratzarri* ta *iratzartu*, *izan* ta *izandu*, *egon* ta *egondu*...⁴⁶

Jatorriari buruzko sailkapenarekin jarraituz, bigarren taldea, hots, aditz *sortuak* ez direnena, aditz *erorriek* osatuko lukete: berez aditz ez zirenak, beste hitz batetik aditz bilakatu direnak. Azkueren hitzetan, “*Aditz erorriak* itz aditzuak daiz” (“Verbos derivados son palabras verbizadas”, 150. or.).

44. “Bezie izkeretan’ *ezune bageko araurik ezdagola* esakunetzat artuta dago; euskara miragarrian *ezunedun araurik ezegota* dai orren ordezko esakuna” (AZKUE, 1891, viii. or.). *Ezune* hitzak “excepción” esan nahi du.

45. Bilakera hau oso ongi ikus daiteke, adibidez, Evaristo Bustinaren ipuinek izan zituzten argitalpenetan; lehenengo bertsioetan, *urten* eta *igon* aditz trantsitiboarekin jokaturik agertzen dira; azkenengoetan, ordea, intrantsitiboarekin. Gainerako testu idatzi gehienetan ere, jokabide berria nabari daiteke.

46. AZKUE, 1891, 151. or. Gaztelaniazko itzulpenak honela dio: “Muchos verbos derivados conozco, no empleándose hoy por nombres sus palabras originarias. Este estudio es más propio para etimólogistas y para una Academia; pero ya que nos hemos empezado... De estos verbos algunos serán verbos primitivos, y parece que antes se habrán dicho sin el aglutinante *tu*; 1.^o aun hoy algunos suelen decir *estali* otros *estaldu* (cubrir), *iratzarri* é *iratzartu* (hacer despertar), *izan* é *izandu*, *egon* y *egondu* (estar)...”

Iru modutara aditzu daizek izenak: a) *tu irazgaiaz*, b) *egin* aditzaz, eta z) *izan* aditzaz (150. or.).

Azkuek *egin*, *izan* eta *-tu* adizgileen banaketa zehatza eskeintzen digu ondoren. Ohar bedi atalkera guzti hau lehen aldiz egiten dela euskal gramatiketan; agian, lepora dakiode Azkue gazte honi bere mutur-muturreko arauzaletasuna, berak aurkezturiko erregeletan hizkuntzaren gertakarik huts egitea onartzen ez duena, baina honekin batera, aitorrtu beharra dago benetako saio sakona dela *Izkindean*, zenbaitetan argitasun ugari ekarri zuena, eta sailkapen honek adibidez, bere hutsegiteez gaindi, aurrerapausu egin zuen euskal-gramatika tradizioan, eta hainbat aldiz errepikaturik aurki genezake, bere ondoren idatziko ziren gramatika eta ikasliburuetan⁴⁷.

Egin aditzaren bitartez eratzen dira, *Izkindeak* dioenaren arauera:

a) *Gizonan ta izeate bizidunen barrutiko egimen guztiak*' beti kanporatutekoak izanez gero. “*Todas las producciones interiores del hombre y de los seres animados*, siendo siempre exteriorizables” (152. or.).

Sail honen barnean leudeke, beraz, ondorengoa bezalako aditzak: *arrausituz egin*, *usin egin*, *nagar egin*, *itz egin*, *estul egin*, *agur egin*, *ames egin*... (152. or.) eta beraz, ez dira onartzen *-tu* erabiliaz baldin badira eratzen: “Ezin arrausiTU, usinDU... esanaz itz onek aditzu leikez” (ibid.). Ondorioz, bada, gaitzetsiak dira baita, *agurtu* bezalako aditzak, ez dutelako legea betetzen.

b) Eguko egimenak. Itz onek mugitzen bat iratzita eukiten daue. (“*Las producciones de la atmósfera*. Estas palabras suelen tener aglutinado algún limitativo”). *Euria egin*=hacer lluvia (la), llover; *tšingorra egin*=hacer granizo (el), granizar... (ibid.).

Azkenik, *egin-en* bidez eratzen diren aditzak izan daitezke onomatopeia-zantzu dutenak ere, hots, *Gizako zarataak*; adibidez, eta Azkuek berak eskeintzen dituen adibideak erabiliz: *Tarrat egin*, *karrak egin*, *tširrist egin*, *sarrast egin*...⁴⁸

Sailkapen honetatik kanko geratzen diren hizkuntz gertakariak —gorago ikusi berri dugu adibide bat—, hiztunen errakuntzatzat hartu eta bazterrera uzten dira, berriz ere:

Euskaldun batzuk' bear ezdauen itz askori ezarten dautse: *urratu egin daut*, *ian egingo dau...* Tšarto oitura dago.

(...) Nire ustez' aitaturiko gertaldietan bakarrik oitu bear dai bezte itzakaz *egin* aditza⁴⁹.

Izan aditza behar luketenak, bestetik, hauexek lirateke: “*Grinaak, sentzuki-zunak eta gizonan bezte barrukotasunak*, baldin onek beti kanporatu ezik”⁵⁰.

47. Lehenago ere azpimarratu dugu *Izkindearen* garantzia alde honetatik; hala ere,uste dugu ez dela nahikoa agerian geratuko gramatika honen eraginak dien nondik-norainokotasuna, bera ondoren etorriko ziren lanen azterketarik egiten ez den bitartean. Bestalde, ez bakarrik gramatiketara: *Izkindearen* eragina handia da, zuzenean edo zeharbidez, gerra-aurreko literaturan, bizkaierazkoan zalantzak gabe, baina agian baita, bizkaieraren hesparriutik kanko ere.

48. AZKUE, 1891, 152. or. Gogora bedi (cf. 32. oh.) *Izkindean giza* hitzak “naturaleza” esangura duela.

49. AZKUE, 1891, 152. or. Azkuek berak aitorraren duenez, Zavalaren eritzien kontra doa hizkuntzaren gertakari hau gaitzestean: “Ait. Zubala izkindaria beztu batzukaz *egin* aditza beraziko *laguntzalea* dala uste dau; baina adituz au ta *izan-en* gana nastu dauez” (152. or.). Zavalak honea diot: “A mas de esto los buenos vascognos de los tres dialectos usan formar sus tensos con los participios del verbo *eguin*, asociándolos al de pretérito del verbo principal siempre invariado: con lo que, en mi concepto, denotan que la acción ó pasión ó su resultado es de alguna duración. Nuestros escritores no han hecho tanto uso, como debieran de esta manera de locución común á todo el vascuence: con todo se hallan en sus obras algunos ejemplos, y de ellos entresacar los siguientes: “*Il eguiten da arimea...*”” (ZAVALA, 1848, 12. or.). Aurrerago ikusiko denez, ados ez egote honen sustriaiak areago doaz, hain zuzen *izan* aditzaren aratzasunaren arazoarekin nahasten bait du Azkuek, hona ekarri dugun aipuan ageri denez. Honetarako, ikus aurrerago, 2.4.4. atala.

Adibide gisa eskeintzen dizkigu: *Al izan, ari izan, balio izan, bear izan, bizi izan, bildur izan, zor izan, ezin izan...* (153. or.) besteren artean. *Egin*-en atalean gertatu legez, sailkapenetik at gelditzent direnak gramatikaz kanpokotzat etsiak dira; izan ere, hauxe gertatuko da *beharko, nahiko, gurako* eta antzeko formekin, *Izkindearen* ondoren desagertuz joango direnak bizkaierazko testu idatzietan, *behar izan, nahi izan, gura izan, e.a.*, hobetsiak suertatzen direlarik⁵¹.

Nolanahi ere, Azkue gaztearen aurre-eritzi eta arauzaletasunak ez diote beti eragozten hizkuntzari buruzko zenbait gogoeta zuzenen erdiestea. Adibidez:

Lotsa dai baino sarriago lotsatuta dago entzuten dai; egarri nai baino ao geiagotan egarría daukat. Ezdaiz baina ezeren ordez euskal-esakera garbi eder ta zakonak egotzi bear (153. or.).

Egin eta *izan*-en banaketa zein den erakutsi ondoren, eta *Izkindea* guztian behin eta berrizkoa den ohiturari jarraiki, euskararen jakituriari buruzko gogoeta batek zarratzen du sailkapen hau, hain zuzen jakituria hori agerian jartzea helburu bait zuen, beste edozer baino lehen, sailkapenak berak:

Gizonan *egimenak* eta egu ta gizakoak egin aditzaz egin-bidean edo aditz-ilaran ipinteak, eta gizonan *grinaak* (egingetasunak) *izan* aditz egingeaz adiztuteak' iakinuri andia erakusten dausku. Ezdinot onen ganean geiago' irakurle geienak ezleuteskez noski itzak adituko-ta; irakurle iakintsuak ezdaue barriz nik itz geiago egiterik bear⁵².

Azkenerako utzi ditugu duk, Azkuek sail honetan lehenik jartzen dituen —*tu*—z eraturiko aditzak. Hauek, askatasun osoz sor daitezke, baldin eta ez badeute aurrekoen legerik zapaltzen:

Tu irazgaiaz edozein izen ta langogin aditzu leikez, baldin *egin* ta *izan-ez* batu bear ezba-diaiz. Itz orrek' euroi dagokioezan irazgai askoz bere' sarri aditzu daroaguz. Izkiraginen irudimena dai onelango aditzak eratuteko biderik egokiena' dino Arturo Campion-ek, eta ondo dino (151. or.).

Ontzat ematen dira, beraz, bai *ilundi, zuritu, gizondu* bezalako aditzak, eta baita erlazio atzizkiak *bildurik* dituztenak, esaterako (eta *Izkindeak* berak aipatzen dituenak erabiliz): *etserakotu, zeruetarainokotu, zapatagindu...* (ibid.) ez dago alde honetatik bederen, mugarik. Eritzi honekin lotzean, baina, Azkue ez zen Campionen esanak jarraitzen ari soilik; bere maisurik maisuen Astarloarenak ere biltzen zituen, eta bide batez, haren irakaspenen muina, hots, euskararen naturarekiko egokitasun paregabea:

Omitimos el hablar del origen de los verbos por ser imposible dar una prueba de la analogía que tiene el bascuento con las ideas que movilizaron á los primeros hombres inventores de ellos. Esta operacion solo puede verificarse con el debido complemento por medio de un Diccionario: sin embargo, para dar alguna satisfacción a los literatos de la perfecta analogía de nuestros verbos, hemos de decirles que no tenemos voz alguna de que no pueda formarse un verbo. Los adverbios de cualquiera naturaleza que sean, los pronombres, los numerales, en una palabra, cuantas voces tiene un idioma, cuantas son sus inflexiones, tantos

50. AZKUE, 1891, 153. or. "Las pasiones, sensaciones y otras interioridades del hombre, á lo menos no exteriorizándose siempre".

51. Azterketa zehatzik egiteko dagoen arren, jokabide hau nahikoa nabarmena gertatzen da zenbait idazlerengan, esaterako Evaristo Bustinaren (ikus 45. oharra). Bestalde, *beharkoren* antzekoen gaitezte horrek egunotararte irau duela esango genuke, *izan-dunen* alde. Guk, gramatiken arteko eritzi eta aukerak hartu ditugu aztergai, baina honelako bilakaeran berri jakiteko, euskal literatur-hizkuntzen historiarri dagokionez bederen, testu azterketak ezinbesteko gertatzen dira.

52. AZKUE, 1891, 153. or. "El colocar las *producciones* del hombre y de la atmósfera, y naturaleza en camino de operación ó en fila de verbos con el verbo *hacer*, y el verbitzar las *pasiones* del hombre con el verbo pasivo *'izan-nos'* manifiesta gran sabiduría. No digo más acerca de esto, pues los lectores en su mayoría no me entenderían tal vez las palabras; en cambio los lectores sabios no necesitan que yo les hable más". Ohar bedi, bidenabar, "el verbo pasivo *izan*" dioela gaztelaniazkotz itzulpenak. (Ikus 42. oharra).

son los verbos que pueden formarse, operación que necesariamente ha de presentar en la voz la idea más perfecta de su signado (ASTARLOA 1883, 692. or.)

Ondoren, aditz zerrenda bat eskeintzen du Astarloak bere esanen erakusgarri: *aratindu, auspastu, urtu, orrantzatu...* Izkindeak ematen dituen adibideek eta Astarloarenak, bizkitartean, halabeharrari lepora dakiokeena baino antzekotasun handiagoa ageri dute; honela Astarloak *gueuretu*, “nostraizar”; *guizondu*, “hombrearse”; *echeratu*, “acasarse”; *aruntzatu*, “aciallear”; *autu*, “estear” aditzak biltzen dituen bitartean (ibid.) Azkuek bere gramatikan: *geuretu*= nostrear; *gizondu*= hambrearse; *etseratu*= á-lacasear; *arantzegitu*= demasiado hacia allearse; *autu* = estar⁵³. Durangarraren itzala da berriz ere, bere izena aipatua izan edo ez, Azkueren erabaki eta aukeren atzean dabilena.

2.2.4. Hirugarren sailkapen-erizpidea, *alkarbidea* edo erlazioa dugu, eta honetan bete-betean jarraikitzen zaie Azkue bere irakaslearen erizpideei, sailkapen hau Astarloarena bera bait da, ikusiko dugunez. Sailkapen honen arauera, aditzak bi moetatakoak izan daitezke: aditz *tolezgeak* eta *toleztuak*:

Aditz tolezgeak egimen bakar batekoai esaten dakioe; *toleztuak* egile biren egimenak agertutenean dauezanai. Aditz toleztuak’ bezte aditz batetik *eratorriak* daiz: onetarako *ra* ataltsoa zelanbait irazten dakioe⁵⁴.

Beraz, aditz faktitiboak/ez-faktitiboak dira bereizten sailkapen honen bitartez. Banaketa honi ematen zaion garrantziak, Astarloaren lanetan du, artez-artez, iturburua. Izan ere, bere aditzari buruzko idatzi guzietan azpimarratzen bait da lehenik, eta gainerako banaketa guztiez gain, oraingo hau:

Hicimos ver en nuestra gramática que no podía haber sino dos clases de verbos, sencillos y dobles: por no haber en la naturaleza sino dos modos ó maneras de accionar: como que unos entes activan sus virtudes por sí mismos, y otros necesitan de otro agente para esto. Justamente el bascuence tiene solamente dos clases de verbos: una para cuando los entes activan su virtus por sí mismos: otra para cuando necesitan el concurso de otro ente. Hemos llamado sencillos á los primeros, porque en ellos hay un solo agente: dobles á los segundos, porque en ellos hay dos agentes, uno el que presta la virtud y otro el que pone en acción esta virtud. Los dobles resultan posponiendo á los sencillos la sílaba *ra*, después de su primera letra si empieza con vocal, y si con consonante, mudando esta en *e* y suprimiendo la *a* de *ra* (1883, 691. or.).

53. AZKUE, 1891, 151. or. Arana Goirik, aitzitik, ez zuen erizpide hau ontzat hartzen, nahiz bera ere Astarloazale izan: “Estos derivados improprios son en el uso muy contados, pero en lo posible son innumerables: tantos, en efectos, como combinaciones pueden hacerse con todos los nombres y todos sus afijos. Deben usarse sólo parca y discretamente, porque su uso excesivo redundaría en perjuicio de los primitivos y derivados propios, que son pronto relegados al olvido o resultan anticuados e incomprensibles para la mayoría de los *euzkeldunes*. Así ha debido acontecer con el verbo que significa “mirar”, pues sin duda lo tuvo el Euzkera bizkaino, como tiene el laburdino su *ikartu*, que tal significado. *Begiratu* revela un origen muy reciente, y por añadidura está mal derivado, porque *mirar* es “dirigir la vista (*los ojos*, en sentido figurado) a los objetos”, y no “los objetos venirse a los ojos”, como expresa *begiratu*: todo lo más, *begiratu* podría significar “presentarse a la vista”, o sea, “venirse a la vista”, como *gogoratu* es “venir a las mientes, al espíritu”. Otra voz, aunque menos usual que *begiratu* se emplea también por “mirar” y es *begitzu*, que, aunque lógicamente derivada, es también de formación reciente. Algunos autores modernos han dicho que la creación de estos derivados se debe dejar al arbitrio de la imaginación del literato: errónea opinión, porque estos derivados se forman de afijos que tienen su significación propia y de vocablos caracterizados por afijos determinados y bien definidos. Se debe, pues, emplear poco los usuales que tienen sinónimos primitivos o derivados propios, y rara vez y discretamente formar otros nuevos, y no derivar ninguno sin conocer las reglas de derivación” (ARANA O.C., 2330. or.) Aranak ez bide zekien, dirudienez, jada Astarloaren hitzetan aurki daitakeela “algunos autores modernos” hoiak defendatzen zuten eritzia. Izan ere, eta bere lanen argitarra, esan liteke Arana bakarrik Astarloaren ondarea jasotzean, soinuei zegozken arazoez kezkatu zela. Honela, bada, bere lanetan durangarraren emaitzaren alde bat biltzen da soilik: ekonomiari eta eufoniarri dagokiona: “La economía de las voces consiste en que estas se formen con cuantas menos letras y sílabas se pueda, y su propiedad en que las voces tengan una verdadera analogía con aquellos que nos representan” (ASTARLOA, 1803, 65. or.) Euskal hitzek beren soinuetan biltzen bazuten naturarekiko egokitasuna, bada, hobetsik behar dute izan sintetikotasunaren bidez sorturikoak, hots, *ikartu* bezalakoak, era analítiko batean sortutakoak aurrean, adibidez *gogoratu*.

54. AZKUE, 1891, 154. or. “Verbos sencillos se les llama á los de una sola acción; compuestos á los que suelen expresar acciones de dos agentes. Los verbos compuestos son derivados de otro verbo: para esto se les aglutina de algún modo la partícula *ra*”. Ohar bedi Astarloak emaniko deiturak darabiltzala Azkuek; ikus honetarako testuko hurrengo aipua.

Azkuak, halere, bere irakaslearen eritzien jasotze bat baino gehiago egiten du. Astarloak hamar bat aditzek osaturiko zerrenda batez ematen du bukatutzat banaketa honi dagokiona, nahikoa bait du euskarak bereizkuntza hori egiten duela erakustea. Azkueren azterketa, bizkitartean, zehatzagoa eta sakonagoa dugu; lehenago ikusi dugun bezala, sarritan hizkuntzaren historiari buruzko gogoetetan abiatzean, argi izpiak aurki ditzake:

Toleztuak dirudien bezte aditz batzuk bere badazautaz: euren tolezgerik ezdai gaur oituten.

Erago, erantzi, erazo, erosi, irindu (iraasi), iraun, irun, iragazi (irazi), iratzi (erantzi), irakurri, iraindu, iruli (irauali), irudautsi, irabazi, irautsi, erein... (154. or.).

Faktitibotasunaren arauerako sailkapen honek garrantzi handia hartuko du *Izkindeatik* aurrera, batik bat abertzaleen inguruko garbizaletasunak bultzatuko bait du neologismoak sortzeko orduan: *irazan, ikerri, e.a., bide honetatik sortuak* izango dira.

2.2.5. Azter dezagun azkenik, *Izkindeak* aditz nagusiei dagokienez egiten duen laugarren sailkapena: *Izatez atalduriko aditzak* (155. or.). Atal honetan egiten den banaketa, aditz trinko eta ez-trinkoen artekoa da, hots, joka daitezkeen eta ezin joka daitezkeen aditzen bereizkuntza. Gorago esan dugun legez, Azkuak bere aditzari buruzko azalpenean *izan-i* ematen dion lekuak helburu bat du: euskarak duen aditz sistema perifrástikoaren zergatia argitza, alegia. Jokabide hau, baina, ez da betetzen aditz trinkoen kasuan, hauek hitz bakar batean, atal bakar batean biltzen bait dute gainerakoek bitan banatzen dutena.

2.2.5.1. Bere aurreko gramatika-tradizioan, aditz trinkoek *irregular* izena hartu ohi dute, hain zuzen gainerako aditz sistema guztiaren jokabidean bestelako gertatzeagatik. *Izkindeak*, ordea, ezin onar dezake, bere tesi nagusiaren aurka jotzea litzatekeelako, euskarak irregularutasunik duenik, eta beraz, ezer baino lehen, izendatzearen kritikan abiatuko da Azkue gaztea:

Eurenez irabia leikezan aditzai' *araugeen* aititza emon dautse izkindari geienak.

Euskaraz ezdago Araugetasunik, ezunerik bere ez: izkindean sarreran esan neuanez' bezte izkeretan *ezune bageko araurik ezdago ezdagola* esaten daue, gure izkeran ostera *ezdago ezunedun araurik..*

Araugetasunak eta ezneak izkiraginen buruetan ostattua sarri artutен daue; eta uste dain baino sariago geugan ezdakuskuzanak izkeretan ikusi uste izaten dauguz.

Aditz irabiagarriak ezaiz Araugeak: euren izatea euskal-edertasunik andienetarikoa dai⁵⁵.

2.2.5.2. Izena izanari ez dagokiarik bada, *Izkindearen* ahalegina aditz trinkoen edo *irabiagarrien* lekua eta jokaeraren zergatia azaltzean ezarriko da. *Araugeatasunik* edo irregularitasunik ez dela erakusteko zedarriaz, eta beti naturareniko egokitasuna gogoan izaki, Azkueren azalpenea filosofiaren eremuan sortzen da, gero hizkuntzaren igerotzeko: hizkuntzaren datuak denboraren izateari egokitzten zaizkiola frogatuko zaigu, edo frogatu nahiko, bederen.

55. AZKUE, 1891, 155. or. "A los verbos que pueden conjugarse por sí mismos dan la mayoría de los gramáticos la denominación de irregulares. En Euskara no hay irregularidades, ni excepciones tampoco: como dije en la introducción de la gramática, en otras lenguas suelen decir que *no hay regla sin excepciones*, en nuestra lengua, por lo contrario, no hay regla que tenga excepciones. Muchas de las irregularidades y excepciones toman posada en las cabezas de los escritores; y más frecuentemente de lo que se juzga las que no vemos en nosotros juzgamos verlas en las lenguas. Los verbos conjugables no son irregulares: su naturaleza es de las mayores bellezas del euskara".

56. AZKUE, 1891, 158. or. "Los verbos conjugables, según se expondrá muy pronto, sirven para expresar *ideas momentáneas*; los verbos inconjugables (también esto se expondrá poco más tarde) no tienen *ideas momentáneas* y no pueden expresarlas. Las otras ideas, las *anteriores*, las *posteriores* y las *habituales* igualmente se manifiestan en unos verbos que en otros: con auxiliares".

Izkindearen aditz-sistema aztertzen hasi aurretik esan dugunez (ikus 2.0.2. puntua), bi ideia nagusik egituratzen dute *Izkindeak* eskeintzen duen aditz sisteman azalpena: *izan* aditzak eta *denboraren* konzeptioak. Aditz trinkoek baina, leku berezi bat behar lukete egitura honetan. Ikusi dugu *izan* aditzaren betebeharra zein den; ikusteko dugu oraindik denborari dagokiona. Eta aditz *irabiagarrien izatea* azaltzean hain zuzen abiatzen da Azkue, bere denborari buruzko eraiketa hau jasotzen. Horregatik, berak azkenerako uzten duena, hots, *aditz irabiagarrien izatea* (158. or.) izango da guk oraingo honetan jorratuko duguna, aldera utziz *Izkidean* aurretik agertzen diren aditz trinkoen kopuruari eta jatorriari buruzkoak (ik. 155-8 tartean).

2.2.5.3. Laburbilduz, Azkuek defendatuko duen tesia hau dugu: aditz trinkoek, une batean, instant batean gertatzen diren ideiak edo ekintzak adierazten dituzte, eta beraz, horrelako ideiak azal ditzaketen aditzek bakarrik dute hitz bakar batean jokatuak izateko aukera. Bere hitzetan:

Aditz irabiagariak' laster azalduko dainez' *aidako usteak* agertuteko balio daue; aditz irabiageak (au bere gerotso azalduko dai) *aidako usterik'* ezdauke ta ezin agertu daikee. Bezte *usteak'* lengoak eta oituak zein aditz batzukaz zein bezteakaz bardin agertutenean daiz: laguntzaileakaz⁵⁶.

Azkueren eritzian, *aidako usteak*, hots, une batean gertatzen direnak, ez dagozko denborari. Bitxi samar gerta daitekeen hipotesia dugu hau, eta aurrerago, *Izkindearen* denbora konzeptuaz aritzean aztertuko dugu xehekiago; oraingoz, esan dezagun Azkuek elkartze bat egiten duela bereizketa honetaz baliaturik: denborazko ideiei dagokie aditz nagusi-laguntzaile bidez eraturiko aditza, eta denborazko ez direnei, hau da, une bateko ideiei (*aidako usteai*), aditz trinkoa.

Itz gitsiagotan: *usteak'* *aldikiak* eta *aidakoak* izan leikez: *uste aldikiak* (nai *lengoak* nai *etorkizunekoak*) aditz binaz agertu bear izaten daiz, aditz lagunduaz ta laguntzaileaz; *aidako usteak* ostera aditz bat irabiatuaz agertutenean daiz⁵⁷.

2.2.5.4. Hala ere, une bakar bateko ideia hoiek zeintzu diren zehazteko orduan, Azkueren argudioa bere buztanari estekatzen zaion sugea bihurtzen da, zeren *aidako usteak* izango bait dira hain zuzen, euskal aditz trinkoek adierazten dituztenak, eta alderantziz, euskal aditz trinkoek *aidako usteak* bakarrik adieraziko bait dituzte. Honela, *aidako usteak* definitzeko bidea, *aditz trinkoak* dira:

ADITZ EURENEZ IRABIAGARRIAK DAIZ' AIDAKO USTEAK AGERTUTEKO DAUKAGUZAN ADITZ BAKARRAK.

Autse dai aditz onen izatea: aidako usteak agertuteara.

Aidaan erneten daiz adinean uste onek: *dakart' nekarren' bekar' dakarrela' banekar' nekarke;* aidaan *nator' nentorren...*, aidaan *gabilz' genbilzan...*, aidaan *daroazu' zeroan' baze-ro'a' zeroake...* eta aidaan agertu leikez' eurenez irabiata' onelango aditz guztiak. Adinean bertan ernaldu leizekan usteak daiz aditz onek. Gizonak' oroiimenik eta irudimenik ezbaleuka' ezleukez uste aldikiak beragandu al izango, aidako usteak' bai⁵⁸.

57. AZKUE, 1891, 159. or. "En pocas palabras: las ideas pueden ser de tiempo y momentáneas: las ideas de tiempo (tanto las anteriores como las posteriores) suelen deber expresarse con dos verbos cada una, con verbo auxiliado y auxiliar; por lo contrario las ideas momentáneas (ó de presente) se expresan conjugando su verbo".

58. AZKUE, 1891, 159. or. "LOS VERBOS POR SI MISMOS CONJUGABLES SON LOS UNICOS VERBOS QUE TENEMOS PARA EXPRESAR LAS IDEAS MOMENTANEAS. Tal es la naturaleza de estos verbos: el expresar las ideas momentáneas ó de presente. Al (en) momento suelen concebirse en el entendimiento estas ideas: *traigo, traía, traiga él, si yo trajera, yo traería;* al momento *vengo, venía...* al momento *andamos, andábamos...* al momento *lleváis, llevabais, si llevárais, llevaríais...* y momentáneamente pueden manifestarse, conjugados por si mismos, todos los demás verbos de esta naturaleza. Estos verbos son ideas que se pueden concebir en el mismo entendimiento. Si el hombre no tuviera memoria é imaginación no podría asimilar las ideas de tiempo, las ideas momentáneas sí".

Gainerako aditz guztiak, hau da, jokaera trinkorik ez dutenak, ez lirateke uneko ideiak adierazteko gai. Ikusten denez, euskara hizkuntza naturala dela erakusteko jarraitzen den arrazoibidea, itzulingurukaria da: naturaren legeak euskararen jokabidearen arauera erabakitzentzira dira, eta gero erakusten euskara lege hoiei egokitzentzira zaiela, inguruko hizkuntzak ez bezala:

Beste aditz guztiak aidako usteak ezin euki daike.

Erderaz aditz guztiai aidako usteak ezarten dakioez: astertu daiguzan batzuk. Ezin esan leike *llego*. Llego dinona' edo *elduteko* edo *elduta* dago: *elduteko* badago' geroko ustea bakanrik adieraz dake (*elduko nai*); eta *elduta* dagonak' *lengo ustea* edo *igarorikoa* bakarrik esan al izaten dau (*eldu nai*). *Como* bere ezin esan leike: iaki bat daukagunean' eskuetan eukiez gero' *iateko dago* (geroko ustea), aoan eukita bere' *iateko dago*; urdaileratutá *ianda* egoten dai (*igaroriko ustea*) (160. or.).

2.2.5.5. Aditz trinkoek bultzada nabarmena ezagutu zuten XX. mendearren hasieran batez ere Aranatarren eskolak bultzaturik; izan ere, gai honen inguruan eztabaidea franko sortu zen⁵⁹. Azkuek, bizkitartean, ez zuen, luzarora behintzat, eritzi aldaketarik egin orain azaldu ditugun puntuetan. Hain zuzen ere, aditz trinkoek idazten dio Luis Eleizalde gutun batean, 1909.ean, *Izkindeako eritzi hauek errepikatuz*:

Por cierto en sus palabras hay una o dos flexiones de conjugación sintética por el estilo de las que Vd. me cita. En el canto de la Aurora (solo de tenor) se dice: "Egutaizeak zugatzetan lotan egozan loratxu murgil-barriak amak bere seña legez, arnasa gozo bigunez *daradoskaz*". Tengo el mismo despegó que V. a la conjugación perifrásica, sobre todo en el verdadero presente. Pongo ese calificativo por si V. no hubiera leido mi manera de pensar acerca de la materia en el *Euskal-Izkindea*, mi obra de entusiasta y punto menos que atolondrado novicio. Entre algunas novedades que allí expuse figura la teoría del presente, la esencia de nuestra conjugación. "No todos los verbos tienen ni pueden tener presente. Solo aquellos, cuya acción concebimos al expresarla, gozan de presente, y por lo mismo de conjugación". Nator, nago, noa, nakus, narokus, darabil, daragoyo... la acción de cada uno de estos verbos concebimos en el mismo momento en que la expresamos. "Caigo, como, llego, muere..." indican acciones que no las podemos concebir presentes. Al concebirlas han pasado ya, han muerto. Al decir "caigo, como, llego" enunciamos siempre su acción en una de estas cuatro frases: "estoy cayendo, suelo caer, caeré, he caido; estoy comiendo, suelo comer, comeré, he comido; estoy llegando, suelo llegar, llegaré, he llegado". Al decir "veo", veo perfectamente; al decir "llego" o estoy para llegar o he llegado ya. Por lo cual, así como de verbos como *eradoski* "amamanter" concibo el *daradoskaz*; de *eldu* "llegar" no concibo *nel ni gelz*; ni de begiratu concibo *dabegirat*. No me atrevo a decir tanto de su *dargu*. Si no lo concibiera se lo diría sin ambages, así como del *narorke* le digo (acaso me equivoque) que no lo concibo, no lo conjugo en mi mente, ni me ofrece la lengua, ni suena en mis oídos; pues como he dicho, su *naror* para mí es o *erorten naiz* o *erorten nago*, *eroriko naiz* o *erori naiz* (IRIGOYEN 1957, 319-20. or.)

Ikusten denez, denboraren konzeptzioari erabat loturik daude Azkueren aditzari buruzko tesiak. Ikus dezagun, bada, zertan den denbora euskal aditzean, *Izkindearen* arauera.

2.3. Denbora Aditzean.

2.3.1. *Izkindearen* aditz sistema egituratzen duen bigarren ardatza dugu, esan bezala, denboraren konzeptzioa. Azaldurik dago, honez, gero, *Izkindeak* ageri

59. Eztabaidea honetan, zeintzu aditz joka zitezkeen zen arazo nagusia: aditz guztiak, ala bokalez hasten zirenak bakarrik. Azkue, eztabaidea honetatik kango egon zen, aranatarren arteko auzia zelako batik bat.

duen joera filosofikoa eta joera honen zergatia. Alabaina, orain aztertu asmo dugun puntu honetan eramatzen du azken muturreraino Azkuek, gaztaroko zale-tasun hau. *Izan* aditzari buruzkoak ezarririk utzi ondoren eta aditz-jokoa erakus-tera igaro aurretik eskeintzen digu *Izkindeak*, *aldia aditzean* izeneko atala, honako galdera ezin filosofikoagoarekin irekitzen zaiguna: “¿Zer dai *aldia*? ”:

Dirudien baino zailagoa dai itaune oni argi ta zietz erantzutea. Aldia geure artean dau-kagu, beroni dautsela dagoz gure arnasa’ gogamen’ gurari’ asmo ta egimen guztia: onelan ta guzti bere buru-auste andia emon dautsez itaune onek iakinutai. Guztion eritsiak ezin erakutsi leikez. Balmes iakinut andiana daukat eritsi zietz ta egitsuentzat (161. or.).

Balmes-en eskutik abiatzen da, bada, Azkue, bere eraiketa filosofiko-gramati-kalaren oinarriak ezartzen. Iza ere, gorago ikusi ditugun pasarteek erakusten digitenez, ez da ustekabeen aukeraturik suertatzen Balmes, Espaniako eskolastizismo eraberrituaren buruaren izena, eta Azkuek bere gaztaroan bizi zuen kultur giro eta joeren arras adierazgarri gertatzen da. Hain zuzen ere, *izan* aditzaz ihardutean *Izkidean* biltzen diren iruzkin filosofikoak, izatearen zernolakotasunari buruz, eskolastizismoaren adarretatiko abarrak baino ez ditugu. Balmesen *Filosofía fundamental*-etik jasoak dira, *Izkindeak* biltzen dituen denborari (*aldiari*) buruzko definizioak:

Aldia modu bitara ikasi ta adiratu leikela dino españar iakinunak. *Gauzetañ* “euron igaromena” dai aldia; *adinean* barriz “ezak ta izateak dauken alkartasuna gogoratutea” dai⁶⁰.

Definizio bietatik, adimenari dagokiona aukeratzen du, horixe bait litzateke aditzaren jokabidean darabilguna:

Aditzean’ adinean gogoratutenean dain erara astertu bear dai aldia: aditza’ adinan agermena dai, edo (itz baten esateko) adikuntsaa. Augaitik adinean dagon legezsez agertutenean dau aditzak aldia⁶¹.

2.3.2. Balmesen ideietatik abiaturik, eta metafisika bihurriaren alorrera joaz, Azkuek aditzari egokitzen dio garbiegi gertatzen ez den printzipio-kate bat osatzu, gorago aukeratu duen definizioa:

Azaldu daigun adirapena. Aldia adinean “ezak ta izateak dauken alkartasuna gogoratutea” daila dino Balmes-ek. Edozein aldamenetan’ eta igaromen guztietan ez-izate ta izate bat nai-ta-naiez egon bear daiz.

Aldamenean (igaromenak bere aldamenak daiz) gauza bat bezte baten aldatu ta biurtutenean dai: aldaturiko gauzaa’ len izan itzan, orain ezdai: óna emen eza edo *ez-izatea*; aldamena artu dauen gauzaa oraintse dai: óna *izatea*.

Aditzean izate bat agertutenean dai —*oraingoa*— eta ez-izate bi —*izana* ta *izatekoa*, edo *lengoa* ta *gerokoa*. Izana’ orain *ezdai*, izatekoia’ oraindaino *ezdai*, izatea barriz oraintse dai⁶².

Ondorioz, bada:

60. AZKUE, 1891, 161. or. “Dice el filósofo español que el tiempo puede estudiarse y definirse de dos maneras. En las cosas el tiempo ‘es la sucesión de las mismas’; y en el entendimiento es ‘el percibir la relación del no ser y el ser’.”

61. AZKUE, 1891, 161. or. “En el verbo debe analizarse el tiempo conforme se perciben en el entendimiento: el verbo es la expresión del entendimiento, ó (para decirlo en una palabra) la intelección. Por lo cual el verbo suele expresar el tiempo del mismo modo que está en el entendimiento.”

62. AZKUE, 1891, 161. or. “Analicemos la definición. Dice Balmes que el verbo en el entendimiento es ‘el percibir la relación que tienen el no ser y el ser’. En cualquier mutación, y en todas las sucesiones debe haber por precisión un no ser y un ser. En la mutación (las sucesiones son también mutaciones) se muda y convierte una cosa en otra: la cosa mudada antes fué, ahora no es: hé aquí el *no ser*; la cosa que ha recibido la mutación es ahora mismo: hé aquí el *ser*. En el verbo suele expresarse un ser —el de ahora (presente)— y dos no-seres —el *sido* (pretérito) y el (que ha) *de ser* (futuro) ó el *de antes* y el *de luego*. Lo *sido*, ahora *no es*; lo que ha de ser, todavía *no es*; y el *ser*, ahora mismo *es*”.

«Zer dai bada aldia aditzean? Izanak eta izatekoak (onetsek daiz ez-izate biak) izateaz beraz dauken artu-emona gogoratutea (161. or.)

2.3.3. Azkueren filosofiarako trebetasuna gora-behera, axola diguna da eritzikatramilatsu hauen ondorio bezala sortzen duen denbora gramatikalaren egitura. Egitura honek, laburbilduz, hiru atal nagusi ditu: lehenik, *oraina*, denboraren oinarria litzatekeena; bigarrenik, *iragana*, denboraren atzeranzko muga genukeena; eta azkenik *etorkizuna*, denboraren aurreranzko muga. Aitzitik, denboraren ardatz eta mugarri diren hiru atal hauek, ez dira *denbora*; hau, elementuon arteko erlazioa bait da:

Izatea edo aidako ustea ezdai aldia' aldian zimendua baino; izana eta igaroriko ustea ez dai aldia, aldian muga bat dai; izateko edo etorkizuneko ustea bere ezdai aldia, aldian bigarren mugaa dai. Aldia' alkarbidea dai; alkarbidean gitxienez *gai bi* bear izaten daiz. Izatea *gai bat* baino ezdai, bat izana, bat izateko: gai batez ezin aldirik eratu leike; gai batez' iraunkorra izanez gero' betikotasuna eratu doa: iraunkorra izan ezik' aidaa⁶³.


2.3.4. Azalpen guzti honetan ez da behin ere galtzen mintzoaren helburu nagusia, hots, euskarak izadiarekiko duen egokitasun berezia. Honela, denboraren izate hau itxuratu bezain laster, banaketa honek giza-adimenarekin duen atxikitakoa erakusten saiatuko zaigu Azkue, filosofia eskolastikoaren lanabesak erabiliz:

Izateaz lengo usteak eta gerokoak daukezan alkarbideak' daukez eurori dagokioezan arimeko iru almenak bere: gomutaak adinari beronek len uste izaniko gauzaak aurkeztutenean dautsaz; eta irudimenak adinari beronek gero uste izango dauzanak antzeztu daroatsaz. Adinak berez zerbait uste izan dake; gomutaak eta irudimenak eurenez ezer bere ez (163. or.).

2.3.5. Erlazio-sare honen ispilua litzateke, azkenik, euskal aditza. Denbora, gorago aipaturiko hiru atalen arteko harremanak lirateke:

Izanak izateaz daukan alkarbidea dai aldi bat: *lengo aldia*. Izatekoak izateaz daukan alkarbidea dai bezte aldia: *gerokoa*. *Aldi bi* dagoz bada: lengoa ta gerokoa (162. or.).

Aditzak denbora bakar bi ezagutzen ditu beraz. Harreman sare guzti hau argitzeko, hurrengo eskema hau lagungarri gerta dadin eskeintzen dugu:



63. AZKUE, 1891, 162. or. "El ser ó la idea de momento (presente) no es tiempo, sino fundamento del tiempo; lo sido ó la idea pasada no es tiempo, es un límite del tiempo; lo de ser ó la idea futura no es tiempo, es el segundo límite del tiempo. El tiempo es relación; en la relación suele haber menor por lo menos de dos elementos. El ser no es más que un elemento, uno lo sido, uno lo (que ha) de ser: con un elemento no puede formarse tiempo: con un elemento, siendo duradero, se forma la eternidad; no siendo duradero, el momento.

2.3.6. Honen ondorioz, bada, denborazko ideiak, bi elementuren harreman-tzea direnez gero, bikoitzak ditugu beren izaeran: horra hor zergatik banatzen dituen euskal-aditzak bi ataletan:

Uste aldiakiak ezdaiz bakarrak: gai bi daukez, eta biok aldean alkartuta. Lengoaldian' igaroriko ustea eta aidakoa alkartutene daiz: alkarbide au gomutaak eta adinak gogoratutene daue. Augaitik aditzean lengo aldia agertuteko' itz bi bearizaten daiz: bata' igaroriko ustea (gomutaak oroiturikoa) agertuteko, beztea' aidako ustea (adinen bertan ernerikoa) adierazo dain. Argiago: aldiak edo euretan alkartutiko gai biak agertuteko' aditz bi bear izaten daiz: aditz *lagundua* (aditz au berez ezin irabia leike, *ezdailako*) eta aditz *lagunkia* (aditz au berez irabiaren dai) (163. or.).

Eta era berean, honek azalduko luke aditz trinkoen izatea (Ikus 2.2.5.3. puntua): aditz trinkoek *aidako usteak* adierazten dituzte; *uste* edo ideia hauek, azaldu den bezala, ez dira denborazkoak, ez dira elementu biren harremanetik sortzen. Beraz, ideia hauek egokiro adieraziak izateko, hitz bakar batek bildu behar ditu, elementu bakar baten erakusgarri direnez gero:

Izatea edo aidako ustea adierazoteko' aditz bat dai naikoa; bigarren aditz bat onetarako oituko balitz' larregitzat' ez beartzat eta tšartzat euki bearko litzateke⁶⁴.

2.3.7. Bestetik, eta *Izkindearen* denbora-egitura azaltzen bukatzen, bai *aidako usteak* eta bai *uste aldiakiak*, hots, iragana eta etorkizuna, bi eratakoak izan daitezke: *urrekoak* edo *urrunekoak*. *Urreko* aditzak, oro har orain aldiko laguntzailea daramatenak lirateke; *urrunekoak*, ordea, iragan aldiko laguntzaileunak dira. Aditz trinkoen kasuan, *urrekoak* ditugu orain aldikoak, eta *urrunekoak* iragan aldikoak.

Azkueren azalpenean, *urreko* aditzak dira benetako *oraina* oinarri harturik eratzten direnak, eta *urrunekoak* iragan aldiko *orain* bat oinarri dutela sorturikoak:

¿Zer dai bada *urruneko* irabiamena? Aidako ustea dai, baina ez arean' benetan edo egiaz, *aida eritsia* baino. Izatez ta arean' igaroriko ustea dai; baina geure adina bertaratuta' aidako ustea egiten daugu. "Atzo neukan". Gertari onetan' *atzo* igaroriko ustea dai, eta *neukan* esateko' adina atzoko egunera *urruneratuten dai*, eta igaroriko egimen ori' aidako ustetzat adierazoten dau. Onelango usteai *urruneko usteen* aititz'a ondo dagokioela dirudi bada. Aititz au A. Zabalagandik artu daut⁶⁵.

Urreko eta *urruneko* arteko banaketa honek azalduko luke beraz, zergatik euskal aditzak sortzen dituen bere aldiak aditz nagusi berari orain aldiko eta iragan-neko laguntzaileak erantsiz, hots, zergatik eratzten diren *ibili naiz* eta *ibili nintzen*, edo *ibiliko naiz* eta *ibiliko nintzen*, eta abarren antzeko bikoteak. Azkuek Zavalagandik hartzen du banaketa honen izena, berak aitortzen duenez, eta hain zuzen ere, Zavalak *Izkindearenaren* antzeko azalpen bat eskeintzen du:

Los tiempos son solo tres: presente, pretérito y futuro. Pero el tiempo del atributo del verbo puede compararse ó á solo el momento en que se dice la expresión: v.g. "yo amo",

64. AZKUE, 1891, 163. or. Era berean, etorkizuneko aldean bi hitz erabili beharrean, batek adieraztea aditza, gaitzetsi egiten du Azkuek, bidenabar, inguruko hizkunta boteretsuen desegokitasuna erakutsi nahiean: "Bezte izkera batzuetan aditz batez aldi au [etorkizuna] bere sarri iragar doa. Aldian izakera ostikopeten daue onelango esakeraak", 164. or.

65. AZKUE, 1891, 166. or. "¿Qué es pues la conjugación remota? Es idea presente, mas no realidad, formalmente ó con verdad, sino *momento supuesto*. Por naturaleza y en realidad es idea pasada; pero trasladando nuestro entendimiento solemos hacerla idea momentánea o presente. 'Ayer *tenía*'. En este ejemplo *ayer* es idea pasada, y para decir *tenía*, el entendimiento se aleja ó remueve al día de ayer y esa acción pasada suele dar á entender por idea momentánea. Parece, pues, que á tales ideas les cuadra bien la denominación de *ideas remotas*. Esta denominación la he tomado del Padre Zavala".

que pertenece á solo presente: “tú *leerás*” á solo futuro: ó puede tambien decir relacion al tiempo del atributo de otro verbo ó adverbio que debe acompañar, para que concluya y perfecione el sentido. Y en este último caso podrá ser que comparado con el uno, pertenezca á un tiempo, y cotejado con el segundo, á otro, segun que fuere simultaneo, anterior ó posterior á cada uno de ellos. En la siguiente oración “yo *oia*, cuando tu leiste la carta”, *oia* respecto al momento en que se dice, es pretérito, porque su accion es ya pasada; mas comparado con el verbo *leiste*, es presente, porque ambas se verificaron á un mismo tiempo.

Tambien el tiempo pasado, y el futuro pueden estar mas próximos, ó mas remotos que de aquel, en que se enuncia la oracion. “Yo *he llevado*” es un pretérito próximo, y aquel, cuya ejecucion se habrá de diferir, es un futuro remoto⁶⁶

2.3.8. Bainatzerago joaz, Izkindearen denbora banaketari lotuago ageri denik aurki daiteke, hain zuzen ere, eta espero zitekeenez, Astarloaren lanetan. Astarloak hiru aldi bereizten ditu, eta aldi bakoitzean bi sail: *real* eta *apostrófico*, eta azken bereizketa hau zertan den azaltzen zaigunean, Izkindeak emaniko arrazoi oihartzuna hartza ez da zaila:

No se halla confuso el bascuence como la mayor parte de los demás idiomas en la denominacion de sus tiempos. Tiene dos presentes; uno real y verdadero; otro apostrófico. Esta bella y armoniosa division de sus tiempos da á nuestro idioma todo el realce que necesita para que esta parte se le repete superior a las demás. (...)

(...): el primer presente es real y verdadero, como que la accion se ejecuta en aquel mismo que se habla: el segundo presente es apostrófico, pues no se ejecuta cuando se habla; pero es presente en aquel tiempo en que se apostrofan los que hablan (1883, 695-6. or.).

Eta antzekotasun hau areagotu egiten da, Izkindeak dakarren aditz-denboren laukia *Discursos*-ek erakusten duenarekin erkatzean. Bereizkuntzarik nabariena orainaldiari dagokio, baina hala ere, oro harreko asmoa berbera litzateke bietan. Izkindeak alde batera jartzen ditu aditz trinkoak, eta bestera iraganaldia eta etorkizunekoak:

Aidako usteak	{	URREKOAK: Dakart, dakark, dakarn, dakar, ...
		URRUNEKOAK: Nekarren, Ékarren, Ekarren ...
Uste aldi- kiak	{	LENKOAK { URREKOAK { Ekarri daut, Ekarri da... URRUNEKO- AK { Ekarri neuan, ekarri éuan ...
	{	GEROKO- AK { URREKOAK { Ekarriko daut, ekarriko da... URRUNEKO- AK { Ekarriko neuan, eka- rriko euan ...

(166-7. or.)

Izkindea eta Astarloaren banaketa baliokideak dira, beren arteko ezberdintasunez gaindi, zeren Azkuek *ekarten daut* eta *ekarten neuan* sartzen ez dituen bezalaxe, durangarrak ez dituen biltzen aditz trinkoak, eta nolabait, Azkuek hauei ematen dien lekuak ageri zaizkigu -*ten* bidez eraturiko aditz formak *Discursos*-eko sailkapenean:

66. ZAVALA, 1848, 3. or. Deitura hau, noski, ez zuen Zavalak asmatu dena den; bazuen aurreko tradiziorik beste gramatika askotan, *imperfectio* eta *indefinido* adierazteko.

Tiempos	Presente	{ Real	}	Il-ten	{ Dot
	Pretérito	{ Real	}	Il	{ Dot
	Futuro	{ Real	}	Il-go..	{ Dot
		Apostrófico			Neban
		Apostrófico			Neban
		Apostrófico			Neban ⁶⁷

Honenbèstez, azterturik ditugu *Izkindearen* aditz-jokoak ardatz bezala daramiltzan ideia nagusi biak: *izan* aditza, euskal aditz-jokoaren sorburua, eta *denbora* aditzean. Ideia bi hauek, bestalde, eten-ezinezko lotura dute. Esan daiteke, beraz, ardatz berezi bi osatu beharrean, bion elkarketak sortzen duela *Izkindeak* eskeintzen duen aditz-jokoaren lepazurra.

Euskal-Izkindearen aditz-jokoa da gure hurrengo aztergaia. Bertan, honaino jorraturiko ideia biren arteko elkar-atxikitzea erakusten saiatuko gara bereziki, eta honekin batera, eraberritze guzti honek dituen ondorioak, hots, aditz paradigmatan agertuko diren aditz-formak.

2.4. Aditz-Jokoa edo Irabiamena.

Irabiamena “gai batzuk aditz-gunari ezartea” dai; edo obeto “egilea ta adizkia gai bearatzat” eta bezte zertzelada batzuk ezebeatzat aditzaz batera iragartea” dai irabiamena⁶⁸

2.4.1. Definizio hau ezarririk abiatzen da Azkue, euskal aditz-jokoa aztertzen. Iku daitekeenez, definizioa erabat mugatua da, hots, euskal aditzaren erabideari egokitua. Funtsean, aditz laguntzailearen egituratzea aurkezteko modu hau, egun darabilguna bera litzateke, Azkuek gardenki azpimarratzen bait du, euskal aditza atal edo morfema zenbaiten elkarketa dela, atalok beti berak direlarik.

Izkindea baino lehenagoko gramatika lanetan, egileak ohartzen ziren aditza zenbait atalen konbinatze-antzeko zerbait zela, baina, haatik, aditz-jokoak aurkeztekiko orduan, latinaren inguruko hizkuntzen eraginera makurtzen ziren: forma zerrendak dira nagusi, zenbait iruzkinez ornitua kasurik hoherenean⁶⁹. *Izkindean*, ordea, aditza osatzen duten morfemak (bere hizkuntzan *atalak* edo *gaiak*) dira nagusi azalpenean, eta zerrendak, aldiz, bukaeran eta eraskin gisa, buruzikaste lanak errazteko eskeintzen den lagungarria.

Ez dakit ogei gauzak euki dakeezan artu-emon guztiak inork gogoratu al dauzan, ezetz uste daut: euskal-irabiamenean eun gai baino geiago alkartutenean daiz (177. or.).

Hiperbizkaieraren aditz morfologiaren bilakaerari dagokionez, bi arazo ditugu interes handieneko: batetik, —*it*— pluralgilearen desagertzea, —*z-ren* alde, eta bestetik aditz laguntzailearen erroarena, hots, literatur tradizioan *deutsat* e.a... direnak *dautsat* e.a... bihurtzen dituena. Arazo biak, azken batean, analogiaren

67. ASTARLOA, 1883, 695. or. Ohar bedi, Azkueren denbora sistemak duen hutsa, orain aldiko aditz forma perifrastikoi dagokiena dela. Gu ez gara gai hau sakontzera abiatuko, lana larregi ez luzatzearen. Areagoko argibideetarako, iku bedi AZKUE, 1891, 160-164-168. or.

68. AZKUE, 1891, 177. or. “La conjugación es” (la operación de) imponer unos elementos al núcleo verbal”; ó mejor, “indicar juntamente con el verbo el agente y el objeto verbal como elementos necesarios y otras circunstancias como elementos innecesarios” es la conjugación”.

69. Adibide gisa, *Izkindea* baino lehenagoko edozein gramatika har daiteke eskuartean hau egiazatzeko. Are gehiago, Zavalaren lanean, nahikoa garbi ageri da idazleak morfemen zatiketaren ideia garbi duela, behi baino gehiagotan egiten bait dira morfema-elkarketei buruzko oharak; hala ere, gramatikak erromantzeen eredu jarraitzen du, aditz formen zerrendak direlarik gida.

eraginak azaltzen ditu, ikusiko dugunez, eta beren azalpenean pausatuko gara batez ere, *Izkindearen* aditz-jokoaz aritzean. Haatik, puntu hauetara artez jo beharrean, Azkueren lehen lan honek aditz-erabidean aurkezten duen ikuspuntu orokorra itxuratu gogo genuke zeren, berriz ere, gramatika honek urratuko bait du bere ondorengo hainbat eta hainbatek, urrunago nahiz hurbilagotik, jarraituko zuten ildoa.

2.4.2. Definizioan irakur dezakegun bezala, *Izkindeak* euskal aditz-jokoa erro baten inguruan bilduriko zenbait atalen elkarketa bezala eskeintzen du. Atal hauek, Azkuek *irabiagaiak* deitzen dituenak, bi talde nagusitan banaturik leudeke:

2.4.2.1. *Irabiagai bearrok*. Talde honetan, aditza jokatzean ezinbesteko gertatzen diren atalak bilduko lirateke. Sail honetan ditugu bada: aditz-erroa, *nor* kasuari dagozkion markak, eta, aditz trantsitiboetan, ergatiboa adierazten duten atalak. *Izkindearen* hizkuntzan, *gunak*, *adizkiak* eta *egileak edo egile utsak*.

Aditzan irabiagai bearrok irutzuk daiz: *Gunak, egile utsak, ta adizkiak* (178. or.).

2.4.2.2. *Irabiagai bearrezak*. Atal hauek, ez dira aditz-forma guztietañ derri-gorrez agertzen; ager daitezkeenak dira.

Orainarte asterturiko irabiagaiak (batzuk edo bezteak) irabiamenean beti oitu bear izaten daiz, orain astertuko dautazanak' ez. Augaitik arek irabiagai beartzat azaldu nai izan dautaz, onek ezbeartzat (198. or.).

Sail honetan biltzen dira aditz laguntzaileari erantsi dakizkiokeen gainerako atalak, hots:

a.) Aditz-era adierazten dutenak: potentzialaren *ke* marka, eta baita *Izkindean* aditzaren *aldamentzat* hartzen diren gainerako marka guztiak ere: imperatibozkoak, baldintzazkoak, baiezko *ba, ez, ote...* Guzti hauek, *aldamenak eta aldagaiak* izeneko taldea osatzen dute. (Honetz ikus 198.etik 214.erartekoak).

b.) Perpaus txertatuen lotura markak. Bi talde nagusik osatzen dute sail hau: batetik, Azkuek *Alkargai sortuak* deitzen dituenak, hau da, —(*e)n* [*Izkindean n*], eta —(*e)la* [*Izkindean la*]. Hauetatik eratorriak lirateke gainerakoak, hain zuzen *alkargai eratorrien* sailaren barne daudenak: —*lako, —lakoan, —nean, —neko, —nez, —netik...* *Alkarbideak eta alkargaiak* ditugu guzti hauek (214.etik 221.era).

c.) *Arkaiak*. Izen honekin adierazten dira *Izkindean, nori* marka daramaten atalak: ‘*Arkaiak*’ euron aitzak agiri dauenez’ egimenak artutea adierazoteko balio dauen irabiagaiak daiz’. Atal edo morfema hauek *ezbeartzat* hartzeko arrazoia, zera litzateke: *Izkindearen* arauera, aditz-joko bi eratakoa izan daiteke: intrantsitiboa edo *euskoia*, edo trantsitiboa edo *biralkoia*. Bi aditz moeta hauek, *nori* har dezakete edo ez; beraz, NNi moetako aditzak, *Nor* sailekoak lirateke, eta NNN moetakoak, berriz, NN sailekoak: lehenengo biak *euskoien* taldekoak, eta bigarrenak *biralkoienak* (221.etik 232.era).

d.) Azkenik, *irabiagai ezbearren* taldeko osagai genituzke, alokuzio markak, hots, hitanoari dagozkion aditz atalak. Jakina denez, Azkuek garrantzi handia ematen dio *Izkindea* guztian zehar hitanoaren aditz-jokoari; bere proposamenen artean, *zu* izenordainari bere aintzinako plural esangura bihurtzea dago, *hi-ri* uzteko singularreko bigarren pertsonaren adierazpena⁷⁰.

2.4.3. *Pluralgileen arazoa: —it— eta —z.*

Hiperbizkaieraren aditz morfologian zehatz daitezkeen ezaugarririk nabi-rienetatik, NN aditz formetan bultzatzen den analogiaranzko joera dugu bat. Joera honetan, baztertu egiten dira —it— pluralgilea duten formak, eta hauen lekuan jartzen gainerako paradigmarekin erkatuz erregularrago gertatzen diren —z—dunak. Batzutan, forma bat ala bestearen arteko aukera egitean, literatur tradizioan maizago zein bakanago agertzen diren formen arteko aukera bat dugu, esaterako *nituzan/ nebazan, ditugu/ dituguz/ doguz* eta antzekoetan; baina besteetan, dokumentaziorik gabeko formen alde egin ohi da hautaketa; adibidez, eta kasurik argiena aipatzeko, *ditu/ dituz* baztertzen direnean *dauz* tradiziorik gabekoaren alde. Analogiak eta erregularitasunak dute hitza, beraz, ez inolaz ere aurreko literatur ondareak, ez eta ere bizkaiera mintzatuaren datuek. Ikusiko dugunez, joera honen lehen dizdirak *Izkindea* aurretik agertzen dira; osteria, baina, Azkue gazteak mamitzen du eta azken muturraino gauzatzen aurreko lanetan zeharbidezko zena, eta bere lehen gramatikak eskeintzen dio, zalantzarak gabe, literatur hizkuntzarako atea zabaltzeko giltza, eta indarra.

Adizkiak zeintzu eta nolakoak diren azaltzean ikutzen du *Izkindeak* objetu pluralgilearen arazoa. Iuski dugunez, bizkaierazko aditz “garbia” da gramatika honek arautu nahi lukeena; abiapuntu honetatik, eta *Izkindeak* bilatzen duen analogia eta erregularitatea kontuan harturik, ezinbesteko ondorioa da funtziobakoitzarentzat marka bakar bat behar dela eriztea. Kasu honetan, objetuaren plurala adierazteko, —z bakarrik aipatzen zaigu:

Z onek adizkian diakotasuna iragarten dau; egile utsen diakotasuna ezdai iragarten’ iru-garren egile diakotuan *e* eta diarteko *zue* onelangotzat artu ezik. Z diakogina egile utsen ta artzaileen ostean irazten dai: *Dakartaz, dakartsez*⁷⁰.

Ez zaigu bestelako iruzkinik eskeintzen. Haatik, *adizki* guztiak azaldu ondotik, Azkue *diarteak*, hots, herriak, darabilen aditz-jokoari buruzko zenbait ohar egiteko beharrean aurkitzen da, nolabait erakusteko zertan diren bat eta zertan ez, euskara “nahasi” hori eta berak “garbiturikoa”. Bertan, noski, —it— pluralgilea aipatzen du:

Z diakoginan ordez (toki batzuetan beraz batera) *it* gunari artetutu dako: *gauz esateko’ gaITuz, zauz = zaITu, zaITuz; dauguz=dITugu, dITuguz...* It au’ bezte izkerantzetatik artua dai. Au iakiteko’ ezdago bezte aditz batzuk irabiatea baino gauza egokiagorik: *Dakartz, Gaukez, Zatorz...* Bizkaiko izkerantzean’ atzeneko z bage onelango aditzik ezdai inoiz esan.

Bizkaian z dai adizkien diakogina, *it edo tu ez*. Augaitik diartean bere’ leku askotan *dITut esateko’ dItudaz=dôdaz* esaten dai⁷².

Lehenagotik ere nabari daiteke Bizkaiko euskalkiaz arduratzen ziren beste gramatika-lanetan ere, *it-dun* formen gaitzesterik. Adibidez, eta Azkuek gida-

70. Ikus bedi AZKUE, 1891, 232.etik 235-era, baita 70.etik 73. erarteko. Arana-Goirik, ordea, ez zuen eritziz bera; iuski Arana-Goiriri eskeini saioan (LAKA 1986 b, 2.6 eta 2.10 zatiak).

71. AZKUE, 1891, 185. or. “Esta z suele indicar pluralización del objeto verbal; la pluralización de los agentes puros no suele indicarse, á no ser que se tomen por tales la e del tercer agente pluralizado y el vulgar *zue*. Lá z pluralizadora se aglutina detrás de los agentes puros y de los recipientes: *Dakartz* (los traigo), *dakartsez* (se los traeré).

72. AZKUE, 1891, 191-192. or. Ohar bedi Azkuek bizkaierazko datuak ez dituela zuzen ematen; izan ere, ugari dokumentatzen dira *it-dun* aditz-formak, —z—rik ez daramatenak: *ditu, gaitu...* *Izkindean* bertan, 191. orrialdean aukitzen ditugu *ditu, gaitu, zaitu...* *Diarteak* erabili ohi dituen aditz formak aurkezten dizkigun taulan.

liburu izan zituenak aipatzeko, Zavalak ageri du honelako joerarik: —z— plural-gilea, bizkaierazkoa bakarrik den marka bezala ageri da:

Modo fácil que tiene el dialecto vizcaino de reducir á artículos de paciente de plural los de paciente de 3.^a persona de singular.

La pluralidad de 3.^a persona paciente se denota constante y uniformemente en toda la conjugación de nuestro dialecto mediante una *z* colocada al fin del artículo ó cerca de él, y de suerte que jamás se le sigan sino la *n* de pretérito, sujuntivo ó sexo femenino, ó la *c* de masculino. Esta sencillez y uniformidad hace sumamente fácil y espedito su uso” (1848, 35. or.).

Honela, bada. *it-dun* formak erregulartasun hau apurtzen letozke. Honengatik, Zavalak *it* markarik ez duten aditz formak aukeratzen ditu:

Nada digo del *evazan*, *ev'ezan*, *nevazan* de Lequeitio, y aun los dos primeros de Orozco...: ni del *nendun*, *nenduzan*, *eud'ezan* de todo el centro de Vizcaya, que sin duda son de una formacion más conforme al resto de la conjugacion, que *cituan*, *cituen*, *nituan* que han adoptado nuestros escritores: nada digo, repito, porque dichos articulos insertaré yo en mi conjugacion⁷³.

Alabaina, hemen datza hain zuzen ere, Zavala eta Azkueren arteko alderik garrantzitsuena: Zavalak, bizkaieraz ohizko diren aditz formen arteko aukera egiten duen bitartean, *Izkindeak* forma hoien biziaz landa egiten du bere eraiketa. Adibidez, nahiz Zavalak —z— dun formak nahiago izan, bere paradigmata beti ageri ohi da *ditu forma*⁷⁴, eta honela mintzatzen zaigu *it* pluralgileak bizkaierazko aditzean duen lekuaz:

Bien es verdad que en Vizcaya son mas usuales los que no llevan tal aditamento, si exceptuamos á “*d-it-u* y *bal-it-u*” que se usan esclusivamente, y en parte de ella á “*d-it-u-e*, *n-it-u-an*, *c-it-u-an*, y *bal-it-ue* con sus correspondientes familiares (63. or.).

Izkidean, ordea, paradigma guztia eraberritzen da erregulartasunaren eta analogiaren izenean. *It* pluralgiledun formek ez dute beraz lekurik bizkaierazko aditz garbian, eta ezabatu egiten dira besterik gabe, literatur tradizioan izan duten bizitza, eta are bizkaitarren ahoetan dutena gora-behera. Hau da *Izkindeak* eskeintzen duen aditz-formen laukia, NN orain aldikoan:

73. ZAVALA, 1848, 56. or. Joera bera aurki genezake Campionen gramatikan: “Las formas objetivo-plurales ostentan el verdadero pluralizador bizcaino del objetivo, el afijo *z*, pero en concurrencia con el que ya conocemos *it*, que es aquí pleonástico. Existen otras formas sin dicho pleonasmoo: *dodaz*, *dozuz*, etc...” (CAMPION, 1884, 562. or.) edota *nituzan*, *zituzan* bezalako formak komentatzean: “La 1.^a persona está sacada del guipuzcoano, pero se halla pluralizada objetivamente á la bizcaina con *z* pleonástica, y lo mismo les acontece a las 3.^a de ambos números. La 2.^a del singular y la 1.^a del plural procede, igualmente, del guipuzcoano, pero no de las objetivo-plurales, sino de las objetivo-singulares, de las que difieren por la pluralización del objetivo” (584. or.).

74. Ikus bedi, adibidez, ZAVALA, 1848, 74. or., non eskeintzen bait da forma-zerrenda zabala.

75. AZKUE 1891, 189. or.; erka bedi 191. orrialdeko taularekin.

GUNTZAILE BIRALKOIAN URREKO IRABIAMENA

Egile utsak							
	<i>t</i> =yo	<i>k</i> =tú, v.	<i>n</i> =tú, h.	” = él	<i>gu</i> =nosot.	<i>zu</i> =vosot.	<i>e</i> =ellos
ADIZKIAK	N = me		NAUK	NAUN	NAU		NAUZU NAUE
	” = te	AUT			AU AUGU		AUE
	D = lo	DAUT	DAUK	DAUN	DAU DAUGU	DAUZU	DAUE
	G z = nos		GAUZAK	GAUNAZ	GAUZ		GAUZUZ GAUEZ
	Z z = nos	ZAUTAZ			ZAUZ ZAUGUZ		ZAUZEZ
	D z = los	DAUTAZ	DAUZAK	DAUNAZ	DAUZ DAUGUZ	DAUZUZ	DAUEZ

Au erroaren arazoa alde batera utzirik, aurreraxeago aztertuko bait dugu, taula honek erakusten digu zein izango den hiperbizkaieraren joera, oro har. NN formentan. Jakina da hemen aurkeztu ditugun forma guztiekin ez zutela aurrera egingo; hala ere, *Izkindeaz* geroztik, urte gutxiren buruan desagertzen direla esan daiteke, bizkaiera idatzian, aurreko tradizioan erabat arrunt gertatzen diren *ditut*, *ditudaz*, *ditugu*, *dituguz*, *dituez...* eta hauen ordez, forma analogikoak hedatuko dira: *dodaz*, *doguz*, *dozuz...* Are gehiago, *dauz* bezalako forma batek, batere tradiziorik gabea eta *Izkindeaz* jaio zena hizkuntza idatzira, bizkaitartasuna kenduko dio Bizkaian, bai idatziz eta bai ahoz, nagusi zen *ditu* formari.

Paradigmen eraberritze hau, zer esanik ez, NNko aditz forma guztiei ezartzen zaie, bai iragan aldian, baldintzan, e.a... Honela, XX. mendearren hasieratik eta gutxienez gerrrararteko bizkaiera idatzian, *it-dun* formak gipuzkoartzat joko dira, eta testuetan baztertzeko joera nabaria indartzen da, batez ere objetua 3. pertsona denean: *dodaz*, *dozak*, *donaz*, *dauz*, *doguz*, *dozuz*, *davez*⁷⁶.

76. Zur asko, testuen azterketek batek, ondorio interesgarriak emango lituzke forma hauen hedatzeari dagokionez, bai denboraren aldetik, hots zeintzu zabaltzen dira lehenago eta zeintzu beranduago, eta bai testuaren hizkuntza-mailari begiratuz. Gainbegirada baten ondoren bederen, badirudi herriari zuzentzen zitzaizkion idatziek honelako forma gutxiago jasotzen dituztelar, eta, aldi, kultur-maila igo ahalia (zientzia, poesia edo saiakeria), aditz bera gero eta analogikoagoa gertatzen dela. Idazle bakar batek ere, irakurlegoaren arauera egiten dituen aldaketa desanguratu agerten zaizkigu honi dagokionez; esaterako, Evaristo Bustintzak nabarmenki aldatzten du bere hizkuntza, eta ez bakarrrik hiztegi aldetik, *Abarak* bezalako ipui herriarretatik *Euzkerea* edo *Euzkadi* aldzkarikiko artikuluetara: ik. orain haren *Abarak-i* jarri sarreraean 27-29. or. (Euskal Editoreen Elkartea, Zarautz 1986).

2.4.4. *Laguntzailearen erroaz.*

Izkindea guztiko aditza azterzean, berehala kontura gaitezke aditz honek bizkaierazko aditz-forma arruntekin duen alderik nabarienetako bat, nabariena ez bada, aditz hoiek duten erroan datzala. Hori da, esaterako, *deutsat-dotsat* formetatik *dautsat* bezalako forma “garbi”ra dagoena, edo, era berean, *dot* arruntenetik *daut* berreginera aldatzen dena. Azkue gazteak, bere *euskara garbiaren* eten-gabeko bilatze horretan, aditz laguntzaile osoa eraberritzen du, beti bi balio nagusi dituelarik buruan: analogia eta erregulartasuna, hizkuntzetan berritasun froga baitezpadakoak izaki, berak zahartasunerako bidetzat dituena, hau da, euskararen izadiarekiko egokitasuna erakutsi ahal izateko lanabestzat.

Azkuek gogoan dauka, noski, aurkeztuko duen aditz sistema ez dela irakurle euskaldun batek espero zezakeena; hortaz, *irabiagai bearrok* (Ikus 2.4.2.1. puntu) zeintzu eta nolakoak diren azaldu aurretik, hain zuzen hizkuntza errealetik gehien aldenduko den irakaspena delarik, liburuaren sarreran aurkezturiko gida-eritzien errepikapena egiten zaigu berriz ere:

Sarreran esan neuanez’ euskaraz izkera-mueta bi dagoz: euskaraa bera bere izkerantzakaz, eta diartekoak; euskara garbia eta nastua. A bat dai lau edo bost arpegiduna; beztea’ mila modutakoa. Nik aleginez euskara garbia arautu eta erakutsiko daut. Aditz laguntzailean irabiamena dai diartekoak geien esaindu dauena, beronek dauka garbitu ta argituteko pereminarik andiena; onentatse geien saiatu bear dau izkindariak (178. or.).

Azkueren egitamua, bada, ez da inolaz ere herri-euskara, eta euskara horretan bizi den aditza erakustea, baizik euskaldunen, edo zehazkiago bizkaieraz mintzaten direnen ahoetan dabilen aditz-sistematik, *giza-izkeraa* den euskararengana heltzea. Honela, delako aditz-forma edo esakera bat halako herritan erabili ohi dela esatean, Azkuek ez du bilatzen bere eritzien aldeko oinarri edo frogarik; gisa horretako oharrek erakutsi nahi luketena areago da *euskara garbiaren* izpiak eta litsak iraun dutela bizirik; ez dela euskara osoa usteldu, beraz:

Nire lana Bizkaiko izkerantza garbitutea izango dai, eta ez buruzkoa bakarrik: diartean bertan’ erdi-zatitura batzuk’ osorik geienak’ aurkituko dautaz euskara garbiari dagokiozan gaiak⁷⁷.

Laguntzailearen erroari buruzkoak azaldu aurretik, berriz laburbilduko ditu *Izkindeak*, *izan* aditzaz eta denboraz aurretik eman dituen eritzia. Hauexek dira, *izan* ere, Azkue gaztearen ustez, euskal aditzaren muinak:

Lenago esanda dagonez’ gizan izakizun asko egonarren’ izamen bat baino ezdago —izate guziak *daiz*— aditza bere’ *bat* bakarra dai —*izan*— bezte aditz guziak’ beronen langotasunak dauguz; irabiamena bere *bat* dai: *aidakoa*. Uste aldikiak aidako laguntzaileaz alkartuta adierazoten dauguz. Irabiamena bat izanarren’ mila modutara ugaldutenei dai, eta ugarian ugariaz’ guenik ezin topo leikiola uste daut (177.or.).

Aditz-jokoak, beraz, ardatz bakar baten inguruan antolatzen da, baina bertatik sor daitezkeen aditz formak zenbatezinak lirateke; Astarloaren 206 aditz-jokoak gainditzen dituzte Azkuek ateratako kontuek:

77. AZKUE, 1891, 178. or. Ohar bedi, hauxe bera dela Astarloaren egitamua *Discursos* liburuaren: aldez aurretik itxuratzen da nolakoa behar duen izan hizkuntza naturalak, eta gero erakusten, badela holakorki munduan, hots, euskaldunen hizkuntza. “Pero, como quiera que sea, procuremos hallarla”. Donde quiera que exista, no podrá menos de haber retenido en su mecanismo, en su propiedad, economía y eufonía, muchas y utilísimas luces para nuestra instrucción. Ella misma quizás, aunque despojada en muchos de sus ricos avatares, nos presentará medios oportunos para restituirla sus perfecciones, y volverla á adornar con la misma hermosura que recibió en su primera formación” (ASTARLOA, 1883, 4. or.).

Astarloa-ko izkiralari entzutetsuak' eta bere gerizpean bezte batzuk' 206 irabiamen edo geitšoago dagozala irakatsi daue; baina irabiamen bakarran aldamenak bezte orrenbezte irabia-menzat artuarren' laburregia da bizirik iraunkorrena bere' gairik gai ta aldamenik aldamen aditz bat adierazoteko (*ibid.*).

Gorago esan dugun bezala, *izan* aditza da, Azkueren eritziz, euskal aditzaren iturburu bakarra; beraz, berarekin hasten da aditz-jokoaren azalpena:

Aditz irabiagariak azaldu itzazanean' erakutsi neuazan aditz-gunak. Onen artean *izan* aditzan gunak daiz ioakitsuenak, a) batetik aditz guztien laguntzailea eta aldian zimendua dailako, b) beztetik beronegandik ernerikoak eta beroni dagokiozanak daiz bezte aditz guztiak (179. or.).

Lau erroren bidez azaltzen da, *Izkindeak* dioenez, aditz hau, jokatzean: batetik, aditz intrantsitiboei ezartzen zaienean, *ai* erroa agertzen du orain-aldean, eta *itz* iragan-aldean; bestetik, aditz trantsitiboei ezartzen zaienean, *au* erroa har-tzen du orainaldian, eta *eu* iraganean.

Izan aditzak gaur *gun bi* daukaz: *au* edo *eu*, ta *ai* edo *itz* (ei). *Au* edo *eu* aditz biralkoiai lagunduteko oituten daiz: AU'urreko aidaak adierazoteko, EU'urruneko aidaak erakutsi nai daizanean. *Ekarri dAUgu* (urreko aidaa=orain), *Ekarri gEUan* (urruneko aidaa=orduan). (...) *Ai* edo *itz* aditz euskoien aldiak agertuteko oitutenean dauguz: AI'urreko aidaak adierazoteko ITZ urrunekoakaz. *Etorri nAI* (urreko aidaa edo oraingoa), *Etorri nINTZan* (urrunekoa edo ordukoak)⁷⁸.

Jakina denez, ondorengo eredu idatzian, bizkaiera idatzian, noski, ez zuten aurrera egingo Azkuek *Izkindean* proposatzen dituen *nai*, *dai*, *gaiz*, *daiz* eta antze-rako aditz formak, ez iraganeko *itzan*, *itzazan*... Aitzitik, *au* erroak arrakasta handia ezagutuko zuen; urte gutxiren buruan, hasieran Azkuek soilik erabiliko dituen NNN formak, *daust*, *dausku*, e.a..., idazle gehienek usadiora zabalduko ziren, literatur bizkaieraren forma kanoniko bilakatuz. Gure hizkuntzaren historiari dagokionez, bada, *au* erroari buruzkoak dira interesgarrienak, eta hoietara mugatu gogo genuke, bereziki, ondoren.

2.4.4.1. *Izkindea* baino lehenagokoak dira *daut* eta antzeko berreraiketak; *izan* ere, Bonaparteren lanetan ageri da hipotesi hau, gero *dot*, *dut*, *det*... bihurtuko zen jatorrizko formaren bila abiatzen denean. Honen ondorioz, hainbat aldameneko hipotesi garatu ziren, laguntzaile guztiaren sustraia aurkitu asmo zutenak. Hipotesi hauen artean, bizkaierazko NNN laguntzaileari buruzkoak ere aurki genitzake. Campionen gramatikan idoro dezakegu bat, Bizkaiko laguntzailea *eutsi* aditzaren bitarteaz azaltzen saiatzen dena:

el núcleo es *eus*, sacado de EUTSI, que significa “tener” y que pudo muy bien ser una variante dialectal de EUKI. Estas flexiones no incurren en el pleonasio de la pluralización objetiva, concretándose al sufijo *z* (1884, 562. or.).

Oin-hipotesi honetatik abiaturik ere, aisa hel zitekeen Azkueren ondorioetara, hots, orain-aldko *au* errorra. Campionek ez du urrats hori ematen, baina bere

78. Ohar bedi *gaur* hitza tartekatzen duela Azkuek pasarte honetan; bere berreraiketa honek, bada, sinkronia itxura batean eman nahi ditu bere lehen pausuak. Izan ere, aditz bakar bat bera laguntzaile guzia eratzen duena, egokitusunak eskatuko luke erro bakar batetik eratorriak izatea *Izkindean* biltzen direnak. Honela, beraz, ohar batek eskeintzen digu zein den azken batean, Azkuek euskararen lehen denborez duden hipotesia: “Lenengotan’ nire ustez’ i izan izango dai gun bakarra, eta i-tik *ai* ta *ei* (urrekoia ta urrunekoia) sortu izango daiz. Ikerasmen au ioakitsuagoa balitz zeago astertuko neuke. Gaur *gun* onen sustarrak’ batez bere Bizkaiko almeneko aditzean eta bezte izkerantzetako irabiamen batzuetan dakkustaz: *daiket, neikean, elkean,, diot, nion...*” (AZKUE, 1891, 179. or., gehi testuko pasarteia).

ideiek irtenbide berera eramango lukete; honela, *eutsi* aditzaren paradigma erakus-tean egiten duen oharrak zabalik uzten du bidea:

Veanse las terceras personas. *daust* “él me lo tiene”, *dautsu* “él a tí”, *dautsa* “él a él”, *dausku* “él a nosotros”, *dautsue* “él a vosotros”, *dautsee* “él a ellos”. Compárense estas flexiones con las que figuran en las categorías objetivo-pronominales del presente perifrástico, y se verá confirmado que están tomadas de EUTSI (1884, 624. or.).

Azken batean, bada, *euki* aditzetikako hipotesia dugu hau, *eutsi garai* batean *euki-ren* aldaera zela suposatzen bait du. Azkuek ez du, baina, hipotesi hau onartzen, eta *Izkindean* jazartzen zaio eritzi honi, zuzen-zuzenean: “AU edo EU *guna ezdai EUki biortua*” (181. or.).

Au ta eu gunak’ nai almentasuneko *ke irazgaiaz’* nai bezte alkargai batzukaz irazteko’ euren *u=i* egiten dai. *Dalket* (ez *daUket*), *neIkean* (ez *neUkean*); *daItan*, *daItanean*, *daItaneko...* Eta *eUki* aditzan *u* *ezdai* inoiz *i* biurtutenean (*ibid.*).

Azkuek badu arrazoirk *eukiri* buruzko hipotesia gaitzesteko; baina arrazoi hauek, datuetan baino areago, bere euskarari buruzko eritzietan dautza: *euki-eutsi* hipotesia egiazkotzat jo izanez gero, laguntzaile osoaren batasuna, hots, *izan* aditzaren batasuna baztertu beharko luke, eta honekin batera, aditz-denboraren teoria guztsia:

Aldia astertu itzanean azalduta dagonez’ *au* edo *eu* aldiari zimendua dai; eta edonork dakienez’ aldiari zimendua *ezdai eukitea’ izatea* baino (181. or.).

Azken batean, hipotesien arteko eztabaidea honetan, euskarari buruzko eritzia da Azkue defendatzen ari dena; zeren, *izan* aditza ez bada aditz guztiaren itur-burua, nekez mantentzen bait daiteke *Izkindea* guztian zehar aldarrikatzen den *giza-izkeratasuna*; nekez erakutsi, hizkuntza honek naturarekin (*denbora* eta *izatearen* zernolakotasunarekin) duen egokitasun lerro-lerroa. Ondorioz, bada, buelta ematen dio Azkuek, *euki-ren* hipotesiari, eta berean bildu:

Nire ustez *euki eutsi* ta bezte aditz irabiagarri guztiak’ *izan*-etik edo bere gunetatik etorriak daiz (182. or.).

Eutsi-ren hipotesiak, NNN aditz-jokoaren sorburua azaltzen du soilik; Azkue, aldziz, laguntzaile osoari buruzko azalpena eskeintzeko asmoarekin ari zaigu *Izkin-dean*. Euskal aditzaren mekanismoa, eta mekanismo honen bikaintasunari antzemantzen gogo dio. Ostera ere, *Izkindearen* iturburu diren lanak aztertzean, zirriborraturik, edo zeharbideka aipaturik aurki genitzake, Azkuek zehaztu eta gauzatzen dituen tesiak. Honela, Zavalaren lanean, nahiz ez diren paradigmata sartzen, baditugu *au* erroari buruzko aipamenak; esaterako, NN orain aldiko formetan, *dôt*, *dôzu*, *dôgu*, *dôzue...* idatzera erabiltzen du, eta ohar batean argitzen: “La ô de los artículos es originalmente *au*” (16. or.). Bestalde, zenbait pasartetan badi-rudi baliokide bezala ikusten dituela *au* eta *eu* erroak:

Del participio *euki* toma para radical de tensos perfectos *au* ó *eu*, aunque con la variedad que queda dicho en el capítulo precedente n.º 134. Yo usaré por más común de *au* para los artículos puros, y de *eu* para los de recipiente, y en los que la *au* suele pronunciarse ô, la escribiré con esta letra⁷⁹.

79. ZAVALA, 1848, 60. or. Ikusten denez, Zavala ere agertzen da *euki* erroaren aldeko. Ohar bedi, baina, Campion baino gehiago hurbiltzen zaiola *deusto=dautso* aldaketari.

Aurrerago, baina, *deutsa* eta *deutso* adibideak komentatzen diharduela:

En este artículo la *d* inicial significa que el paciente es de 3.^a persona: *eu* ó *au* es la radical: su *ts* es una sustitución de la *k* suprimida, que los vizcainos hacen en las conjugaciones de recipiente (63. or.).

Ikusten denez, bazen *Izkindeaz* aurretik eritzi arras hedatu bat, *au* erroa laguntzaile trantsitiboaren muin bezala ikusten zuena, bizkaierarako. Mitxelena irakasleak azaldu duen bezala (cf. Mitxelena 1954), bizkaiera zaharrean *a/e* oposaketak, [-dat]/[+dat] markak biltzen zituen; denboraren ibilian, baina, oposaketa hau ezabatuz joan zen (ik. Irigoyen 1958). Honela, ulergarria zen *au* erroaren aldeko hipotesia, zeinak *eu* aldaketa fonetiko hutsa bailitz ulertzen bait zuen. Aitzitik, *Izkindean* egiten den aditz-berritxuraketa, arestian aurkeztu ditugun hipotesi eta eritziek baino haratago luke bere iturburua, eta aldi berean bere helburua. Inon baino gehiago eta argiago, aditz-jokoaren azalpenean ageri zaigu *Izkindea* Astarloa durangarraren oinordeko.

Astarloak bere *Discursos filosóficos* liburu mardulean agertzen duen euskal aditzari buruzko ikuspegia, *Izkindeakoaren* hazia da; Azkuek, garatu eta zabaldú egingo du, zenbait zehetasun aldatuz edo gehituz, durangarraren egitamua. Honela, Astarloaren hitzetan aurki daitezke, kasik lerroz-lerro, orain arte aztertu ditugun eritzi eta hipotesiak.

Azkuek bezala, Astarloak ere ez du bilatzen aho-hizkuntzaren datuen biltzea, ez eta ere literatur tradizioaren ereduari buruzko azalpenik eskeintzea. Aitzitik, gauzatzen den euskaratik, *den* euskaratik abiatuaz, hizkuntza naturala izateko bete beharreko baldintzak banan-bana erakusten dituen euskal eredu bat osatzen da. Honela, bada, *Discursos-en* agertzen diren aditz formak ez dira beti hizkuntza errealek jasotakoak; maiz, egileak berak egokiturikoak ditugu⁸⁰.

Hasiera batetik egiazta daiteke Astarloa eta Azkueren ideen artean dagoen antzekotasuna. Adibidez, *Discursos-en* ageri zaigun lehen aditz zerrenda (709. or.) ez da bere aurreko inongo gramatikatan aurkeztu, ez eta aurkeztuko bere ondoren, *Izkindea* argitara urterarte:

Las conjugaciones activas puras son diez y seis: ocho de ellas corteses y las restantes familiares. De las familiares cuatro son femeninas y otras cuatro masculinas. Las activas puras corteses son las siguientes con su traducción castellana.

- | | |
|--------|--|
| Il ... | 1. ^a Au Aquel te ha muerto. |
| | 2. ^a Au-na Aquel te ha muerto. |
| | 3. ^a Z-au Aquel se ha muerto. |
| | 4. ^a N-au Aquel me ha muerto. |
| | 5. ^a D-au Aquel lo ha muerto. |
| | 6. ^a Z-au-z Aquel os ha muerto. |
| | 7. ^a G-au Aquel nos ha muerto. |
| | 8. ^a D-au-z Aquel los ha muerto. |

80. ASTARLOA, 1883, 709. or. Honela diri Zavalak: Astarloa se decidió á tratar filosófica y exactamente del vascuence considerado segun su índole y naturaleza: yo mirando á nuestra lengua segun la usamos en el dia, y con las modificaciones y alteraciones que necesariamente ha deido padecer con el transcurso de tantos siglos, como cuenta de existencia, me he fijado por regla el hacerme entender de aquellos para quienes destino mi obra, acomodándome á veces con este intento á las ideas y expresiones recibidas, aun cuando no cuadren tan bien á nuestra gramática. Y de aquí proviene la diferencia que el lector notará facilmente en nosotros de los nombres de los tensos ó tiempos, y de alguno de los modos, la del número de ambos, y otras muchas". (ZAVALA, 1848, 111. or.) Izen ere, bizkaieraren xehetasun gehientzuenen berri ematen duen bere liburuan, Astarloak taula honetan eskeiniriko asko ez dira agertzen, ezta iruzkinetan ere. Agian, ezin aurkituzkoak izan zituen.

Astarloa, Azkue *Izkindean* bezala, jabetzen da aditz forma hauen desohizko-tasunaz; horregatik, agian, abiatzen da ondorengo *excusatio* antzeko honetan:

La tercera conjugacion *il-zau* aquel ha muerto á usted y la séptima *il-gau* aquel nos ha muerto, se usan en la villa de Oñate y otros pocos pueblos de bascuence. Sin embargo, no podemos menos de adoptarlas por ser legítimas y las únicas que se hallan formadas según el índole de nuestro idioma. Poco tenemos que cansarnos en demostrarlo⁸¹.

Aipatzen diren aditz forma hoiek Oñatin inoiz esan diren ala ez, ez da noski, oinarrizko arazoa darabilgun gaian. Ezer baino gehiago, durangarraren iruzkin honek erakusten diguna da berak ere bazuela aurkezten zituen formen bitxitasunaren kontzientzia. Aitzitik, paradigma hau da delako hizkuntza naturalari egokitzten zaiona, eta honela azalduko zaigu ondoren; ohar bedi azalpenean, Azkueren gramatikan muin diren puntu berak ikutzen direla, hots, erro bakar bat aditz-joko guztirako, orain-aldian *au* dena, —z plural markaren hobestea:

La función del auxiliar se reduce á hacernos ver si estos tiempos son reales ó apostólicos: por los mismo su radical ha de hallarse en todas las conjugaciones; así como se halla la característica de tiempo. Esta radical en el tiempo real es la sílaba *au*, y se halla en la primera, segunda, cuarta y quinta conjugación, usada generalmente por todos los bascongados: pues, ¿por qué no se ha de hallar en la tercera y la séptima? Continúen, pues, los oñatienses y demás pueblos el uso de las bellas conjugaciones *il-zau* é *il-gau*, y siga el resto de los bascongados su ejemplo, desprendiéndose de las torpes que sustituyen en su lugar.

En efecto, ¿cuáles son estas conjugaciones? Son *il-zaitu*, aquel lo ha muerto á usted; *il-gaitu*, aquel nos ha muerto. Sepan que la radical *itu* pluraliza la persona paciente; y siendo en la tercera conjugacion la segunda persona cortés, si *il-zaitu* no significa lo que quieren dar á entender, esto es, aquel ha muerto á usted, sino aquel ha muerto á ustedes. Consulten la inflexion *il-ditu* y verán que la característica *d*, nota de tercera persona de singular paciente pasa á ser plural por la terminacion *itu* y significa aquel los ha muerto y no aquel lo ha muerto. (...)

No es mi ánimo por eso el oponerme al uso de la voz *itu* y me valdré de ella en la gramática de la lengua bascongada como de *una voz propia y perfecta, y si no hago uso de ella en estas demostraciones es para que sean más claras y perceptibles*⁸².

Ziur asko, gehiegizko berrikuntza zen Astarloaren eritzian ere, —*it*— morfema bizkaierari ez zegokiola esatea; ez dezagun ahantzi durangarrak literatur bizkaiera garatzen ari den unean burutzen duela bere lana⁸³. Hala eta guzti ere, goian irakur genezakeen pasartean aipatzen du soilik; bere gainerako iruzkin guztietan, —z agertzen da bakarrik, pluralgile bezala; eta, ikusi dugunez, eskeintzen dituen aditz formek ez dute behin ere —*it*— pluralgilea agertzen. Izan ere, bizkaieraren aditz-jokoa oinarri harturik, eta kontuan izaki bai NNi eta bai NNN jokoan, hala nola aditz sintetikoetan —z ageri dela eta ez besterik, —*it*— markadun aditz formak oztopo bilakatzen ziren Astarloa (eta baita Azkue) bezalako analogiazaleen lanean.

Aditzaren erroari dagokionez, Astarloak oso garbi azaltzen du bere tesiak, gero, ikusi dugunez, Azkuek zehaztuko zuena:

81. ASTARLOA, 1883, 709. or. Bidenabar, esan dezagun ez dugula jaso ahal izan aipatzen dituen aditz-formei buruzko argitasunik; ez dirudi beraz, egiantzia handirik duenik durangarraren baieztapen honek.

82. ASTARLOA, 1883, 709-710. or. Bukaerako azpimarra Astarloarena berarenak da. Ohar bedi *dauz* formari buruzko argitasunik ez dela ematen, baina aitzitik, *ditu* erabat arrunt balitz agertzen.

83. Jakina denez, *Discursos filosóficos* idatzia eta handik urte askotara argitaratu zen; zaila da zehaztea noiz burutu zuen Astarloak bere lan mardul hau. *Apología*, bere lehen lana, 1803.ean argitaratu zen, eta handik urte gutxirekin buruan mamituko zuen, ziur asko durangarrak aztertzen dihardugun lan hau. Hala ere, 1883.erarte izan zuen argitaratu gabe (Ikus honetarako ASTARLOA, 1883, VI-VII.or.). Astarloa 1821.ean hil zen.

Recorriendo las 84 conjugaciones hallaremos que la primera, esto es, la sílaba *au* es madre de todas ellas, pues la hallaremos en todas ellas; ó sin variación alguna ó mudada por la eufonía en *o*, y también, en *eu*; y de aquí conoceremos que quitada esta radical todas las demás letras que componen el auxiliar son características de personas, agentes, pacientes ó recipientes... (ASTARLOA 1881, 716, or.).

Discursos filosóficos-eko aditz-zerrendek, alabaina, ez dute NNN moetako aditz-formetan *au* errorik agertzen; honela, ohizko *deustaz*, *deutza*, *deutzubee...* (712. or.) auñki genitzake hoielan. Astarloaren hitzek, ostera, argi eta garbi adierazten dute *au* dela aditz hoién erroa, orain aldian:

Después de la radical *au* hallamos en estas conjugaciones la letra característica de activa recipiente que es la letra doble *ts*, que se muda en su afin *s* cuando ha de preceder á una consonante⁸⁴.

Honela, bada, zenbait aditz forma badira *Discursos*-en, NNN jokokoak, baina objetua hirugarren pertsonakoa izan beharrean, lehenengo eta bigarrena agertzen dutenak *nor* kasuan; aditz hauek, noski, Astarloak berak sorturikoak ditugu, eta hauetan bai, erroa *au* dugu, adibidez:

- | | |
|--------|---|
| Il ... | 17 Austa Aquel te me ha muerto. |
| | 18 Autza Aquel te le ha muerto. |
| | 19 Auscu Aquel te nos ha muerto. |
| | 20 Autzee Aquel te les ha muerto ⁸⁵ . |

Gorago ikusi dugunez, Azkue lerro-lerro jarraikitzen zaizkie orainarte hemen aurkeztu ditugun Astarloaren eritziei; hala ere, arrazoiren bat egon behar zuen *Izkindean* ageri den *euki* aditzaren hipotesiaren kontrako jarrera azaltzeko; izan ere, Zavalak mantentzen zuen, azaldu bezala, hipotesi hau, gero Campionek ere jasoko zuena. *Euki* aditzaren hipotesia arbuiatzeko arrazoia, arrazoi nagusia esango genuke, bere oinordekotzatik datorkio hain zuzen *Izkindeari*: Astarloaren eritziekiko atxikitasunetik; zeren durangarra bait dugu, *izan* aditzaren ardaztasunaz mintzatzen dena, *Izkindeari* eredua emanet:

Habiendo analizado las 84 conjugaciones activas puras y recipientes, y habiendo hecho ver en esta operación las diferentes características así de personas pacientes como de agentes y recipientes de conjugaciones, etc..., parece que los literatos no tenían sino saber que el auxiliar pasivo de estas 19 conjugaciones era el verbo *izan*, ser. (1883, 723. or.)

84. ASTARLOA, 1883, 718. or. *Izkindean*: "Tsí ataltsoa amaitkizt daudenak' egimen bi agertu ezarren' bezte aditz irabiagarri batuetatik eratorriak daiz, eta len esan dainez' ikurtuak daiala agiri daue. Ts' aditz birlakoien gunai iratzentak daki, eta beti ikurmenea agertutu daw" (AZKUE, 1891, 157. or.) *Ikurtu* hitzak "reflexivo" esan nahi du, hots, datiboa ere sartzen dela aditz jokoan.

85. ASTARLOA, 1883, 711. or. Bada, alabaina, Astarloaren jarraitzailek argiennetan, NNN aditz-joko guztiari *au* erroa ezarri zionik *Izkindea* baino lehenagotik: Mateo Zavala, hain zuzen ere. Lécluseri bidalitako izkribu batean, zeinetan agertu asmo dituen Astarloak *Discursos* en aipatzen dituen 206 aditz-joko edo konjugazioak zeintzu diren. Bertan Zavalak egiten dituen oharrak oso interesgarriak dira: *izan* ere, *Izkindean* buruturiko procedura bera agertzen digu. Lan honetarako ez dugu zuzenean kontuan izan, arrazoi nagusi batengatik: Azkuek ez zuen izkribu-hau ezagutzenik *izan* *Izkindea* idatzeko orduna: 1829.eko data izaki, ez zen 1922.erartera argitaratu. Hala ere, bertan egiten diren iruzkinak *Discursos* eta *Izkindea* aurkitu ahal izan ditugunen antzekoak dira. Adibidez: "En esta conjugación se hará uso de la verbal *au* para la formación de artículos activos por ser esa la genuina de la conjugación bizcaína; y que también se ve más o menos usada en las conjugaciones de otros dialectos. En la guipúzcoana se dice *nau*, *nauz*, *nauc*, *naun*, y también algún tanto *dau*. En la labortana y navarra rayana es mucho su uso, ya algún tanto desfigurada, como *derautzut*, *drautzut*, *darotzut*, ya en su natural, como *dauvc*, *daut*, *dauve*, *dauzkizu*, *nau*, etc." (ZAVALA, 1922, 39-40. or.). Ondoren eskeintzen zaizkigun aditz formak, honelakoak dira: *daut*, *dauzv*, *dau*, *dauug*... Badira Discursos-ekitik jasotako formak ere, baina hauet kako artean ageri dira, ohan honekin: "Los que están entre () no son usuales". Kako artean daude *gauz*, *gauvez* eta *dauz*. *Zauz* eta *Zau* ez dira azaltzen ere. (41-42. or.) NNI jokoko aditz guztiak, bestalde, *au* erroaz osatutako ditugu: *daustaz*, *dauzuzu*, *dautzut*... (42. or. eta hur.) Bukatzeko, Zavalaren "pragmatiko eta positibista" irudiari ondoegi egokitzen ez zaion pasarterik bada, Astarloaren eskola nolabait definitzeko modukoa:

BIBLIOGRAFIA.

- AKESOLO, Lino, 1965, "Dos notas autobiográficas de Resurrección María de Azkue, comentadas" *BAP*, XXI, 35-63. or.
- ARANA-GOIRI, Sabino, *Obras Completas de Arana-Goiri'tar Sabin*. Buenos Aires: 1965, (Sabindar-Batza).
- , 1896, *Lecciones de Ortografía del Euskera Bizkaino*, (*Obras Completas argitalpenaren arauera aipatua*).
- ARANA MARTIJA, J.A., 1983, *Resurrección María de Azkue*, Colección "Temas vizcainos", IX, 103-104 zenb. Bilbao: Julio-Agosto. Bizkaiko Aurrezki Kutxa.
- ARRIANDIAGA, Manuel, 1907, "Notas sobre el verbo euzkérico", *Euzkadi*, IV, 229-236. (Argitaratzeko dagoen Jesus María Aldayren *Obra euzkérica del P. Manuel de Arriandiaga-ren arauera aipatua*).
- , 1915, "La reforma de la Conjugación euzkérica. Estudio y ensayo", *Euzkadi*, XII, 67-73, 99-106, 106-165, 305-313, 429-437. (Argitaratzeko dagoen Jesus María Aldayren *Obra euzkérica del P. Manuel de Arriandiaga-ren arauera aipatua hau ere*).
- ASTARLOA, P.P., 1803, *Apología de la lengua bascongada*, Madrid: G. Ortega.
- , 1883, *Discursos filosóficos sobre la lengua primitiva*, Bilbao: Velasco.
- AZKUE, R.M., 1891, *Euskal-Izkindea*, Bilbao: Astuy.
- , 1893, *Bein da betiko*, Bilbao: Casa de Misericordia.
- , 1896, *Método práctico para aprender el vascuence bizkaino y guipuzkoano*, Bilbao: Astuy.
- , 1906, *Diccionario vasco-español-francés*, Bilbao.
- , 1925, *Morfología Vasca*, Bilbao: Editorial Vasca.
- , 1947, *Euskalerriaren Yakintza*, Madrid: Espasa-Calpe.
- CAMPION, Arturo, 1884, *Gramática de los cuatro dialectos literarios de la lengua euskara*, Tolosa: E. López.
- CORCUERA, Javier, 1979, *Orígenes, ideología y organización del nacionalismo vasco. 1876-1904*, Madrid: Siglo XXI.
- ELORZA, Antonio, 1978, *Ideologías del nacionalismo vasco*, San Sebastián: Itxarropena.
- EYS, J.W.J. van, 1879, *Grammaire comparée des dialectes basques*, París: Maisonneuve.
- IRIGOYEN, Alfonso, 1957, "Del epistolario de Azkue", *Euskera*, II, 261-393.
- , 1958, "Curiosidades y observaciones sobre el dialecto vizcaíno literario", *Euskera*, III, 105-132.

"Mas cuando Astarloa afirmó que eran 206 las conjugaciones presentes, consideró al bascuence según su naturaleza, y lo que según su constitución y elementos hubo de tener en los días de su gloria. A la verdad no es necesario un conocimiento muy profundo de dichas cosas, para hacerse cargo de la exactitud y verdad de su aserto; y yo mismo he visto por experiencia, que los bascogados a quienes he leido algunas de estas conjugaciones, hiciéndoles alguna ligera análisis de sus artículos, al momento se han hecho cargo que así debió ser, y me lo han confesado con pleno convencimiento de ello" (62. or.). Eta aipu honekin ez da bukatzen Zavalak Astarloarekiko duen zorra. Dirudinez, beraz, Zavalari dagokionez berriz aztertu beharko liratzeke orain arte emaniko iritzik (Ik. 43. oharra.).

- LAKA, Itziar, 1986, *Hiperbizkaieraren historiaz. Hastapenak*, E.H.U.ko tesina argitaragabea.
- , 1986a, “Bizkaiko Aldundiaren euskarazko katedra (Hiperbizkaieraren historiaz I)”, in Lakarra (arg.) 1987.
- , 1986b, “Sabino Arana Goiri eta hiperbizkaiera. (Hiperbizkaieraren historiaz III), ASJU XXI-lean inprimategian.
- , 1986c, “Manuel Arriandiagaren berrazterketarako oinarriak (Hiperbizkaieraren historiaz IV)”, ASJU XXI-2an inprimategian.
- , 1986d, “Euskal-aditza Bizkai, Gipuzko, Lapurdi eta Zuberoko izkerantzen garbiturikoa. (Manuel Arriandiagaren eskuizkribu argitaragabea)”, ASJU XXI-3-n argitaratzeko.
- LAKARRA, J.A., (arg.), 1987, *Hiztegiak eta testuak* (E.H.U.aren Udako V. Ikastaroak). Inprintan, E.H.U.aren argitalpen zerbitzua.
- LARRAMENDI, 1729, *El impossible vencido*, Salamanca: Antonio Joseph Villagordo, facsimilea Donostia: Hordago 1979.
- MITXELENA, Koldo, 1954, “Nota sobre algunos pasajes de los Refranes y Sentencias de 1596”, BAP, XIV, 479-480.
- , 1960, *Historia de la literatura vasca*, Madrid: Minotauro.
- , 1970, *Estudio sobre las fuentes del diccionario de Azkue*, Bilbao: Publicaciones del Centro de Estudios Históricos de Vizcaya.
- , 1981, “Lengua común y dialectos vascos”, ASJU, XV, 289-313.
- SARASOLA, Ibon, 1975, *Euskal literatura numerotan.*, Donostia: Kriselu.
- TOVAR, 1952, *La obra de D. Resurrección María de Azkue. Edición recuerdo de la velada necrológica celebrada el día 4 de enero de 1952 para honrar la memoria del virtuoso sacerdote e ilustre vascófilo*. Bilbao: Imp. Provincial.
- , 1966, “Azkue gramático”, in *Don Resurrección María de Azkue lexicógrafo, folklorista y gramático*. Bilbao: Junta de Cultura de Vizcaya.
- VILLASANTE, Luis, 1979, *Historia de la literatura vasca²*, Aranzazu.
- X.X. “Sabino Arana juzga a Miguel de Unamuno”, MUGA, 1980, I, 17. zenb. (ez da argitaratzailaren izenik ematen).
- ZAVALA, Mateo, 1848, *El verbo regular vascongado del dialecto vizcaino*. San Sebastián: R. Baroja.

The Syntax of Focus

Andolin EGUZKITZA

University of Deusto


1.0. In this paper I shall discuss the syntax of focus in Basque. In order to undertake this task, I shall assume that INFL is the head of S and that COMP is the head of S' (Stowell, 1981). Later, following Horvath (1981), and considering the movements observable in the syntactic component of Basque, as well as the landing site of the moved elements, I will define both a movement to focus and a focus position, and show that wh-movement in this language is a focus-to-focus movement rather than one from COMP to COMP. Finally, examining the movements within the Logical Form we shall see that they do not help us with the basic question to be resolved: the existence or not of a verbal phrase at deep structure. This topic will be the subject of another work (cf. Eguzkitza 1986).

1.1. INFL As the Head of S.


If we want to represent the sentence in (1) by means of a tree, there are two possible structures. In one INFL is the head of S, and in the other V is the head of S. Following the first assumption, we may represent (1) as in (2a-b):

- (1) gizonak Peruri liburua bidali dio
 man-det/sg-erg Peter-dat book-det/sg-abs sent has it
 to him
 'the man has sent the book to Peter'

(2) a.




b.




In the second hypothesis, i.e., when V is the head of S, we also have two possibilities:

(3) a.



b.



If we make a narrow interpretation of X-bar-Theory and postulate that there is only one level of specifier, it seems to me that the hypothesis labelled (3a) can be readily discarded. The argument works the following way. If V is the head of S, as (3a) proposes, then INFL can only appear as a specifier, because first it is not a complement of V, and second because there is no possibility to consider it either a modifier of V or of any of its complements. This amounts to saying that it has to come from the maximal projection of V. But this means,

in turn, that if INFL comes from the maximal projection of V as in (3a), the maximal projection of V is not S but V''. Hence, the only possible representation for the V-head hypothesis is (3b). Thus, is there any way that could help us decide between (2), both (a) and (b), and (3b)? It is obvious that the choice between both hypotheses is an empirical question. Nonetheless, it ought to be pointed out that according to Chomsky's 1980 definition of government (Aoun and Sportiche, 1981):

- (4) x governs y iff
 a. x c-commands y
 b. No major category or category boundary intervenes between x and y.

(3b) and (2b) are the only possible structures, for V governs its complements and INFL governs the subject. In (2a), on the contrary, INFL would not be able to govern the subject position, for it does not fulfill the *c-command* requirement of that definition (Reinhart's simplified definition [cf. Reinhart 1983; 23]). Thus, the alternative, as Huang (1982) puts it, could be to accept the definition by Aoun and Sportiche (1981):

- (5) A governs B if and only if $A = X^\circ$ and every maximal projection dominating A also dominates B and viceversa.

According to this definition, then, INFL would be able to govern up to INFL'', namely, up to the subject position without any further specification.

The empirical argument in favor of (2a) is provided by the movements involved with focalization. Thus, let us hypothesize that in sentence (1) above we want to focalize the N'' *liburua* 'the book' and give it a special prominence within the sentence. Then, we move the string formed by the focused element, *liburua* 'the book', the verb, *bidali* 'sent', and INFL, *dio*, to the front of the sentence. It could also be argued that instead of the fronting of the mentioned string, the moved elements are the subject, *gizonak* 'the man', and the indirect object, *Peruri* 'to Peter'. Without trying to decide between both alternatives for the time being, the very important fact is that the mentioned string, i.e., (6), cannot be broken neither by moving only part of it to the front, nor by inserting the subject, *gizonak* 'the man', and/or the indirect object, *Peruri* 'to Peter', between them¹, as shown in (7):

- (6) a. *liburua bidali dio*
 b. Focus + V + INFL
- (7) a. **liburua bidali gizonak Peruri dio*
 book-det/sg-abs sent man-det/sg-erg Peter-dat has
 it to him
- b. **liburua bidali gizonak dio Peruri*
 book-det/sg-abs sent man-det/sg-erg has it to him Peter-dat
- c. **liburua bidali Peruri dio gizonak*
 book-det/sg-abs sent Peter-dat has it to him man-det/sg-erg

